

puntua

+

Bakardadea: inguruaren parte ez izatearen sentsazioa

Pedro Ibarra abokatuari elkarrizketa

GEHIENEK EGIN DUTE GREBA

Mobilizazio jendetsuak; deitzaileak pozik; kooperatiba handietan erantzun txikiena; kalteak hainbat kutxazain automatikotan / 2



Arrasaten eguerdian egindako manifestazioaren aurrealdea Garibai etorbidean. IMANOL SORIANO

Mikel Aristik irabazi du Debagoieneko 2019ko Kirolari Onenaren Saria

Eskualdeko 14 kirolarik jaso dute joan den urtean egindako lanaren aitortza, DKS19 sariketan / 36



Saridun guztiak batera, Bergarako Seminarixoko agertokian. I.S.

SINADURAK

 RESU ABASOLO / 8	 AINHOA NARBAIZA IRIZAR / 26
 ANE ZUAZUBISKAR / 12	 OXEL EROSTARBE / 30
 LEIRE ELEJALDE / 17	 AINTZANE OIARBIDE / 48

Beskoitzeko ikastolaren aldeko elkartasun kontzertua eta krosa antolatu dituzte / 3

Greba orokorra: eragin handia lantegietan, eta oso agerraldi jendetsuak

"Lan, pentsio eta bizitza duinen" aldeko greba orokorrak izandako eraginarekin "oso pozik" daude deitzaileak, eta ia herri guztietan izandako mobilizazioetan jendetza elkartu da; kooperatibetan izan du grebak oihartzun txikiena, nahiz eta bozketak parekatuak izan

Jokin Bereziartua DEBAGOIENA
Lan, pentsio eta bizitza duina lelopean Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak deitutako greba orokorrak eragin handia izan zuen atzo Debagoiengan. Industrian, hezkuntzan eta merkataritzan izan zuen bereziki oihartzun handia deialdiak. Hori bai, Mondragon Taldeko kooperatibetan ez zuen jarraipen handirik izan, Fagor taldeko zenbait lantegi handitan normal egin zuten-eta lan. Kooperatiba horien artean daude, esaterako, Ederlan, Copreci, Fagor Industrial eta

Fagor Arrasate. Oñatiko Ulma Forjan ere ez zuten grebarik egin, ezta Ulma Polimeron eta Lana enpresan ere. Bestalde, bat egin zuten deialdiarekin, esaterako, Arrasateko Polmetasak, Mondragon Assembly eta JMAk; Bergarako Arcelor Mittalek, Laz-

"SEKULAKO ERAGINA IZAN DU ETA POZIK EGOTEKO MODUKO EGUNA DA GAURKOA"

AMAGOIA LASAGABASTER, ELA

piurrek eta Tornilleria Debak; Oñatiko Ulma Packagingek, Ulma Eraikuntzak eta Garayk; Aretxabaletako Mondragon Assembly, Eskoriatzako TESAK eta; Antzuolako Elayk eta Goizperrek. Goienako langileek ere bat egin zuten grebarekin.

"BULTZADA HANDIA IZAN DA GREBA ASTELEHENEROKO BORROKARAKO"

JOSE AGUAYO, PENTSIODUNA

Dendak eta supermerkatuak

Komertzio txikietan eragina oso nabarmena izan zen herri guztietan, eta goizean bereziki kale gehienak hutsik egon ziren. Denda gehienak itxita, eta taberna gutxi batzuek ireki zituzten ateak; supermerkatu handietan ere eragina oso nabarmena izan zen. Arrasateko Eroski, BM eta Lidl supermerkatuek ateak itxi zituzten. Beste horrenbeste egin zuten Bergaran, esaterako, Super Amarak eta Diak. Bergarako Amillagako eta Oñatiko Eroskik, berriz, ez zuten grebarik egin.

Hezkuntzan bai, osasungintzan ez

Hezkuntzan, Debagoieneko ikastetxe ia guztietan egin zuten greba, eta, udalei eta Mankomunitateari dagokienez, Leintz Gatzagako udaleko langileek izan ezik, gainerako guztiak egin zuten bat deialdiarekin. Osasun-

"GREBAREN DEIALDIA ULERGAITZA, ARDURAGABEA ETA JUSTIFIKAEZINA DA"

EDUARDO ZUBIAURRE, CONFEBASK

gintzan, ordea, ezin da esan grebak eragin handirik izan zuenik. Osakidetzak zehaztutako zerbitzu minimoen ondorioz, Debagoieneko Ospitaleko mediku gutxi batzuek greba egitea erabaki zuten, baina normaltasuna izan zen nagusi. Eta garraio zerbitzuari dagokionez, Lurraldebusek –eta baita Arrasateko Herribusa, besteak beste– zerbitzu minimoak bermatu zituen.

Sindikatuak, "oso pozik"

ELAko Amagoia Lasagabasterren ustez ere Debagoiengan "oso eragin handikoa" izan zen atzoko greba: "Industrian bagenekien %90etik gorako jarraipena izango zuela grebak, eta ireki duten ia bakarrak kooperatibak izan dira. Hezkuntzan, udaletan, komertzioan... sekulako eragina izan du, eta pozik egoteko moduko eguna da gaurkoa. Jende askok erabaki du etxean geratzea".

LABeko Xabi Llodioaren arabera, industrian "arrakasta itzela" izan zuen deialdiak, kooperatibetan izan ezik. "Kooperatiba askok ez dute grebarik egin, baina ez dugu porrot moduan ulertzen. Izan ere, kasu batzuetan, baiezko botoak izan dira ezezkoak baino gehiago, baina barne araudiगतिक ez da greba irten. Eta ezezkoa nagusi izan denean ere, bozketak oso parekatuak izan dira; hori balioan jarri behar dela uste dugu". Bestalde, Llodio nabarmendu nahi izan du ibarreko greba batzordeetako "aniztasuna" eta egin duten "lan eskerga" atzoko greba antolatzeko eta babesteko.

Mobilizazioak, "oso jendetsuak"

Debagoieneko ia herri guztietan egin zituzten mobilizazioak. Eguerdian, Arrasaten eta Bergaran manifestazioak egin zituzten, eta, deitzaileen arabera, "oso jendetsuak" izan ziren biak. Arrasaten, LABen esanetan, 900 lagundik gora elkartu ziren: "Eskualdeko beste herri gehienetan ere mobilizazioak egon direla kontuan hartuta, oso pozik egoteko moduko datua da". Jendetsua izateaz gain, "berri-tzailea" ere izan zen kale agerraldi hori: "2020an lanean hil diren langileekin performance bat egin genuen, besteak beste". Horrez gain, euren esanetan "prekariatatearen sustatzaile" diren eragile batzuen aurrean geldialdiak egin zituzten, pega-



2020an dagoeneko bederatziz langile hil direla salatzen duen protesta, Arrasaten. ARGAZKIAK: XABI URZELAI, IMANOL SORIANO ETA GOIENA



Kapitalismoaren kontrako aldarria.



BBVAren kutzazaina erretea, Arrasaten.

tinak jarri edota bestelako aldarrikapenak egiteko.

Pentsiodunek eta talde feministek protagonismo berezia izan zuten. "Grebarekin bat egin dugu, ezinbestekoa delako gure aldarrikapenak bete daitezen. Bultzada handia izan da gaurkoa astelehenero elkartzen jarraitzeko. Pozgarria da horrenbeste jende kalean borrokan ikustea", esan zuen Jose Aguayo Bergarako pentsiodunak.

Banketxeak jomugan

Intzidentziei dagokienez, goizeko lehen orduan izan ziren gertaera aipagarri batzuk. Gaurdian, Arrasateko Biteri plazako BBVAren sukurtsaleko kutzazain automatikoari su eman zioten ezezagun batzuek; hain zuzen ere, Arrasateko Udal Gobernuak eraso hori gaitzetsi egin zuen, "iraganeko moldeak" direla irizita: "Atzean utzi behar ditugu horrenbeste sufrimendu eragin duten eredu zaharkituak. Elkarbizitza, elkarlana eta hitza dira bideak, ez ekintza hauek".

Aretxabaletako hainbat banketxetara, berriz, pintura bota zuten, baita Oñatiko Eroskira ere. Bes-

telako intzidentzien artean kokatu behar dira Oñatiko Zubikoa kiroldegi pareko errepidea kate batekin moztu zutela goizaldean eta hainbat pintaketa azaldu zirela herrietako kaleetan eta supermerkatuetan. Gainerakoan, piketeak informazioa banatzen aritu ziren, bereziki eguneko lehen orduetan; Bergarako Amillaga kaleko Eroskin eskuorriak banatzen eta pegatinak jartzen ibili ziren eta han Ertzaintzak deitzaile batzuk identifikatu zituen. Arrasateko Lidl-en ere ertzainek bi lagun identifikatu zituzten eta grebaren berri emateko materiala konfiskatu zieten.

Jaurilaritzak, baloraziorik ez

Iñigo Urkullu lehendakariak eta Eusko Jaurilaritzako bozeramaile Josu Erkorekak ez zuten balorazio politikorik egin nahi izan; EAEko administrazio publikoko langileei dagokienez, grebaren jarraipena %16koa izan zela esan zuen Erkorekak, 2013koa baino hamar puntu txikiagoa. Confebask-eko presidente Eduardo Zubiaurreren ustez, deialdi "ulergaitza, arduragabea eta justifikazina" da.

Beskoitzeko ikastolari laguntza Debagoienetik

Bergarako Aranzadi eta Oñatiko Txantxiku ikastolek elkartasun kontzertua –domekan Oñatin– eta krosa –otsailaren 7an Bergaran eta Oñatin– antolatu dituzte, Lapurdiko Beskoitzeko ikastolak eraikin berria egitea diruz laguntzeko

Eneko Azkarate Laspiur OÑATI

Azken urteetan, Ziburuko Kas-karotenea ikastolaren eta Baionako Bernat Etxepare lizeoaren aldeko kros solidarioak egin dituzte Debagoieneko ikastolek. Aurtun, Lapurdiko Beskoitzeko ikastolaren alde egingo dituzte elkartasun kontzertua eta krosa Oñatiko Txantxiku eta Bergarako Aranzadi ikastolek. Elkartasun kontzertua Oñatin domekan eta elkartasun krosak otsailaren 7an Bergaran eta Oñatin.

Beskoitze Lapurdiko 2.700 biztanleko herria da. 2013an sortu zuten ikastola, "geroz eta frantses hiztun gehiago dagoen eremu horretan euskararen iraupena

bermatzeko tresna gisa". Hiru ikaslerekin eta etxe partikular batean hasi zuen ibilbidea, eta gaur egun, Ahurti, Bardoze, Beskoitze eta Urketa herrietako 39 ikasle batzen ditu ikastolak. Eraikin prefabrikatueta.

2013tik ikastolak izan duen hazkuntzaz jabetuta lursail bat topatu, erosi eta ikastola berria eraiki nahi dute hezkuntza-espazio egokiagoa sortzeko. Horretan diruz laguntzeko antolatu dituzte Oñatin eta Bergaran elkartasun kontzertua eta krosa.

Beskoitze eta Oñati kantuan

Beskoitzeko kideekin batera antolatu du kontzertua dome-

karako Txantxiku Ikastolak. 18:00etan izango da, San Migel parrokiari. Hauek hartuko dute parte: Pantxo eta Ugo Carrere, Iñaki Dieguez, Marie eta Pantxix Bidart, Mattin Lerissa, Mixel Ducau, Maialen Errotabehere, Iñigo Arrazola, Juan Valls, Ander Etxaniz eta Beskoitzeko eta Txantxiku Ikastolako haurrak.

Sarrerak salgai jarriko dira, Oñatin, ikastolako idazkaritzan, Txokolateixan eta, kontzertu egunean, parrokiari. Bergaran, Aranzadiko idazkaritzan. Hel-duek 10 eurotan eta gazteek 5 eurotan. Bestalde, otsailaren 7an, Bergaran eta Oñatin, elkartasun krosak egingo dituzte.

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK



ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ALBERDI ASESOREAK

BERGARA / Mabilategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@uribesalgo.es

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usatxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

LARRAITZ VALENCIA AZKARGORTA

Arkitektoa eta tradesperson formazioa
Tel.: 636 89 92 11
larraitz.arkiestudioa@gmail.com

Historia ahaztua berreskuratzea helburu

Olaso Fundazioaren laguntzarekin, otsailetik martxora bitartean erakusketa bat, hiru hitzaldi eta lau ikastaro eskainiko dituzte Bergarako Udalak eta Nabarralde Fundazioak elkarlanean. Izena emateko epea otsailaren 28ra arte izango da zabalik

Jone Olabarria DEBAGOIENA

Bergarako Udalak, Nabarralde Fundazioarekin eta Olaso Fundazioarekin elkarlanean, ahaztutako historia berreskuratzea helburu duen egitaraua aurkeztu zuten astelehenean Olaso dorreko lorategian. Hain zuzen ere, *Euskal Herriko historia eta nortasuna* izenburupean, otsailan eta martxoan erakusketa bat, hiru hitzaldi eta lau ikastaro eskainiko dituzte.

Egitarauak helburu zehatza duela azpimarratu du Bergarako Udaleko Kultura zinegotziak: "Argi dago orain arteko Euskal Herriaren historia beste batzuek idatzi digutela, eta hutsune horri erantzuna emateko modu bat da guk idatzitako gure historia ezagutzera ematea".

Bi ataletan

Euskal lurraldearen eta historiaren kontaketa berreskuratze-ko eta ez ahazteko, bi ataletan banatuta dagoen egitaraua prestatu dute: alde batetik, *Nafarroa, Euskal Estatua* izeneko erakusketa egongo da; bestetik, historia ikastaro bat. Eta, hori guztiari indartzeko, hiru hitzaldi eskainiko dituzte: lehenengo hitzaldia erakusketaren aurkezpena izango dela azaldu du Angel Rekaldek, Nabarraldeko zuzendariak: "Panel batzuk jarri ditugu, Nafarroaren mapa ezberdinak direnak. Bertan ikusten da Baskonia non zegoen, Iruñeko erresuma non zegoen, Nafarroako erresuma non zegoen, eta kontura gaitezke beti toki berean egon garela. Hortaz, badago historia garbi bat, izen ezberdinekin eta eboluzioarekin. Hor ikus daiteke gaur Euskal Herria bezala ezagutzen dugunak zer ibilbide izan duen".

Olaso dorrea, leku "aproposa"

Hitzaldiak eta ikastaro saioak Olaso dorrean izango dira, eta bertako zuzendari Urko Aierzak



Bergarako Udaleko eta Nabarralde eta Olaso fundazioetako kideak. BERGARAKO UDALA

"EUSKAL HERRIAREN HISTORIA BESTEEK IDATZI DUTE; GUK IDATZITAKO EMAN NAHI DA EZAGUTZERA"

azpimarratu zuen dorrearen historiarengatik leku "aproposa" dela: "Garrantzitsua da gogoratzea Monzonentzat historia eta euskal kultura ardatz batzuk izan zirela, eta bera izan zela, hain zuzen ere, Euskal Herriaren eta Nafa-

roaren historia hain lotuta ikusi zituena. Oso egokia ikusten dugu hemen, Monzonen etxean, Euskal Herriaren historia berriro ere astintzea".

Izen ematea, zabalik

Erakusketa eta hitzaldiak otsailan izango dira eta Euskal Herriko historiarekin lotutako ikastaroaren lau saioak martxoaren 3tik 24ra, asteartero. Izen ematea otsailaren 28ra arte egongo da zabalik, Nabarralderen webgunean eta Bergarako Udaleko Kultura Zerbitzuan.

Oñatin ere gertu dago hitzaldi sorta

Gutaz; izaera, gogoa, ekina leloaren baitan hainbat hitzaldi eskainiko dituzte Oñatin urtarril hasieratik martxora arte. Hilabeteotan Nabarralde fundazioak eta Oñatiko Udalak antolatuta. Ekitaldi guztiak Oñatiko zine aretoan izango dira, 19:00etan. Urtarrilaren 14an eta 21ean egin zituzten lehenak, eta bertan, Iñigo Larramendi eta Beñi Agirre izan ziren.

Oraindik, baina, hainbat ekintza geratzen dira: datorren martitzenean, otsailak 4, Joseba Asiron izango da, *1512ko konkista* hitzaldiarekin. Otsailaren 11n, martitzena Asisko Urmenetak *1620 Nafarroa beheregaina* komikia aurkeztuko du. Eta martxoaren 10ean, martitzena, Ekain Martinez de Lizarduyk *Erraiak* dokumentala aurkeztuko du.



Juan Martin Elexpuru, martitzenean, Goienaren egoitza kanpoaldean. J.O.

Iruña-Veleia auziaren epaiketaren atarian, gertatuko argitzeko deia

Arazo horri "arduraz" heldu eta auzia "behingoz" argitzeko eskaera egin du Juan Martin Elexpuru

J.O. DEBAGOIENA

Astelehenean hasiko da, Gasteizko Justizia Jauregian, Iruña-Veleiako aurkikuntzen gaineko epaiketa. Arabako Foru Aldundia da kereila jartzailea; akusatuen aulkian Eliseo Gil, Oscar Escribano eta Ruben Cerdan eseriko dira, ondarearen aurkako kalteak eta iruzurra egotzita.

Hala, gertatutakoa "behingoz" argitzeko eskaerarekin Goiena telebistako platoon izan zen martitzenean Iruña Veleia Argitu plataformako kide Juan Martin Elexpuru.

"Arduraz" heltzeko eskaria

"Amaiera gabeko" instrukzio fasea; horrela deskribatu du Elexpuru kasua; izan ere, 11 urte igaro dira kereila jarri zenetik eta auzipetuentzat "bentakoto tortura" dela azaldu du.

Era berean, "harrituta" azaldu da, Isabel Maria Diez-Pardo Her-

nandez epaileak ez dituelako deklaratzera deitu ez kereila jarri zuen politikaria -Lorena Lopez de Lacalle, Aldundiko diputatu ohia-, ezta faltsuak zirela erabaki zuten unibertitate irakasleak ere.

Beste behin adierazi duenez, "konbentzituak" daude grafitoak benetakoak direla, eta, ondorioz, "auzipetuak errugabeak direla" egozten zaizkien delituetatik: "Egoera horrela, Arabako Foru Aldundiari eskatzen diogu auzipetuen aurkako karguak baztertu eta azterketa arkeometrikoak eta indusketa kontrolatuak bideratu ditzala".

Aldi berean, ondare kulturala eta historikoa zaintzeko egin-kizuna duten erakundeei -unibertsiteateak, Eusko Jaurlaritzak, Euskaltzaindia...- eskaera egin die: "Arazoari arduraz hel die zaiotela eta ahaleginak eta bi egin ditzatela auzia argitzeko".

Debagoieneko OSIk 'Paziente bizia' tailerrak abiarazi ditu

Aurreko urteetan egin bezala, *Paziente bizia* tailerrak abiarazi ditu Debagoieneko OSIk, gaitasun kronikoren bat duten pertsonen edota bizi kalitatea hobetu nahi duten pazienteei zuzenduta.

Hain zuzen, hiru tailer antolatuko dituzte datozen asteetarako: otsailaren 4an hasita, 16:00etan, Arrasaten, Kulturatan, *Nire osa-*

suna aktiboki zainduz tailerra eskainiko dute. Bergaran, otsailaren 3an, *Minbizia eta gero nire osasuna zaintzen* tailerra egingo dute, 16:30ean, osasun zentroan. *Nire osasuna aktiboki zainduz* tailerra otsailaren 11n iritsiko da Antzuolara, Olaranera, arratsaldeko lau eta erdietan.

Tailerrek bi ordu eta erdi iraungo dute, astean behin egingo dira, eta zazpi edo zortzi astez. Izen ematea osasun zentroetan egin behar da eta I15 lagundako lekua izango da.

ikastola

etorkizunerantz
hezkuntza
eraldatzen



Matrikula zabalik:
Urtarrilak 27-Otsailak 7



Txantxiku
Ikastola



arizmendi
ikastola



ARANZADI *ikastola*
Kalitatezko Euskal Heziketa



Hiritar bat, maskara jarrita, Txinako Wuhan hirian. WIKIPEDIA



Kanguru bat Australiako Hegoaldeko Gales Berrian, sute baten ondoan. NYT

Eneko Azurmendi ARRASATE

Azken egun eta asteetan komunikabide guztietan izan du lekua kalte handiak eragiten ari den Wuhan koronabirusa deritzonak. Epidemia hau, gainera, Txinako urte berriarekin batera etorri da, hain zuzen, hainbat eta hainbat txinatarrek euren familiengana bidaiatzeko aprobetxatzen duten garaiarekin. Horrek kaos handia eragin du Asiako herrialdean, baina, batez ere, Hubei probintzian eta hiriburuan, Wuhanen. "Hiria itxi egin dute, garraio guztiak geldidaude, hegazkina, metroa, trenak, autobusak...", azaldu du Beñat Barberenak. Txinako Hangzhou hirian bizi da -Wuhandik 700 bat kilometrora-, baina Txinako urte berriko oporrak baliatuz, Arrasaten dago egunotan. Harelere, neska-laguna han geratu da eta gertutik jarraitzen ari da gaia. "Gomendatu dute Wuhandik pasatu izan den jendea hamalau egun koarentenan egotea, gainontzekoekin ahalik eta kontaktutik gutxien edukitzea, autoritateei abisatzea eta harremanetan jartzea ospitaleekin".

Era berean, desinformazio egoera nabarmena dela uste du. "Informazio asko zabaltzen da sare sozialetan, eta bulo asko daude tartean. Hori dela eta, Txinako Gobernuak adierazi du kontrolatu egingo duela sare sozialetan zer esaten den, zer birbidaltzen den: Gobernuak ofizialki eman duen informazioa ez bada, zigortu egingo da".

Wuhango koronabirusa eta Australiako suteak, debagoiendarren ahotan

Mundu mailako komunikabideetan nagusitzen ari direnetako bi gai dira Wuhango koronabirusa eta Australiako suteak; hain zuzen ere, Txinan eta Australian bizi diren debagoiendarren testigantzak batu ditu GOIENAK, bi egoerak gertuagotik ulertzeko

Ekonomian eragin dezake

Eneko Lopez de Armentia aretxabaletarra ere Txinan bizi da, Zhuhai hirian -Wuhandik 1.100 kilometro ingurura-. Bera ere oporretan dago, Malaysian, baina nabarmendu du txinatarren artean ardura eta elkartasun handia ikusten dela. Izan ere, "oso batuta dagoen herria da".

Egoera epe laburrean konponetzen ez bada, ekonomiak "arazoak" izateko arriskua daukela uste du Lopez de Armentiak, Hubei 50 milioi biztanletik gorako probintzia dela kontutan hartuta.

EHUN HILDAKOTIK GORA ETA MILAKA KUTSATU UTZI DITU JADA WUHANGO KORONABIRUSAK

Mondragon korporazioak, berriaz, hainbat lantegi ditu Txinan, gehienak Jiantzu probintzian, Kunshan hirian -Wuhandik 800 bat kilometrora-. Korporazioko komunikazio zuzendari Javier Marcosek azaldu duenez, otsailaren lehen astekoak zen berriro aktibitate ekonomikoak, baina Gobernuak astebete atzeratu du hasiera eguna. "Aktibitate ekonomikoak ez da normaltasunez garatuko, eta horrek eragina izango du, produktuetan eta horniduretan aldatzeak egongo dira, eta logistika aldetik ere izango du eraginik".

Barberenak eskola batean egiten du lan eta han ere otsailaren 10etik 17ra arte luzatu dituzte oporrak, badaezpada. "Hara joateko hegazkina otsailaren 4an daukat, baina zain nago, ea nire eskolak zer erabakitzen duen".

10 milioi hektarea, erreta

Kalte handiak eragiten ari den beste hondamendi bat Australiako suteena da. "28 pertsona hil dira, 10 milioi hektarea erre, 1.000 etxe suntsituta geratu eta ia 500.000 animalia basati hil. Espezie batzuk desagertzeko arriskuan daude, gainera, haien habitat naturala suntsituta geratu delako. Ekosistemaren erdia larriki kaltetuta dago", azaldu du Rosa Zafrak, Gold Coast hirian bizi den bergararrak.

Aste honetako datuak aintzat hartuta, Hegoaldeko Gales Berria estatuan 57 su gelditzen dira

28 PERTSONA ETA IA 500.000 ANIMALIA HIL DIRA AUSTRALIAN SUTEEN ONDORIOZ AZKEN HILABETEETAN

itzali gabe, Sydneyn bizi den Itsaso Arrayago bergararrak azaldu duenez. "Azken egunotan, okerrean Canberran jasaten ari dira, aireportua ixtera iritsi arte. Aste honetan eguraldi bero eta lehorra espero da ekialde osoan eta sute arriskua larriarri gaudu", gaineratu du.

Urtero izan ohi dute sute denboraldi bat uda partean, *fire season* deritzona. "Arazoa izan da aurtengoa inoiz baino lehenago hasi dela eta lehorte oso kezkarri batekin kointziditu duela", dio Arrayagok. Zafrak ere bat egin du: "Sekula ez dira mantendu izan hain denbora luzez, eta hain era suntsitzailean. 21 urte daramatzat hemen, eta ez dut inoiz halakorik ikusi. Australiar askok zeukatzen guztia galdu dute suteen ondorioz".

Horrez gain, Gobernuak berandu erreakzioan duela uste du Iker Olalde, Adelaide hirian bizi den onatiarrak. "Suak hasi zirenean, Gobernuak garrantzia kendu zion. Gainera, Gobernuaren Zentralaren eta Estatu Gobernuaren artean ika-mikan jardun dute neurriak hartzeko orduan eta horrek guztiak laguntza berandutu du". Ahal duten neurrian laguntzen saiatzen direla dio. "Gure lagunak eta lankideak etxeak erre dira, suak nahiko gertu izan ditugu eta arnastutako kea aldika oso kaltegarria izan da osasunarendako. Mobilizazio handiak sortu dira, kaltetuei laguntzeko".

Aurrera begira, konponbide bila

Klima aldaketaren inguruan jendea kontzientziazten dabilela uste du Olalde. "Australiako urteko batez besteko tenperaturak bi gradu egin du gora azken mendean, eta aurtun, pasa den urtean egin zuen euri kopurua erdia egin du. Zer pentsatu ematen du honek".

Beraz, aurtengo egoera behin eta berriz errepikatuko da datorren urteetan, Arrayagoren ustez, eta epe luzerako erabakiak hartzea "ezinbestekoa" dela dio. "Inguruan daukagun jendea oso kezkatua dago, badakielako egoera behin eta berriz jasan beharko duela. Horregatik, epe luzerako estrategiak eskatzen dituzte. Herritar batzuen eskara da hemengo herrialde aborigenek erabili dituzten teknikak ikertu eta aplikatzea, haiek belaunaldi belaunaldi suteekin bizi izan baitira".

HANDIK ETA HEMENDIK

Greba**MIKEL ITURRIA**

HTTPS://LABUR.EUS/JMLII

'EIBAR.ORG'-N ARGITARATUA

Greba orokorraren deialdia urtarrilaren 30ean Euskal Herrian.

Aspalditik aurreikusitako bidaia bat medio, kanpoan harrapatuko nau.

Urrutitik ari nintzen jarraitzen grebarena, deitzaileek (Euskal Herriko eskubide sozialen kartaren aldeko hainbat kolektiboren izenean ELA eta LABeko idazkari nagusiek) eginiko bilera eskaerari Urkulluk uko egin ziola irakurri nuen arte.

Euskaraz eta gaztelaniaz bidalitako gutunari, gaztelaniaz erantzuna Urkulluk. Hori behintzat ikusi nuen nik lehendakariaren Twitter profilean asteburuan. Nafarroako presidentek, aldiz, Chivite andereak, baiezkoa erantzun, nahiz gero greba eguna ondoren atzeratu bilera.

Garbi dago biek indar politiko diferentek dituztela atzean eta horrek eragina duela bakoitzaren jarrean.

Urkulluren gutuna irakurrita, esango nuke alde aurretik hartu zuela erabakia eta gero zehaztu egin dituela arrazoia.

Deialdia baino sei egun lehenago, berriz, Urkullu eta EAeko hiru ahaldun nagusiak Donostian Adegik martxan jarri nahi duen Kultura Berriaren Fabrika izeneko eraikinaren lehen harria jartzeko ekitaldian egon ziren. Kontzeptu berriak eta etereoak irakurri ditut. Utz iezadazue eszeptiko izaten. Ez dut proiektua ezagutzen eta hori bakarrik esango dut gaur.

Beraz, Urkullu popa galduz doa enpresariaren atzetik, baina prest du bere erantzunik burokratikoena sindikatuen aurrean.

Ez da greba orokorra izango, zioen Hordago-El Salto urtarrileko editorialak.

Eta hainbat argudio bota bertan tesi hori defendatzeko. Hala eta guztiz ere, beste aukera okerragoa dela adieraziz, deialdia babestu behar zela amaitu.

Greba orokorrak ez dira garai batekoak eta, pena bada ere, asanbladak ez dira jada soberanoak toki askotan. Hots, langile bakoitzari dagokio gero greba egitea edo ez egitea.

Emakumezko futbol jokalarien greban hori aurpegiratu nahi izan nion greba egin ez zuen jokalaria bakarrari, geure taldekoa gainera. Baina isildu egin nintzen. Hau da, aldagela (asanblada) zela bere postura agertzeko tokia.

Baina gure enpresan ere bakoitzak nahi duena egingo du eta hori ere bada gure puntu ahulenetako bat.

Feministak eta pentsiodunak ari dira ahalduntzen eta besteok ere egin beharko dugu zerbait.

Gako nagusia baita boteredunak antolatuta daudela eta guri kosta egiten zaigula gutxieneko puntu batzuetara iristea.

Amaitzeko, nire soldataren egun bat Gipuzkoako zahar-etxeen gatazkan greban dauden langileei emango diet.

Post gehiago 8. orrialdean.

Salaketa-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA





ZABALIK

RESU ABASOLO GALLASTEGI

'Pin parental'-a

Luzaroan ez dugu albiste nabarmenik entzun Hezkuntzari buruz. Ez dira dauden arazoak aipatu ez eta iritzirik eman, eta bat-batean zerbaitek eztanda egin du: *pin parental*-a izan da honen arrazoia –eskola ordutegi barruan jarduera osagarri batzuetan gurasoek erabakitzea beren seme-alabek jarduera horietan parte hartuko duten ala ez–, eta hara zelako zalaparta sortu dugun!

Benetan arazo bat da gurasoak eskolan sartzea eta iritzia ematea? Hori ez da berria!

Izan ere, 1990a ezkeren datozen lege guztiek –LOGSEK eta Euskal Eskola Publikoaren Legeak, besteak beste– indarrez azpimarratu dute zeintzuk diren gurasoen eskubideak eta betebeharrak, eta, zentzu horretan, eskolak sortzen dituen dokumentuak ikastetxearen norabidea jasotzen duen Hezkuntza Proiektua eta ikasturtean egingo den guztia jasotzen duen Urteko Plana onartzeko gurasoen botoak ezinbestekoak dira.

Beraz, ze eskubide berri ematen die *pin parental* horrek gurasoei?

Eman beharrean, ez al die kenduko?

Gurasoen partaidetza ez al da mugatuko ekintza osagarrietan

PENAGARRIAGOA DA ERANTZUKIZUNA DUTENAK ERE HALAKOETAN ERORTZEA

soilik planteatzen diren gaietara? Penagarria!

Eta penagarriagoa da erantzukizuna dutenak ere halakoetan erortzea.

Noiztik hona kikiltzen dira irakasleak gurasoen iritzia entzutean? Nork jartzen du zalantzan gurasoek seme-alaben heziketari buruz iritzia eman behar dutela? Eskandalu honek baztertu egingo ditu gure hezkuntzak dituen behar urgente eta latzak.

Behar hauen artean daukagu, adibidez, etorkinen eskolatzean ekitatea ez zaintzea eta, ondorioz, legea bera ez betetzeari bidea zabaltzea. Gainontzeko arazoek hemen dute iturburua.

Hezkuntzan eztabaida ezin da isiltzen jarraitu, ikasle aske eta arduratsuak garatzeko errealitate guztiak ezagutzea eskaini behar duelako eskolak, konpentsazio lana ere badagokiolako, eta Hezkuntza Sistemari bitartekoak jartzea.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Lagun ezkutua

ANE LABAKA

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Gabonak dira. Kuadrillako urteroko zita. Forma eta tamaina ezberdinetako opariak kokatu ditugu egurrezko mahaiaren gainean. Paketeek euren jabeak izango diren izenak daramatzate idatzita. Aurtengoan, mugikorrerako aplikazio baten bidez jakin dugu nor egokitu zaigun.

Lagunon izaera islatzen da erregalietan. Ez da zaila asmatzen nork hartu duen denbora berez opari txikia zena mila kaxa handiagoren barruan sartzeko edo nork ezarri dizkion bereari lazo

gorriak mimoz. Aitzitik, bistakoa da nor ibili den hitzordua baino bost minutu lehenago etxeko armairuetan oparia ekartzeko moduko poltsa txukun samar baten bila.

Bilgarriak kentzeko garaian ere antzeman daiteke nolakoak garen. Gutxi batzuk papera izkinetatik irekitzen ahalegindu dira tentu handiz, hurrengo batean berrerailetzeko moduan. Gainerakoek pazientzia handiegirik gabe egin dute lau zati.

Sorpresa. Badirudi ez garena uste bezain originalak izan. Opari errepikatua medio, azkenaldian gure belarrietarako bidea egin duen gailua gure klitorietara iristear dago orain.

Jostailuaren atzean aberasten ari den industria oso bat dagoela oroitu dut ezinbestean; mirarizat saltzen digutena bizi garen gizarte hiperazeleratuaren erakusle bat gehiago dela irakurri nuela ere bai. Ez omen daukagu behar adina asti orgasmora iristeko ere.

Une batez, baina, xurgatzaileak eskolan "sexu heziketa" deitzen zioten hartan tabu bihurtutakoak haizatu dituela iruditu zait. Dardara bat sumatu dut hankartean, eta zenbait hitzek ezkutu izateari utzi diote.

Post gehiago 7. orrialdean.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre.

Zuzendari nagusia

Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza,
Maite Igartua.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua:

SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Arebaleteko Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta
Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza
Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Lan-heriotza bakar bat ere gerta ez dadin lanean gabiltza"

ALBERTO ALONSO OSALAN-EKO ZUZENDARI NAGUSIA

Eneko Azkarate Laspiur ARRASATE 25 urte bete zituen Osalan Euskadiko Laneko Segurtasunaren eta Osasunaren Institutuak 2018an. Alberto Alonso oñatiarrak zuzentzen du erakundea 2016tik, agintaldi hasieratik. UGTtik heldu zen Osalanera.

lazko ezbehar kopuruaren eta gaixotasun profesionalen berri eman duzue oraingo astean. Euskal Autonomia Erkidegoan 30 langile hil ziren lan-istripuetan. Asko dira?

Heriotza bat nahikoa da esateko asko dela. Bizi garen gizarte aurreratu honek ezin dezake onartu lanean heriotza bakar bat ere gertatzea. Egia da, edozelan ere, egoerak ez daukala zerikusirik 1990eko hamarkadarekin. Izan ere, garai hartan, urtero, 90 bat lagun hiltzen ziren lan-istripuen ondorioz. Hortaz, joera da geroago eta lan-istripu gutxiago egotekoa, eta hori datu positiboa da, baina 30 heriotza larregi da.



Alberto Alonso, Osalaneko zuzendari nagusia, bulegoan. PEDRO AGUDO

Bakarra gerta ez dadin lanean gabiltza.

Ze sektoretan gertatzen dira istripu gehienak?

Ez gara gisa horretako bereizkeriarik egitearen aldeko. Estereotipoak saiheste

aldera. Sektore guztiek dute beren berezitasuna, guztiek dituzte arriskuak eta gaixotasun profesional bereziak; guztietan eragin behar da lanean egoki jarduteko.

Erakunde publikoek, sindikatuek eta ugazaba edo arduradunok geroago eta kontzientzia handiagoa duzue gaiarekin?

Esango nuke baietz, datuek hori erakusten dute. Mila langileko ze intzidentzia izan den neurtzen dugu eta indize hori nabarmen beherantz doa. Horrek esan gura du denok egiten ari garen lanak eman duela bere fruitua. Denona da meritua. Hedabideek eta gizarteak oro har ere geroago eta kontzientzia handiagoa dute.

Zein da Osalanen rol zehatza?

Arazoa gizartean pixkanaka-pixkana errotzen joan dadin ari gara lanean. Ez da lan administratibo hutsa. Ez da isunak jartzea edo ikerketa eta txostenak egitea bakarrik, hori baino gehiago da egiten duguna. Inportantea da berriro gerta ez dadin zer egin behar den zehaztea, enpresak aholkatzea, etorkizuneko erronkei aurre egitea...

Ikerketa lan asko egiten ditugu etorkizuneko arazoak antzemateko. Beti goaz pauso bat aurretik.

Izan ere, lanbide berriak ere ari dira sortzen...

Uber, Calify, Globo... horrelakoak bertan daude eta horietan lanean ari diren langileak nola babestu ikertzea ere badagokigu.

HAU BE BADOGU!

Sarea aztoratu du Kobe Bryant-en heriotzak



Domeka gauean, 41 urte zituen NBAko jokalarari mitikoak, bere alabak eta haiekin zihoazen beste bost lagunek bizia galdu zuten Los Angelesen, helikoptero istripu batean:

@ideiazabaldu: "Kobe Bryantek bost aldiz irabazi zuen NBA, denak Los Angeles Lakers taldearekin. 2016an utzi zion jokatzeari. #Legend #RIPKobeBryant".

@rafamungi: "Kobe Bryant istripuz hil dela diote AEBetako komunikabide askotan. Ezin da egia izan!".

Greba, 'trending topic' izan da

Sare sozialetan #u30grebaorokorra traola trending topic izan da aste osoan zehar:

@antikapitalista: "Hamaika arrazoiz grebarako. 1.080 euro gutxieneko pentsioa. 1.200 euro gutxieneko soldata. Zapatero eta Rajoyren lan erreformak bertan behera uztea. Bizitza bere osotasunean erdigunean jarri...".

@jolindarrak: "Pentsio, lan eta bizi-baldintza duinen alde... Denok grebara!!".

Izaro musikaria hizpide izan da

Izaro Andres musikari eta abeslari mallabitarrak disko berria aurkeztuko du gaur, modu ofizialean, eta sare sozialetan gai aipatuenean artean egon da asteon:

@nineubeti: "Galdetu esan. Ez geratu zalantzan. Zenbat maite zaitudan. Dantzan, dantzan. Zena zen da senadan. Paris, Izaro, gabon!".

@podcastRadio: "Disko berria, hirugarren lana, kalean dago. Izaroren mundu berria limoiaren hori kolorekoa da".

ITURRI ONETIK

Banda zabal ultralasterra baserri guztietan

Gipuzkoako baserri guztietan 2023. urterako banda zabal ultralasterra izatea du helburu Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta hala jakinarazi die udaletako eta eskualdeetako landa garapen elkarteetako ordezkariak; horien artean, Bergara, Oñati, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzagako alkateei. Interneterako konexio ultralasterra -300 mega segundoko-, telebistaren definizio altua eta bideozaintza zerbitzua eskaini nahi da. Hartara, "Europar aitzindari" izateko Gipuzkoa.

ALBISTE IZAN ZEN

2007-01-27

Aita Madinaren omenezko plaka, jaiotetxean

Aita Madina musikari oñatiar unibertsalaren jaiotetxean, Zubillagako Txipitxalle baserrian, haren omenezko plaka jarri zuten, jaio zela 100 urte bete ziren egun berean. Mendeurrena ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatuta zizuten 2007. urte osoan Oñatin. Besteak beste, *Aita Gurea*-ren konpositorea 1972an hil zen Oñatin bertan, herriaren omenaldia jaso eta gutxira. Argentinan eta Ameriketako Estatu Batuetan bizi izan zen.





Idatziko proiektuaren arabera, itxura hau izango du Arrasate Herri Eskolako Musakolan edukiko duen eraikina. AHE

Esleitu dute Musakolako Herri Eskolaren proiektua

Transformadorearen oztopoa gaindituta, Musakolako Herri Eskola berria errealitate izatetik gertuago dago. Berriki esleitu dute eskolaren idatziko proiektua, eta bizpahiru urte barru 0-18 urte arteko hezkuntza eskaintza publikoa izango du auzoak

Xabi Gorostidi ARRASATE

Arrasate Herri Eskolako profesionalak eta bertako guraso elkarteko kideak "ilusioz" daude Musakolako Herri Eskola berriua gertuago dagoela ikusita. Eraikin berri bat izateaz, Lehen Hezkuntzako eskaintza publikoa eroango du auzora – gaur egun Erguinen dago soilik – eta horrek hainbat onura ekarriko dizkie: 0-18 urte bitarteko ibilbide osoko eskaintza auzotik irten gabe egitea eta Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleen arteko elkarlana eta gertutasuna.

Oraindik "bi edo hiru urte" beharko dira eraikina bukatuta egoteko, baina berriki beste urrats bat egin dute, eskola proiektuaren idatziko esleipena eginda. "Idatziko proiektu hau, barne elkarlanaren bitartez, Jaurlaritzak, Udalak eta Herri Eskolako lagunek findu dugu. Auzoan integratze aldera arkitektura ikuspegitik zaindua, modernoa, alboko parkearekin lotuta eta

auzoaren erdian kokatuta egongo da. Energetikoki oso efizientea izango da eta sarreran estalki handi bat izango du, patioa estalpean izateko. Fatxada eta barnealdeko materialak atseginak eta mantentze baxukoak izango dira. Era berean, Arrasate Herri Eskolako aspalditik aplikatzen duen metodologia gauzatzeko barne espazio egokiak bermatuko ditu: gimnasioa, psiko gela, jantokia, erabilera askotariko gela, liburutegia, informatika gela, bilera gela..." azaldu dute Eskolako eta Guraso Elkarteko ordezkariak.

Hurrengo urratsak

Idatziko proiektua esleitura, une honetan "administrazio tra-

HERRITARREN EKARPENAK JASO NAHI DITUZTE GENERO IKUSPEGIA PATIO BERRIAN TXERTATZEKO

mite fasean" daude, ingurumen inpaktua eta zenbait baimen kudeatzen. Ostean, obra lizitatzea eta hura gauzatzeko izango lirakete hurrengo urratsak".

Eskola komunitateko kideak elkarlanean ari dira patio berria definitzen, eta genero ikuspegia txertatuta egotea nahi dute. Horretarako, herritarren ekarpenak batu nahi dituzte: "Auzo osoari zabalik egongo den eraikina eta eskola nahi dugu. Irekia zentzu guztietan, eraikina bera ez ezik, aniztasuna aberastasun bezala ulertzen duen eskola garelako".

Duela hamar urte pasa hasi zuten gurasoek Musakolan 0-18 urte bitarteko hezkuntza eskaintza edukitzeko ibilbidea. Orain arte Udalarri eta Jaurlaritzari alde aurretik egindako ahaleginak "eskertu" dizkiete, eta azken tramiteak ahalik eta azkarren egitea eskatu ere, "Arrasaterentzat hain beharrezkoa den eskola publikoa, euskalduna, anitza eta kalitatezkoa elkarlanean bermatzen jarraitzeko".



Arrasate pasealekuan kokatutako abiadura neurgailua. JOKIN BEREZIARTUA

Radarrak jarritako isunek %60 egin dute behera urtebetean

2018an, 1.447 isun jarri ziren; 2019an, ordea, 573. Isunak gutxitu izanak sistema defizitario izatea ekarri du

X.G. ARRASATE

Badirudi Arrasaten mugitzen diren gidariak barneratu dutela herri barruko abiadura mugak zeintzuk diren. Hori ondorioztatu daiteke, behintzat, radar sistematik 2019an utzitako datuak ikusita. %60 egin du behera radar bidez gehiegizko abiaduragatik jarritako isun kopuruak, 2018ko datuekin alderatuta. Guztira, 573 arau-hauste gertatu ziren 2019an; 2018ko zifra 1.447 isun izan zen. Arrasaten lau neurgailu daude herrigunean zehar: Garibai kalean, Uribarri etorbidean, Araba etorbidean eta Arrasate pasealekuan. Berriki bosgarrena izango da martxan: Osinako bidegurutzetik ospitalera bidean, hain justu.

Uribarri eta Araba etorbideetan izan dira arau-hauste gehien izan dituzten guneak. Hauek dira datuak, gunez gune: Uribarri, 226; Araba etorbidean, 230;

Garibain, bost; eta Arrasate pasealekuan, 82. 2019an zehar hamalau harrapaketa izan dira: horietako hiru Arimazubi aurrean, radarra dagoen lekuan. Horregatik, Gobernuak azpimarratu du egitasmoarekin jarraituko duela.

Gastu gehiago sarrerak baino

Isunen %60ko jaitsierarekin, radarraren egitasmoa defizitarioa izan da 2019an: 59.560 euroko sarrerak izan dira –isun bidez–, eta sistemaren gastuak –zinemometroaren alokairua, mantentzea...– 66.940,10 euro izan dira. Horrek 7.380 euroko defizita sortu du.

"Nahiz eta defizitarioa izan, bide-segurtasunean aurrerapauso nabarmena eman dugu. Herritarrengan kontzientzia handitzen doa, eta datuek berresten dute apustu egokia izan dela", azaldu du Udala Gobernuak.

Aldaketak datoz Arrasaten odola emateko hitzorduetan

Arizmendiarrrieta plazako unitate mugikorrek betiko hitzorduetarekin jarraituko du: hileko azken ostegunetan, 16:30etik 20:00etara. Anbulatorioko hitzorduetan dira hemendik aurrera aldatuko direnak. Orain arte, hileko lehen martitzenean egin izan dituzte, baina, aurrerantzean, puntualki abisatuko dute noiz egin ahalko diren.



Hiru lagun, odola emateko prest. GOIENA

Zuhaitz mozketei buruzko azalpenak eman dituzte

OZMA saileko buru Oscar Garciak agerraldia egin du, herritarren artean "sumatutako kezak" ikusita. "Mozten den zuhaitz bakoitzeko berri bat" landatzen dutela adierazi du; bananondoei dagokienez, bertako espezieak sartzen dihardutela azaldu du

Xabi Gorostidi ARRASATE

Azkenaldian herrian egin diren zuhaitz mozketen harira, azalpenak emateko beharra sumatu du Oscar Garciak, OZMA Saileko buruak (Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoak), herritarrek gaiarekin "kezkatuta" sumatu ostean: "Segurtasun edo osasun arrazoiengatik egiten dira herriko zuhaitz mozketak gehienak, eta, kasu guztietan, zuhaitz berri batekin ordezkatzen ditugu. Ez hori bakarrik: ahal bada, zeudena baino gehiago sartzen ditugu". 2018an, adibidez, 109 zuhaitz moztu zituzten eta 116 landatu -Zuhaitz Egunean landatutakoak kontatu gabe-. Segurtasunarekin



Moises Altuna eta Oscar Garcia, OZMA Saileko teknikaria eta burua. X.G.

lotutako adibide gisa, esan du zuhaitz asko etxebizitzetatik gertuegi daudela; sei metroko muga gainditzen badute, moztu egiten dituzte eta berri bat sartzen dute haren ordez. Beste kasu batzuetan -Gernika pasealekua, kasu-zuhaitz zaharren alboan landatutako zuhaitz berriei hazteko lekua uzteko moztzen dituzte.

Bananondoen arazoa

Herrigunean 5.000 zuhaitz inguru daudela kalkulatu dute; horien %60 kanpoko espezieak eta %40 bertakoak. Kanpotarren artean ugariak bananondoak dira, eta, Garciaren arabera, berezko arazo asko dituzte:

"Aspaldi era honetako zuhaitz ugari landatu ziren, batez ere, gerizpe handia ematen zutelako. Baina arazoak ematen dituzte. Urtero inausi egin behar dira. Kostu ekonomikoak izateaz gain, landarea ahultzen du urterik urte. Horrez gain, urtero izurriteak izaten dituzte, xomorrotatik eraginda: hauek gainean jausiz gero azkura eragiten dute eta zuhaitz azpiko guneak zikinduta geratzen dira, itsaskor moduan".

OHARRAK

San Isidro elkarte

Otsailaren 16an egingo dute batzar orokorra; lehen deialdia 11:45ean eta bigarrena 12:00etan.

Pentsiodunak

Astelehenean elkarretaratzea egingo dute, euren aldarrikapenekin jarraitzeko, Herriko Plazan, 12:00etan.

'Azken ostiralak'

Sarek deituta, hileko azken barikuetako elkarretaratzea egingo dute gaur, 19:30ean, Herriko Plazan, *Motxiladun umeak, gurasoekin hazteko eskubidearen alde* lelopean.

Federatuen aseguru

Besaide Mendizale Elkarteak gutuna igorri die bazkide eta federatu direnei, Euskal Mendizale Federazioaren federazio-lizentziaren istripu-polizarekin lotuta. Aseguru konpainia aldatu egin dute, eta horrekin lotutako argibideak eman dituzte.



**MATRIKULA EPEA ZABALIK:
URTARRILAREN 27TIK
OTSAILAREN 7RA.**






ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Arizmendi Ikastolak kudeatutako Udal Zerbitzua

ARRASATEKO UDAL HAUR ESKOLA

URIBARRI

0-3 URTE

Uribarri etorbidea z/g.a

UMEZAINNTZA

0-3 URTE

San Andres, 8

Instalazioak ikusi edo elkarrizketa egin nahi izanez gero, aurrez telefonoz abisatu.

➔

943 77 20 25

www.arizmendi.eus

Lan mundurako prestatu, bizitzan aurrera egiteko

Esklusio egoeran daudenei eta lana aurkitzeko zailtasunak dituztenei laguntzeko, Udal Gobernuak programa bat abiarazi zuen 2019ko martxoan. 'Lan-r-Bai' du izena, eta hezitzaile batzuen laguntzarekin eraikuntzarekin lotutako ofizioak lantzen dituzte

Xabi Gorostidi ARRASATE

Bazterkeria egoeran zeuden arrasatearrei aukerak emate aldera, programa berritzaile bat abiarazi zuen Gobernuak iaz. Egoera horretan zeuden hamabost lagun aukeratu zituzten Udaleko Gizarte Zerbitzuek, eta Udalaren jabetzakoa den etxe batean urtebeteko formakuntza ematen hasi ziren, ostean, euren kabuz, lan mundura salto egiteko, edo formatzen jarraitzeko. Hala, 2019ko martxoan jarri zuten programa martxan, Hondarribia kaleko 3. atarian dagoen etxean.

Parte hartzaileen profila askotarikoa da, 19 eta ia 50 urte artekoa: Foru Aldundiko familia eta egoitza harrerako baliabideetatik atera diren 18-23 urteko gazteak, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak, ezgaitasuna baloratua duten pertsonak edo balorazio-prozesuan daudenak eta egoera legalki erregulatu gabe duten etorkinak, besteak beste. Proiektuak hamar hilabete egin dituen unea baliatu dute horren berri emateko, eta zera adierazi du Gizarte Ongizate zinegotzi Maitane Muñozek programaren helburuei dagokienez: "Gizarte eta hezkuntza laguntzaren bidez, prestakuntza normalizatura edo lanmerkatura, babestura edo nor-



Bi hezitzaileak, irakaslea eta Gizarte Ongizate zinegotzia, eraikina atzean dutela. X.G.

malizatura iristeko behar diren tresnak, baliabideak eta trebetasunak eskuratzea dugu jomuga; finean, egoera honetan dauden arrasatearrak gizartera eta lan mundura integratzea".

Bi hezitzaile eta irakasle bat

Parte hartzaileek eraikuntzarekin lotutako ofizioak jorratzen dituzte –arrotzeria, igeltserotza, lorezaintza...– gai horietan aditua den irakasle batekin eta euren egoera pertsonala gertutik ezaugarritzen duten bi gizarte-hezitzaileekin. 09:00etatik 14:00ak arte

aritzen dira bertan, eta egiten duten lanagatik beka bat jasotzen dute, eguneko 10 eurokoa, gutxi gorabehera. Urtebeteko formakuntza amaitzean parte hartzaileek zein irtenbide izan ditzaketen galdetuta, zera azaldu du Javi Jimenez hezitzaileak: "Bakoitzaren egoera kontuan izanda, plan pertsonalizatuak egingo dizkiegu: prestakuntza-arautura, insertzio planak dituzten enpresetara edo enplegu babestua duten enpresetara. Harremanak ditugu bai insertzio enpresekin, baita enpresa arruntekin ere".



Bertan ikasi, eta bertan aplikatu

Irudian ikusten da eraikinaren atzeko aldean egin duten ortua. Lehen "oihan basati" bat zena ortu bihurtu dute, eta, horrez gain, ikasitako arrotzeria jakintzak aplikatuz, ortuko pareta egurrezko xaflekin apaindu dute.

Askotariko lanak

Eraikina "oso egoera prekarioan" zegoen, eta hura atontzen joan dira, pixkanaka. "Etxearen atzeko aldea oihan basati moduko bat zen, eta euren lanari esker ortu eder bat sortu dugu hemen", azaldu du Javi Jimenez gizarte-hezitzaileak. Etxearen kanpoko aldean zegoen lokal bat ere atondu dute, arrotzeria lanak eginez eta kanalizazioak eginez. Terra-za estiloko gune bat ere jarri dute, baita eurek egindako berotegi bat ere. Horrez gain, eraikina barrutik birgaitzeko lanak egiten dabilta. Hondakinak atera dituzte, eta orain, Hirigintza Saileko teknikariek egingo duten txostenaren arabera birgaituko dute.


Parte hartzaileak, "gustura"

Esperientzia nolakoa izaten ari den ere kontatu dute protago-

nistek. "Denetarik egiten dugu, eta gauza asko ikasi ditugu. Behin amaituta, formatzen jarraitu nahi dut, gaur-gaurkoz ez baitut lan egiteko baimenik", azaldu du Jhonier izeneko kolonbiar gazteak. "Eraikina oso kaltetuta zegoen, eta nahikoa txukundu dugu. Aurrerantz goaz, eta hezitzaileek asko laguntzen digute", azaldu du 42 urteko Asier arrasatearrak.

Parte hartzaileak, "gustura"

Martxoan amaituko da *Lan-r-Bai* ekimenaren lehen urtea, eta bertako hamabost parte-hartzaileei beste hamabostek hartuko diete lekukoa. Programaren aurrekontu osoa 393.441 eurokoa da, 196.721 urteko; Udalaren ekarpen ekonomikoaz gain, Europako Gizarte Funtsak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ere babesten dute.



NIRE USTEZ

ANE ZUAZUBISKAR

Uste

Hiru aldiz kantatu zidaten gauza bera oso denbora gutxian. Bertso-eskolan lehena. Atzekoen barruko arropari kantatzeko eskatu zioten gutako bati. Nik neurri laburrean sartuko nukeen esaldi bera sartu zuen aurrekoak; goitik behera beltzez jantzita nengoela, betiko moduan, eta kolore bera izango nuela azpikoetan ere. Egia zen, eta erantzun erraza zeukan.

Bertso-eskolan bigarrena ere. Atzean gintuen bostak animalia banarekin alderatzeko eskatu zioten aurrean genuenari. Goitik behera beltzez jantzita, orduan ere. Pantera beltza hark, eta nik piztiak, eta kontuz, eta eseri berriro ere. Plazan izan zen hirugarrena. Ariketa: margolari baten ahotik kantatzea, eta atzeko bakoitzari nolako erretratua egingo

zeniokeen azaltzea. Erantzuna prest nuen hura kantuan hasi zitzaidanarako. Eta hark ez zituen aipatu, ez nire zapata beltzak, ez nire galtza beltzak ere. Baina nik bai. Gero egin nion haginka mingainari, eta eskertu nion bertsokideari. Kontuz zutaz uste dutenaz uste duzunarekin. Azkenerako sinetsi egin dezakezu. Ez naiz arropaz ari.

Ludoteka ibiltariak bueltan dira: lehen geltokia, Musakola

Musakolan eta San Andresen ludotekarik ez dagoenez, bueltan da berriz Txatxilipurdiren *Ludoteka ibiltaria* ekimena. Bihar hasita, hiru zapatzu jarraian arituko dira Musakolan, bertako haurrei euskarazko aisialdi aukerak emateko. San Andresen lau zapatutan arituko dira: martxoaren 7an, 14an eta 28an eta apirilaren 4an, hain zuzen.

Arrasate
Herri Eskola



MATRIKULAZIOA ZABALIK

URTARRILAREN 27TIK OTSAILAREN 7RA

Eguneroko zaintza eta zaintza zerbitzu integrala Irailean, Uztailean eta gorriz ez diren eskolako opor egun guztietan

"Guztion eskola, Guztion artean"



Arrasate
Herri Eskola





Jon Ormaetxea, Malen Ruiz de Azua eta Istar Dapena, 75. urteurreneko kartelarekin. GOIENA

Atletismo taldearen 75 urteak, irudietan jasota

Arrasateko Atletiko Taldeak 75 urte bete zituen aurreko urtean, eta, hori ospatzeko, egitarau zabala antolatu zuten. Ekintzak maiatzean hasi ziren, eta, 75. urteurrenaren ospakizunak amaitzeko, argazki erakusketa zabalduko dute gaur Kulturaten

Amaia Aranegi ARRASATE

Arrasateko Atletiko Taldearen 75. urteurrena ospatzeko egingo den azken ekintza argazki erakusketa izango da. Gaur zabalduko ditu ateak, Kulturaten, eta otsailaren 16ra arte egongo da zabalik. Erakusketa honek 75 urte hauetako Arrasateko atleten argazkiak bilduko ditu eta herritarrei atletismoak izan duen bilakaera erakustea du helburu.

2.000 argazki inguru bildu zituzten, eta aukeraketa egin behar izan dute. Erakusketan, hainbat panel handi egongo dira: 1969. urte aurreko atleten argazkiak, 1969 eta 1987. urte bitartekoenak, 1987. urtearen ondoren taldetik pasatu diren atleten argazkiak eta Arrasateko atleta nabarmenen argazkiak. Azken hauek nazioarte mailan ezagunak direnak eta Espainiako txapelketetan parte hartu dutenak dira, besteak beste.

Erakusketa gaur zabalduko dute, eta Arrasateko atletak di-

renak eta izan direnak ezagutzera eramango direla dio Arrasateko Atletiko Taldeko presidente Jon Ormaetxeak: "Erakusketa honek Arrasaten atletismoak izan duen bilakaera erakusten du eta taldearen 75 urteak laburbiltzen ditu".

Erakusketa astelehenetik larunbatera egongo da zabalik, 17:30etik 20:30era, Kulturateko klaustroetan.

Taldearen 75. urteurrena

Urteurrenaren ospakizunak maiatzean hasi ziren, Fernando Zufiria omenduta. "Txufi-k 50 urte egin ditu Arrasateko atletismoa sustatzen, eta ez dut uste Gipuzkoa osoan halako beste pertsonarik egongo denik. Es-

**"ARRASATEN
ATLETISMOAREN
BALIOAK ZABALTZEN
JARRAITZEA DA GURE
ASMOA"**

kerrak eman behar dizkiogu urte hauetan guztietan egindako lanagatik", dio Ormaetxeak.

Bigarren ekintza irailaren 7an egin zuten. Izan ere, atletismoa kalera atera, eta Biteri plazan atletismo erakusketa egin zuten: "Ekitaldi horrekin erakutsi gura genuen atletismoa ez dela soilik korrika egitea, beste modalitate batzuk ere badaude eta".

Abenduan, urtero moduan, Santamas Krosa antolatu zuten, eta herrian indarra hartu duen ekintza da hau: "Lagun giroan korrika apur bat egiteko asmoz antolatzen dugu hitzordu hori, dena ez dugu-eta atletismo federatura begira bakarrik egiten".

Egitarauaren azken ekintza gaur zabalduko den erakusketa izango da, eta, honela, urteurrenerako antolatutako ekintzak bukatuko dira. Hala ere, hasierako ilusio berarekin lanean jarraitzeko asmoa dutela dio taldeko presidente Jon Ormaetxeak.

Santa Ageda korua, kantuan egiteaz gain, dirua lortzeko asmoz

Aurten ere, otsailaren 4an, Arrasateko Santa Ageda koruak kantuan ibiliko dira herriko auzo eta baserrietan zehar. Ohitura zaharrari eutsi eta herria giroteaz gain, ekimen honen helburua dirua biltzea da, behartsuen artean banatzeko. 2019. urtean, 7.600 euro bildu ziren, eta Parrokiarteko Caritasen bidez banatu ziren;

haur behartsuen jangelak 1.800 euro, etxe alokairuak 3.700 euro, ortopedia beharrak 2.500 euro eta emergentzia bidaiak atzerriara 1.500 euro.

Aurten ere diru bilketa egingo dute eta emaitza onak lortzea espero dute. Ekarpena Caritasen bankuen kontuen bidez egin daiteke. Bide batez, hurrengo astelehenean, otsailaren 3an, 21:00etan, Elkartu elkartearen batuko dira Santa Ageda korueta-kantari, poltsero eta laguntzaileak.

Patagonia: dokumentala

Besaide Mendizale Elkarteak Patagoniako azken izotz esplorazioa erakusten duen *Incógnita Patagonia* dokumentala eskainiko du otsailaren 4an, 19:00etan, Kulturateko areto nagusian. 20 minutuko dokumentalaren emanaldiaren ondoren, Eñaut Izagirrek hitzaldia eskainiko du Patagoniako glaziarren egoerari buruz.



NATIONAL GEOGRAPHIC

Numen taldea gaztetxean

Zapatuan 22:00etan kontzertua eskainiko du Numen taldeak gaztetxean. Aritz -ahotsa-, Jabo -gitarra-, Xabi -gitarra-, Lander -baxua-, Eol -teklatura eta intziriak- eta Eihar -bateria jolea- dira kideak eta black metalaren eta folkaren nahasketa egiten dute. Arrasateko taldea zapatuan gaztetxean izango da; 5 euro ordaindu beharko da.



GOIENA

Kontzertua Irati tabernan

Iker Martinez abeslariak eta Zaldi Herrenak taldeak kontzertua eskainiko dute zapatuan, 13:00etan, Irati tabernan. Jimmi Irizar -bateria-, Bull Biain -baxua-, Joxeba Aranburu -gitarra- eta Iñigo Ugarte -gitarra- dira taldeko kideak.

Guztiak batera zapatuan izango dira oholta gainean eta sarrera doakoa izango da.



IKER MARTINEZ



goiena™

ADI!!

GOIENA TELEBISTA, KANAL ALDAKETA

Goiena telebista kanalez aldatuko da otsailaren 12an. Telebista antena bidez ikusten baduzu, zure komunitateko antenan egokitzapenak egin beharko dituzu. Jarri harremanetan zure antena-jartzailearekin. Informazio gehiago: **943 25 05 05**.



Familia bakarreko etxeetan berriro sintonizatu behar dira telebistak, kanalak ikusteko. **Jabeen erkidegoetan**, berriz, antena-jartzaile batek egin behar du lan hori. Dirulaguntzak eskatu ditzakezu: Televisiodigital.gob.es. Informazio gehiago **943 25 05 05**.

goiena™
KOMUNIKAZIO TALDEA

Arnasestuak ere baditu euskararen arnaseguneak

Eskolan gero eta erdara gehiago entzuten dutela-eta bertako irakasleek hainbat eragiletan diharduten pertsonekin partekatu dute euren kezka. Egoera onbideratzeko zenbait ideia mahaigaineratu dituzte, eta lanean jarraitzeko asmoa agertu dute

Julen Iriondo ARAMAIO

Aurreko astean Sastiñan egin-dako solasaldian era argigarrian azaldu zuen egoera Mari Carmen Garridok, Aramaion baino lehen eskolak, 20 urtez, Barakaldon emandakoak: "Hona etorri, eta niretzat magia zen: 'Euskaraz egiten dute ume denek'. Ametsik onenetan ere ez nuen pentsatuko halako gela bat edukiko nuenik. Lehen, denboraren %70 bideratzen nuen euskara bultzatzen, eta, edukietara, geratzen zena. Hona heldu, eta denak euskaldunak. Zoragarria. Eta ia guraso guztiekin egin nezakeen euskaraz, gainera". Baina Garridok zioen halako batean ohar-tu zela umeei baietz baina guraso askok elkarri ez diotela euskaraz egiten: "Hasi nintzen galdetzen gurasek zelan egiten zuten etxean, eta hamazazpi ikasletik lauren gurasek baino ez zuten euskaraz egiten".

Txirritolako Oihana Ameskuak zioen "kontzientzia galtze" bat sumatzen duela: "Normalizazioa ez gara iritsi, baina, batzuetan, badago halako berniz moduko bat, beharbada, zorionez, eskolatik jaso dugulako, badi-tugulako hedabideak euskaraz... Beraz, pentsa liteke botere harreman hori orekatu egin dela? Bada, ez, ez da horrela".



Ikasleak jolaslekuan. JULEN IRIONDO

UMEEK IMITAZIORA JOTZEN DUTELA ETA NAGUSIAGOEK EREDUGARRI IZAN BEHAR DUTELA DIOTE

Eragin orokorretatik ez dago salbu euskara, ezta Aramaion ere. Eta umeei etxean ikusten dutena ere beste gauza bat bada... "Gurasek euren artean egiten dutena inportanteagotzat jotzen dute beraiekin egiten dutena

baino. Beraz, zein da hizkuntzarik politena, erakargarriena, jaso behar dena? Gaztelera, gurasek egiten dutena eta, gainera, Disneyren telebista katean egiten dutena", zioen Garridok.

Honen aurrean, eredu garrantzia nabarmendu zuten Sastiñan, adibidez, Peru Abarrategik, gazte moduan, zioenez, jakin badakitelako ume askorentzat erreferente direla; edo areto futboleko taldeko kide moduan: "Guk eskatuta hainbeste jende badatorkigu ikustera, eredu izan behar du".



SAN MARTIN ESKOLA

'Ir a kurrin kurrin', ekialdera

Xia Tenzinen bidaia miresgarria liburua izan da ekimenaren hamabigarren ediziorako aitzakia. Parte-hartzaileek haren gainean jardun zuten solasean, ohi bezala, arropa edo osagarri bereizgarriren bat soinean zutela; Txinakoa edo Tibetekoa, kasu honetan. Eta tokiko jaki bat dastatzeko aukera izan zuten.

Liburutegiaren liburu gomendioak eskura daude berriz ere

Irakurketa bultzatzeko asmoz, Aramaioko liburutegiak atera du, berriz ere, adin tarte bakoitzerako proposatzen dituen liburu zerrenda, aldian-aldian egiten duen bezala.

0 eta 6 urte artekoentzat, adibidez, *Bidean zehar* eta *Egun on' esan behar da* liburuak gomendatzen ditu. Aurrenekoan, animaliak dira protagonista, eta

adeitasunari buruzkoa da bigarrena.

Gazteentzat ere, bi proposamen: *Super patata* komikia eta *Bizitza motor gainean*. Lehenak dihardu Lurrera datorren ontzi estralurtar baten gainean, eta bigarrenak kontatzen du ikasketak albora utzi eta familiaren etxetik amonarenera doan gazte baten istorioa.

Helduentzat, azkenik, *La novia gitana* eleberri beltza eta *Karmele* Jaioren *Aitaren etxea* gomendatzen ditu gidak.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Oinezkoei lehenetasuna

Irakurle batek bidali du mezua "poza" adieraziz, ibilgailuen aurrean oinezkoak lehenesteko lurrean margotutako seinaleengatik. "Segurtasunerako inportantea da", dio.



'Bainak' jartzeko saioa

Txema Abarrategi moderatzaileak hitz-joko aproposa erabili zuen solasaldiaren sarrerakoan gaia testuinguruan jartzeko: "Orain dela gutxi, ekitalditxo bat egin genuen arnasa garelako aldarrikatuz; gehiena ospakizuna izan zen, baina gaur gatzat bainak jartzera. Arnasa gara, baina, batzuetan, arnasestutik ere badugu, agian".



Aurreko astean egindako saioaren une bat. J.I.



Aramaioko bi taldeetako kideak, elkarrekin, aurreko barikuko saioan. ANE ZUAZUBISKAR

Kuadrilla Artekoan lehen puntua, Kondebasa

Aramaioko bertsolarien arteko lehiarekin hasi zen aurtengo Arabako taldekako txapelketa: Konde Basoko Iluek nagusitu egin zitzaizkien Izenbakuei. Beste bi saio ere izango ditu Kuadrilla Artekoak herrian; horietako bat, finalerdia, martxoaren 7an

J.I. ARAMAIO

Xabi Igoa, Paula Amilburu, Aitor Ugarte eta Martin Abarrategi bertsolariek osatutako Konde Basoko Iluek taldea Manex Agirrek, Danel Herrartek eta Peru Abarrategik –Andere Arriolabengoa falta zen– osatutako Izenbakuek baino gehiago izan zen Arabako Bertsoko Kuadrilla Artekoaren estreinakoan, Marixekako elkartean.

Bertsu eskolaren bueltako lagun asko elkartu ziren, 40 inguru, eta "oso giro ona" izan zutela adierazi zuten bertsolariek eurek. Lierni Altunak gaiak jarrita, askotariko ariketak egin behar izan zituzten. "Helburua taldekide guztiok kantuan egitea da", zioen Xabi Igoak.

E ligako parte dira Aramaioko bi taldeak, Gasteizko Bazaar Xanmapelezuinekin batera. Horien aurkakoa falta zaie orain aramaiotarrei: Konde Basoko Iluek Errekaleorren jardungo dute otsailaren 8an; hilaren 15ean, berriz, Izarra elkartean

hartuko dituzte Izenbakuek. Bertsu bazkaria izango da, eta txartelak aste horretako eguaztena bitarte gorde ahalko dira –615 73 92 55 zenbakian–, 15 euroren truke.

280 lagun denera

Arabako Bertsu Kuadrilla Arteko txapelketa da, batetik, eta Arabako kuadrilletako dozena bat lagun inguruko taldeak ari dira parte hartzen; hiru-sei bertsolari artean, eta gai-jartzaileak, epailea, argazkilaria, sukaldaria... talde bakoitzean: "Taldeka parte hartzeak bertsogintza –bertsolari berriak, epaile eta gai-jartzaileak– eta inguruko bertsolaritza mugimendua –bertsozaleak– astintzen ditu. Parte

BERTSO ESKOLAK INDARTZEA ETA ZALETASUNA SUSTATZEA DA HELBURUA

hartzea errazten du, bertsu eskolak indartzen ditu, bertsuzaletasuna sustatzen du, baina parte-hartzetik", azaldu zuten aurkezpenean.

Hamabi talde dira dena aurtengo txapelketan; lau multzotan banatu dituzte, eta bakoitzak beste biek kantatuta, multzo bakoitzeko talde onenak eta puntuen arabera beste bik egingo dute aurrera. Hamabi saio izango dira ligaxkan, hiru finalurreko gero eta finalurreko bakoitzeko bi taldeetako onenarekin hiruko finala martxoaren 28an, Murgian. Aurretik, finalurrekoetako bat Aramaion izango da, martxoaren 7an.

Txapelketaz gain, idatzizko modalitatea ere badu Kuadrilla Artekoak. Bertan, edozein kolektibok har dezake parte; bertsuak aurrez prestatu eta saioetan jende aurrean abestuko dituzte gero, jendearekin ere bai, kasu batzuetan. Hamazazpi talde aurrekusi dituzte modalitate honetan.

600 euro bonuetan banatuko ditu 'Go!rbeia' ginkanak

Otsailan eta martxoan Internet bidezko lau proba egin beharko dituzte parte hartzen duten DBHko ikasleek

J.I. ARAMAIO

Gorbeialdeko gazteentzako lehiaketan bakarka edo taldean –lau lagun, gehienez– hartu daitezke parte. Proba erraz eta dibertigarriak argitaratuko dituzte astero Instagramen, eta lehiaketaren helburuak dira: euskararen erabilera ludikoa sustatzea; sare sozialetan eta Interneten euskara erabiltzeko aukerak ezagutaraztea eta Gorbeialdeko kultura eta ahozko hizkuntza ondarea gizarteratzea; eta gazteengan euskarazko kultura edukien erreferentzia indartzea.

Lehiaketan izena emateko hainbat bide daude: go.ginkana@gmail.com, 663 08 37 36 eta [gorbeia](https://www.instagram.com/gorbeia) –Instagram–. Otsailaren 14ra arteko epea dago; hilaren 17an hasi eta lau astez argitaratuko dituzte probak.

Sariei dagokionez, 600 euroko baliadun bonuak izango dira: 300 eurokoa izango da lehen saria, eta 200ekoa bigarrena; horrekin batera, 100 euroko sari berezi bat zozketatuko dute parte-hartzaile guztien artean. Martxoaren 23an argitaratuko dute irabazlearen izena.

Santa-eske herrikoia egingo dute bihar, plazatik abiatuta

Bihar, zapatua, egingo dute Aramaion santa-eske herrikoia. Bertsu Eskola, Papargorri abesbatza, Bizente Goikoetxea abesbatza eta Triki Kalejira taldea dira ekimenaren antolatzaileak. 10:00etan plazatik abiatu eta zenbait auzotan ibiliko dira kantuan, eta parte-hartzaileak Iturrieta sagardotegian batuko dira, 14:00etan, bazkaltzeko.



Santa-eskean, Aramaion. GOIENA



NIRE USTEZ

LEIRE ELEJALDE

Drama

Ez dut sinesten eta eszeptiko jartzen naiz. Badirudi erreakzio komunena dela horrelako zerbaiten aurrean esperotako poztasuna inondik ere ez topatzea. Izan ere, nire biziko bidaia egingo dudala esan didate duela gutxi, eta oraingoan benetakoa da. Txikitako ametsak bete ahal izateak dakarren drama hori ahaztuta neukan jada, baina nire zentzumenek jarduna bikoiztu dutenetik heldu zaidan sentsazioz beteriko haizekadak gogorarazi dit. Horrek, eta hileroko marabilosoak. Hala ere, larritasuna da sentitzen dudana, geldiarazi nau. Hori baita gertatzen omen zaiguna. Gelditzen gara bat-batean, zerbait gertatuko delakoan. Guztia osoki edota partzialki hondatu, kaltetu edo zailduko duen zerbaiten esperoan. Oztupoak bilatzen ditugu, beharrezkoak direlakoan; "ezin da guztia hain ondo joan". Izandako zortea handiegia dela eta ez dugula merezi. Edo bai, baina ez dela normalena. Gauzak ahazten zaizkigula eta konfunditzen garela gizakiak garelako. Gero konpontzen ditugula, baina ez beti, arrazoi berberetatik.

Esleituta Santa Kurtzeko bidegorriaren lanak

Probisa Vias y Obras enpresak egingo ditu lanak eta ekainean hasiko dituzte, udako oporraldia aprobetxatzeko; 278 metroko tartea egokituko dute eta hamaika aste aurrekusi dituzte horretarako; ondo bidean, irailerako bukatuta izango dira

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Santa Kurtz kaleko bidegorriaren lanak zeinek egingo dituen erabaki du Udalak: Probisa Vias y Obras enpresa bizkaitarrari esleitu dizkio. 213.700 euroko kostua izango dute, eta ekainean hasiko dituzte, Xabi Otxoa Hirigintza zinegotziak azaldu duenez: "Eskola jardueran eragin ditzaketen eragozpenak gutxitzeko helburuarekin egingo ditugu udako oporraldian". Hamaika astean bukatuta izatea lanok gurako lukete, abuztu bukaerarako, hain zuzen ere, eta, hala, irailerako erabilgarri egongo litzateke.



Santa Kurtz kaleko espaloia. MIRARI ALTUBE

Garajeetatik saihesbidera

Aretxabaleta barrutik pasatzen den bidegorriaren tarte horrek 278 metro inguru ditu; trenbide zaharreko plataformatik – Kurtzbarri eskolaren iparraldea– Basabe industrialde ingururaino doa –Eroski aurrealdea–. Gune horretan bizikletendako zehaztuta dagoen erreiarekin bat egingo du.

Lan horiek aprobetxatu gura ditu Udalak, Kurtzbarri eskolaren aurrealdean oinezkoen eta txirrindularien segurtasuna hobetzeko. Eta, horretarako, gaur egungo zirkulazio-erreak estutu egingo dituzte, eta sigi-

sagan jarri, ibilgailuen abiadura murrizteko.

Ez da izango aldaketa bakarra. Lan horien ostean, Santa Kurtzetik sarbidea duten etxebizitzaren garajeetatik datorren zirkulazioa –21. eta 27. zenbakien artekoak– kendu egingo da kaletik, saihesbiderantz zuzenean irteteko modua eskainiko dietelako autoei: "Neurri horrek are gehiago murriztuko du une honetan eskolaren aurretik derrigorrean pasatu behar duen ibilgailu kopuruaren zati bat", adierazi du udal ordezkariak.

Kurtzbarriko jolastokitik atera Bidegorriaren zati bat gaur egun Kurtzbarri eskolako jolastoki erditik pasatzen da. Eta lanen beste helburuetako bat da oinezkoen eta bizikleten erreiarekin trazatua hortik ateratzea.

Lanok bukatutakoan Arrasatetik Eskoriatzaraino herri barrutik doan bidegorriaren ibilbidea osatuta geratuko dela adierazi du Otxoak: "Obra horiekin Udalak beste pauso bat emango du mugikortasun jasangarriaren alde, beste jarduerak batzuen ildotik jarraituz".

Hiri Antolamendurako Plan Orokorra garatzeko lehen pausoa

Arkitekto bat kontratatuko du Udalak, plan hori idatzi eta onarpena lortzeko beharrezko jarduerak egin ditzan

M.A. ARETXABALETAKO

Agintaldi honetan Hiri Antolamendurako Plan Orokorra garatzea da Udalaren asmoa. Plan horrek zehaztuko du, hain zuzen, herriko hainbat gune etorkizunean izango duten erabilera –bizitegi-erabilerak, ekipamenduak, zerbitzuak...–, baita non eraiki ahal izango den eta non ez eta jarduera ekonomikoak zeintzuk izango diren ere. Hori egindakoan, Aretxabaletaren garapena eta hirigintza antolamendua zein izango den zehaztuta geratuko da.

Dagoeneko enpresa bat hartu du Udalak lehenengo lanak egingo hasteko, baina asmoa da arkitekto bat kontratatzea. Haren egitekoak izango dira, besteak beste, plana (HAPO) idaztea eta hori onartzeko beharrezko diren jarduerari jarraipena egitea.

Eskaerak udaletxean aurkeztu behar dira; azken eguna otsailaren 2a da, 15:00ak baino lehen. Ezinbestekoa izango da Arkitektura gradua edo lizentziatura edukitzea eta kontuan hartuko dituzte euskararen ezagutza, esperientzia eta formakuntza.

Agortze Aratuste-domekako bazkarietarako txartelak

Txapel Txin egunean egingo duten paella-janerako oraindik badaude txartelak Kixkor eta Urbaltz tabernetan

M.A. ARETXABALETAKO

Aratuste-domekako bazkarietarako arrakasta handia izan dute eta dagoeneko txartel gutxi batzuk geratzen dira. Ibarra kiroldegira joateko ia 520 zeuden salduta eguaztenerako; hortaz, 80 inguru geratzen dira oraindik eskuragai. Horretarako, Arkupera jo behar da; helduen menua 18 euro da eta umeena, 13 euro.


Karnabalen Lagunek Iturrigorri pilotalekuan egingo duten bazkarirako txartel salmenta, oster, eguaztenean itxi zuten; 400 inguru saldu dituzte.

Txapel Txin egunean, otsailaren 15ean, egingo duten paella-janerako txartelak oraindik badituzte Kixkor eta Urbaltz tabernetan, 10 eurotan; komentuan izango da hori.

Sei talde lokalean lanean

Mozorroak gertatzeko lokalean dagoeneko badihardute lanean herritarrek; sei taldek hartu dute hango giltza. Arkupera jo behar da giltza hori eskatzeko.

Eta Aratustean iragartzeko kartel lehiaketara aurkezteko epea astelehenean itxiko da.



Odontologia estetikoa	Ortodontzia
Endodontzia	PADI zerbitzua
Inplantologia	Hortz protesiak

Astelehenetik ostegunera: 08:30-20:00
Ostiralean: 08:30-16:00

Durana kalea 22 • Aretxabaleta • Tel.: 943 79 93 55
www.duranahortzklinika.eus



2001ean jaiotako hainbat gazte, joan den egubakoitzean Iturrigorri pilotalekuan, dantza-entseguarekin. MIRARI ALTUBE

Santa Ageda kantuan eta eskean hasteko gertu

2001ean jaiotako 55 bat neska-mutilek jardungo dute aurten baserririk baserri eta etxerik etxe Siziliako Birjinaren omenezko koplak abesten; eguaztenez, aurtengo lehen dantza saioa egingo dute Herriko Plazan, herrikideen aurrean

Mirari Altube ARETXABAETA

Urtarrilarekin batera hasi ziren 2001ean jaiotako neska-mutillak, 55 inguru, egubakoitz guztietan elkartzen dantzak ikasteko. Eta aste bukaera honetan entsegu orokorra egingo dute txistularien laguntzarekin.

Saso bateko ohiturari jarripena emango diote. Martitzenean, Santa Ageda bezpera, baserririk baserri jardungo dute koplak kantuan eta eskean. "06:30 inguruan elkartuko gara Herriko Plazan, eta bi taldetan banatuta joango gara auzoetara: batzuk, Oro eta Larrino aldera; eta besteak, Aozaratzara eta Goroetara. Eguerdian, guztiok elkartu eta Areantzatik eta Arkarazotik pasatuko gara, eta bazkaltzera herrira jaitsi. Arratsalderako utziko ditugu Izurietara eta Galartza inguruak", azaldu dute.

Eguaztenez, otsailaren 5ean, osterara, kaleko bazterrak girotuko dituzte, 08:30 bueltan hasita: "Lantegietara eta bulegoetara joango gara, baita ikastetxeetara ere, eta etxeetatik ere pasatuko gara, noski". Iluntzean (19:00) lehenengo dantza saioa

eskainiko dute Herriko Plazan. Orduantxe erakutsi beharko dute, herritarren aurrean, ikasitako guztia.

Aratusteak bitartean, domeka guztietan elkartuko dira kintoak elkarrekin bazkaldu eta iluntzean dantzan egiteko plazan: "Taldea polita osatu dugu eta jaiari ekiteko gogotsu gaude", diote.

Abesbatza eta musika eskola

2001ean jaiotako kintoak ez dira izango Santa Ageda bezperan kantuan egingo duten bakarrak. Ohitura duten legez, Aretxabaleta Abesbatzako kideek eta Leizarra musika eskolako hainbat ikasleek, herriko trikitilari taldearen laguntzarekin, Aretxabaletako Santa Ageda bertsoak kantatuko dituzte. Herriko Plazatik abiatu (18:15) eta zaharren egoitzatik pasatu ostean kalerik kale jardungo dute.

Basotxoko kantu taldea

Basotxo erretiratuen elkarteak kideek ere ez dute hutsik egingo martitzenean; horiek, Basotxotik abiatuta (18:00), ibilbide txo bat osatuko dute herrian kantuan egin bitartean.



943 77 03 77
pausoka.he@gmail.com
www.pausoka.eu

Belorrieta 8
20550 Aretxabaleta

Pausoka
haur eskola

0-3
urte

Etorri eta ezagutu!

Izen-emate epea: 2020-01-27 / 2020-02-07

Bulego ordutegia: 09:00-14:00 / 16:00-18:00

zeuria
zeuena
geuria





Corrado Masacci *Igelaren itxuraldaketa* txotxongilo erakusketarekin. ARETXABALETAKO UDALA

Antzerkia, dantza eta opera otsailean Arkupen

Otsaileko kultur egitarauari ekiteko 'Desbloqueadas' ikuskizuna eskainiko dute domekan. 'Madame Butterfly' opera bertsio digitalean eskainiko dute 14an, eta antzerkia, txotxongilo erakusketa, pelikula eta Fun Dantz jaialdia ere egongo dira

Maialen Santos ARETXABALETA

Otsailera begira kultur egitarau oparoa antolatu dute Arkupen. Domeka honetan bertan ekingo diote; *@remociones* antzerki konpainiak *Desbloqueadas* ikuskizuna eskainiko du Zاراia aretoko taula gainean, 19:00etan. Zortzi emakume independenteen bizitza jarriko du jomugan antzezlanak, eta elkarrekin aurrera eraman beharko duten proiektu bati esker lortuko dute guztiek aurrera egitea.

Otsailaren 6tik 29ra, aldiz, Corrado Masacci italiarraren *Igelaren itxuraldaketa* txotxongilo erakusketa jarriko dute ikusgai. "Urte askotako" lanaren emaitza da hori, Masaccik berak azaldu moduan: "Izenburu hori jarri diot erakusketari anfibio hauen ezaugarririk garrantzitsuenetakoa izateaz gain, objektu bakar baten eraldatze prozesuan metamorfosia dagoelako, nire ustez. Horren kasua izan daiteke arrautza-ontzi bat igel-txotxongilo bilakatzea".

'Madama Butterfly', digitalean

Otsaileko egitarauaren baitan, Arkupeko pantaila handian emango dute *Madama Butterfly* obra, otsailaren 14an, 19:30ean hasita. Bertsio digitalean eskainiko dute Giacomo Pucciniren obra ezaguna Sydneyko badiatik (Australia), eta hori ikustera joateko sarrerak salgai daude dagoeneko, bost eurotan.

Hilaren 15ean, *Liburutegiko sekretuak* ipuin kontaketa saioa eskainiko du Ane Gebara ipuin-kontalariak. Liburutegian bertan egingo dute haurrei zuzendutako saioa; 11:30ean izango da.

Azkenik, hilaren 29an Fun Dantz jaialdia egingo dute Ibarra kiroldegian, 18:30ean. Udalak eta BreakONStage jaialdiak an-

'MADAME BUTTERFLY' OPERA DIGITALEAN ESKAINIKO DUTE; SARRERAK SALGAI DAUDE DAGOENEO

tolatzen duten ekitaldia Euskal Herriko dantza urbanoen taldeen erakuslelhoa izango da. 21 taldek parte hartuko dute, guztira, eta sarrerak aurrez erosi ahal izango dira. Astelehenetik aurrera jarriko dituzte salgai Arkupen, hiru eurotan. Leihatilan ere erosi ahal izango dira horiek; bost euroren truke.

Zinema eskaintzari dagokionez, eguenero legez zinekluba egingo da. Horretaz gain, asteburuko emanaldiak ohiko orduetan eskainiko dituzte, eta haurrentzako zinema 1ean, 8an, 9an eta 29an izango da -17:00etan-.

Kantari saioko grabaketak

Goienaren Kantari saioko 7. aldian martxan dagoela eta, Aretxabaletako neska-mutikoak kantuan eta dantzan jarriko dituzte. Hasteko, 8an eta 9an entseguak egingo dituzte, nor bere taldearekin kantua eta dantza prestatu dezan. Hurrengo astean, 15ean eta 16an egingo dituzte grabaketak, Zaraian.

Eneritz Furyak abeslariak gaur gauean eskainiko du kontzertua

Abeslari iruindarra udaletxe zaharreko atartearen bitartean, 22:00etan hasita, Loramendi elkarteak antolatuta

M.S. ARETXABALETA

Kalitatezko eta eskaintza kultural finko baten aldeko apustua egin gura izan du Loramendi Elkarteak. Hori horrela, auzolanean, udaletxe zaharreko sarrera egokitu dute, paletak erabiliz sofa eta aulkiak eginez, eremu eroso eta goxoa sortzeko. Gaur estreinatuko dute gune hori; hain zuzen, Eneritz Furyak -izen artistikoa da hau- abeslari iruindarrak eskainiko du kontzertua bertan.

Hitz poetikoez baliatzen da abeslari eta konpositore dena. Berak dioenez, bere musika heterodoxoegia da folk konbentzionaleko ikuspegi hertsia erantzat. Popetik ez da urrunegi, baina punka da osagai ezinbestekoa bere kantuetan.

15 urte zituela eman zuen bere lehen kontzertua talde batekin, eta egun, 26 ditu. 2017an atera



Eneritz Furyak abeslaria. E.F.

zuen *Eneritz Furyak* izeneko diskoa, eta 2018an etorri zen *Zaldi Zuria/Maskara*.

Gaztea Maketa Lehiaketako Kafe Antzokiaren saria irabazi zuen 2017an. Katalunian, Galizian, Frantzia, Belgikan, Italian... izan da kontzertuak ematen.

Kandelario domekan eta astelehenean San Blas eguna Salluenten

Kandelario eguna izango dute gogoan zapatuan eta domekan, parrokiaren, eta kandelak bedeinkatuko dituzte mezatan. Otsailaren 3an, astelehenean, osteran, San Blas eguna ospatuko dute Apotzaga-Etxebarri auzoko Salluente ermitan, 10:30ean, eta parrokiaren, 19:00etan; meza esan ostean herritarrek eramandako jakiak bedeinkatuko dituzte.

Hiru egunetan eman ahal izango da odola otsailean zehar

Odola emateko kanpaina berriaren baitan, datozen asteetan eman ahal izango da odola Aretxabaletan. Otsailaren 3an, 10ean eta 20an izango da horretarako aukera, zehazki. Egundorietan, arratsaldean, 16:45tik 20:00etara bitartean herriko plazan izango da unitate mugikorra -autobusa-, eta jendea odola ematera animatzeko dei egin dute.

Jou Díaz
Karakina
Durana 15
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario
ARENZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia I - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Aho batez onartuta klima aldaketaren gainera

Udal Gobernuak bat egin zuen EH Bilduk aurkeztutako Klima aldaketaren gaineko mozioarekin. Grebaren gainekoan, bestalde, ez zuen bat egin alderdi jeltzaleak, eta Txoko Feministako adierazpen-gunearen erabilera salatu zuen

Imanol Beloki ESKORIATZA

Astelehenean, ezohiko osoko bilkura izan zuten Eskoriatzako udalbatzako kideek, eta azpimarratzeko bi gai izan zituzten hizpide. Biak, EH Bilduk aurkeztutako mozioak: klima aldaketari buruzkoa; eta lan, pentsio eta bizitza duina eskatzeko egingo den greba orokorraren gainekoa.

Klima aldaketaren bueltan, larrialdi egoeran bizi garena eta ondorioak atzematen hasiak garena adierazi zuen EH Bilduko Nestor Aranak, besteak beste: "Eskoriatzan erronka handiak ditugu, erabakiak hartzea behartuko gaituztenak. Hurrengo urteetako plangintza garatzeko orduan gaiari helduko diogu, era estrategikoan ze erabaki eta ze bide hartzen dugun erabakitzekeo...".

Honen aurrean, alderdi jeltzaleko Josu Ezkurdiak "proposamen baikorra" dela adierazi zuen, eta mozioarekin bat egitea erabaki zuten, eta halako larrialdi egoeretan ideologiak alde batera utzi behar direla argudiatu. Honekin batera, pasa den agintalditik lanean ari direla gaineratu zuen. "Udaltzaingoaren auto elektrikoa erosi genuen, argiteria publikoa LED sistemara aldatu, eskolan eta kiroldegian eguzki plakak konpondu...".



Urtarrileko ezohiko osoko bilkuran batutakoak. IMANOL BELOKI

Grebaren mozioari ezetza

Hilaren 30eko greba orokorra ere izan zuten hizpide. Elizateen abstentzioarekin eta EAJren ezezko botoekin, ez zuen aurrera egin EH Bilduren mozioak.

"Gure taldeak greba politikoa dela uste du, eta, gizartearen gehiengoa helburuekin bat etorri arren, tresnarekin, grebarekin ez datorrela bat pentsatzen dugu. Pausoz pauso hiritarren bizitza hobetzea uste dugu dela bidea, eta ez dena greba baten bitartez", adierazi zuen Ezkurdiak.

Salaketa adierazpen-guneari

"Eskoriatzako udaletxe ostean adierazpen-gunea jarri genuen indarkeria matxista kasuak salatzeko. Hala ere, panel horien funtzioa alde batera utzi dute zenbaitek, eta grebaren aldeko kartelak jartzeko erabili dira. Horren kontra gaude, gune horiek ez zirelako horretarako jarri. Beraz, gertaera ikertuko dugu, nortzuk izan diren jakiteko, eta gero ikusiko dugu zein neurri edo zer egin daitekeen...", adierazi zuen alderdi jeltzaleko Josu Ezkurdiak.



Gure Esku egitasmoaren etapa berriaren gaineko bileran batutakoak. MAIALEN SANTOS

Gure Esku egitasmoaren asmo berrien gaineko bilera izan da

Gure Esku Gipuzkoako arduradun Irati Elizalderekin batuta, bilera-informatiboa egin zuten martitzenean

I.B. ESKORIATZA

Gure Esku egitasmoak etapa berriari ekin dio, Euskal Herriko lurraldeetan etorkizun politikoa erreferendum bidez erabakitzekeo helburuarekin. Hala, Irati Elizalde Gure Esku Gipuzkoako arduraduna Eskoriatzako kultura etxean izan zen martitzenean, orain arte emandako aurrerapausoez hausnartzen eta datozen hilabeteetarako Euskal Herri mailan antolatu dutenari buruz argibideak ematen.

"11 Gara ekimenean askotari-ko alorretako eragileok bat egin-

go dugu. Erreferendum bidez erabakitzearen aldekoak garena adieraziko dugu, eta ekintzak eta mobilizazioak egingo ditugu hilabete osoan zehar eta sindurak bilduko ditugu manifestu bat ardatz hartuta, erreferenduma legezatzearren alde", adierazi du Elizalde.

Herritarrek animatu guran

Azken bost urteetan Gure Esku Dago Eskoriatzak jardun du lanean, eta datozen hilabeteetan hala jarraitzeko lantaldea berri-tu gura dute taldekoek, orain arte egon direnen laguntzarekin.

Mozorroak prezio sinbolikoan erosteko aukera bibliotekan

Azoka txikiak gain, mozorroak egiteko lokala eta joskintza ikastaro-tailerra izango da kultura etxean

I.B. ESKORIATZA

Eskoriatzako Inauterietako egun handia otsailaren 22a izango da. Hala, aurten, esfortzu berezia egin dute egun handira begira, eta horren aurretik zenbait berrikuntza antolatu dituzte.

Azoka txikia da horietako berrikuntzetako bat. Pasa den astean, kultura etxean eta bibliotekan aukera izan dute herritarrek aurreko urteetan erabilitako eta egoera onean dauden mozorroak, arropak, zapiak, osagarriak eta bestelako tresnak dituztenek bertara eramateko,

beste batzuek erabili ditzaten. "Batzuk jaso ditugu, eta otsailaren 3tik aurrera bibliotekan egongo dira mozorro hauek salgai, baina prezio sinbolikoan", adierazi du Arantxa Unzuetak Eskoriatzako Udaleko Kultura teknikariak.

Horrekin batera, mozorroak egiteko espazio bat ere jarriko du Udalak, herritarrek mozorroak egiteko erabili dezaten, eta domeka honetan eta hurrengoan, berriz, joskintza-tailerra izango da, 10:00etatik 13:00etara, kultura etxean.

Txoko Feministako adierazpen-gunea

Emakumeen plazan dagoen Txoko Feministako adierazpen-guneari "erabilera partidista" eman zaiola salatu zuen Udal Gobernuak astelehenean egindako ezohiko osoko bilkuran, eta U30eko grebaren aldeko kartelak jarri direla argudiatu. Indarkeria matxista kasuak salatzeko eta emakumeei elkartasuna adierazteko gunea dela esan zuen.



Emakumeen plazan dagoen Txoko Feministako adierazpen gunea. JOSU EZKURDIA



2002. urtean jaiotako Eskoriatzako neska-mutilak martitzenean egindako dantza entseguan, talde argazkian. IMANOL BELOKI

Azken entseguak eginda, egun handiaren zain

2002. urtean jaiotako 41 neska-mutil izango dira aurten Santa Ageda egunaren bueltako protagonista. Zenbait astez dantza entseguetan aritu ostean, pixka bat erreparatu eta prest egongo dira herritarren aurrean dantza egiteko

Imanol Beloki ESKORIATZA

2002. urtean jaiotako Eskoriatzako neska-mutilak izango dira aurten protagonista Santa Ageda egunaren bueltan. Izan ere, ohiturari jarraituz, santa-eskean arituko dira zenbait egunez, eta dantzak egingo dituzte Fernando Eskoriatza plazan.

Urte berean jaiotako eskoriatzarrak gehiago diren arren, 41 izango dira, guztira, Santa Ageda egunaren bueltan herritarren aurrean dantzan arituko direnak. Zortzi entsegu izan dituzte, oraingoz, eta gogotsu daude kantuan aritzeko. Urduritasunak izan arren, baita herritarren aurrean dantza egiteko ere.

Urteroko plangintza jarraituz

Santa Ageda egun bezperan, otsailaren 4an, Eskoriatzako zazpi elizateetan zehar arituko dira baserriz baserri kantueskean, eta otsailaren 5ean, Santa Ageda egunean, aldiz, herriko kaleetan zehar eta ikastetxeetan arituko dira. Honekin

batera, urteroko ohiturari jarraituz, azken entseguak egin eta Jose Arana nagusien egoitzako egoiliarren aurrean dantza egitera joango dira, 18:00etan. Ondoren, berriz, Fernando Eskoriatza plazan egingo dute dantza, 19:00etan, herritarren aurrean, eta bertan demostratuko dute zein ondo entseatu duten. Otsailaren 6an, egunean, berriz, herriko kaleetan zehar arituko dira santa-eskean.

Egun bat lehenago hasita

Otsailaren 4an, 5ean, eta 6an ateratzea izan arren hasierako asmoa, otsailaren 3an ere, astelehenean, aterako direla adierazi du Uxia Alvarezek, aurtengo kintoak: "Gogoz gaude Santa

HERRITARREN AURREAN OTSAILAREN 5EAN EGINGO DUTE DANTZA, 19:00ETAN, PLAZAN

Ageda egunaren bueltan santa-eskean aritzeko eta baita dantza egiteko ere. Gogoz aritu gara entseuetan; guztira, zortzi entsegu izan ditugu, eta, oraindik zer hobetu dugun arren, ondo prestatuta aterako garela plazara uste dut. Horrekin batera, egun bat lehenago hasia erabaki dugu. Motorrak berotze aldera..."

Kinttaden Eguna batuz

Kinttaden Eguna –bederatzigarren edizioa– otsailaren 8an ospatuko da, zapatuan, eta egunerako santa-eskean eta dantzara animatu diren 41 gazteak bazkaltzera joango direla adierazi dute: "Kinttaden Egunean bazkaria egingo dugu, eta, Eskoriatzako kintada ugari batzen direnez, guk ere ez dugu hutsik egingo. Hala ere, txintxo-txintxo ibiliko gara; izan ere, otsailaren 9an, domekan, berriz egingo dugu dantza Fernando Eskoriatza plazan, 19:00etan", adierazi du Alvarezek.

Sahararrei elkartasuna adierazteko azoka solidarioa

Bigarren eskuko azoka zapatu honetan egingo da, Fernando Eskoriatza plazan, 19:00etatik aurrera

I.B. ESKORIATZA

Saharako errefuxiatuei laguntzeko bigarren eskuko azoka izango da zapatu honetan, Fernando Eskoriatza plazan, 19:00etatik aurrera. Bertan, herritarrek emandako bigarren eskuko arropak, jostailuak, liburuak zein askotariko gailuak salgai izango dira prezio ezin hobean.

Batzen den dirua kausa on baterako erabiliko da. Hain zuzen ere, Bubisher elkarteak jasoko du salmenten dirua, Saharako errefuxiatuen kanpamen-

tuetan dagoen Aiuneko Wilaya-ko eskolarik zaharrenean neskontzako komunak egiten laguntzeko.

Hori horrela, herritarrak erostera animatu gura dituzte antolatzaileek, eta, bertara gerturatzeko gonbidapena eginez, giro ederra izango dela adierazi dute. Izan ere, *Oporrak bakean* kanpainaren argazki erakusketari jarriko dute azokaren bueltan. Tea hartzeko aukera izango da, baita hennaz larruzala koloreztatzeko, eta hori guztiori musika sahararraz girotuta.



ESKORIATZAKO BIBLIOTEKA

Patxi Zubizarretarekin solasaldia

Patxi Zubizarreta idazlearekin solasaldia izan zuten Almen-Arizmendiko haurrek pasa den egubakoitzean, bibliotekan. *Korri, Kuru, korri!* lanarengatik euskarazko haur eta gazte literatura kategorian Euskadi saria jaso zuen Zubizarretak, eta haurrek liburuaren bueltan zenbait galdera egiteko aprobetxatu zuten hitzordua.



Gastronomia elkarteak eraikitzen bidean

Eskoriatzako Mendiola auzoan, Kultura eta Gastronomia Elkartea irekiko dute, erretegia izan zen lokalean. Auzotarren bilgune izateko helburuarekin, aurreikuspenen arabera, martxorako erabilgarri izango dutela adierazi dute auzotarrek

Imanol Beloki ESKORIATZA

Mendiola auzoan elkarte gastronomikoa irekiko dute erretegia izan zen lokalean –Auzora iritsi eta ezker aldean dagoen lehenengo eraikinean–, eta Mendiola Aria Kultura Gastronomia Elkartea izenpean, asmoa martxorako erabilgarri izatea dela adierazi dute auzotarrek.

Elkartea sortzearen helburua auzotarrendako bilgune izatea dela adierazi dute bertakoek, eta kideentzat aisialdi-gune bat izatea da asmoa. Hori horrela, bazkari eta afariez gain, bilerak egiteko, eta baita beste zenbait ekintza gauzatzeko ere erabiliko dute lokala. Horrekin batera, auzotarrei bideratutako elkarte izan arren, beste auzo batzuetako jendeari ere zabalduko diote aukera bertan bazkide egiteko.

30 urterako alokairuan

Oskar Madinabeitia Mendiola auzotarrek adierazi duenez, 30



Sukaldea jartzeko lanetan. O. MADINABEITIA


urterako alokairuan hartu dute lokala, eta zenbait lan bukatu ostean, auzolanean batu eta ahal duten guztia egingo dutela gaineratu du. Honekin batera, elkartearen 55 lagun bazkide izatea da asmoa, hasiera batean.

Martxorako erabilgarri

Adin guztietako bazkideak lortu dituzte orain arte, elkarte berrirako; 30 urteko gazteak, eta baita 80 urtekoak ere. Hala, ohikoa den moduan, bazkide moduan sartu gura dutenek hasiera bateko ekarpen ekonomikoa egin beharko dute. 2.000 eurokoa izango dena.

Kultura ekintzetarako prest

Eskoriatzan ospatzen diren zenbait jaietan parte hartu izan dute Mendiola elizateko auzotarrek, eta hemendik aurrera gune eder bat izango dutela festa egunetarako ere adierazi dute Mendiola Aria Kultura Gastronomia Elkartekoek: "San Juan egunean, San Juan Txiki ospatu izan dugu auzoan, Urdelardero egunean ere hartuko dugu parte...Gainera, bilgune hau izanda, auzoa biziberritu eta ekintza gehiago egiteko bide ere emango digu, besteak beste".



I.B.

Kontzertuen iragarpen kartelak

16 urte, ehunka akorde izenpean, pasa den asteburuan ireki zuten Inkernuko kontzertuen kartelen erakusketa, tabernan bertan. Guztira, 134 kartel jarri dituzte, baina, Atxorrotx Kultura Elkartekoek adierazi dutenez, gehiago ere badituzte. Hala ere, erakusketak herritarren interesa piztu duela gaineratu dute.

OHARRAK

DJ Motoren saioa

Gaur, egubakoitza, pintxo-potea izango da San Pedro auzoan, eta, horrekin batera, DJ Moto arituko da Compostela tabernan, 20:00etatik 01:00etara.

Kinttaden Eguna

Kinttaden Eguna otsailaren 8an ospatuko da, eta egunerako zapi pertsonalizatuak nahi dituenak aukera du Benta Motz Berri tabernan.

Zientziaren Zikloa

Bigarren urtez jarraian, zientziaren dibulgazioa helburu duen zikloa antolatuko du Eskoriatzako Udalak, otsailaren 12tik 18ra.



Libe Ramila eta Jon Errasti, Gatzagako Gatz Museoko kudeatzaileak. GATZ MUSEOA

Libe Ramila eta Beste Bat, Landaola sarietarako hautagai

Museoari lotuta, gatz ekoizpenerako proiektuagatik da erakunde pribatuen ataleko hautagaia

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Landaola Landa Garapen Elkarrekin Federazioak antolatzen dituen Landaola sarietarako hirugarren aldia izango da otsailaren 7an, Aretxabaletako Otolara jauregian, 12:00etan, eta hautagaietako bat Libe Ramila Gabiria eta Beste Bat da, museoari lotuta gatz ekoizpenerako proiektuagatik.

Proiektu honek izaera publiko-pribatua du. Gatzagako Udalak inbertsioen kostua bere gain hartzen du, baina kudeaketa erakunde pribatu bati esleitzen dio. Hain zuzen, Libe Ramila eta Beste Bat.

Jauzi handia azken urteetan

Azken hiru urteetan egindako lanari eta Leader dirulaguntza-aren bitartez gauzatzen ari diren inbertsioei esker, gaur egun museoari lotuta bere osotasunean modu lehiakorrean

aurrera eramateko aukera eskaintzen du. Hala, Udaletik sustatu eta kudeatu den Gatz Museoko jardura ekonomikoa aurrera eramaten ari da, bileran-ildotan: batetik, museoaren jardura; eta, bestetik, gatzaren ekoizpen eta salmenta. Hala ere, Libe Ramila Gatz Museoko kudeatzaileak adierazi du herritarren eta Udalaren laguntza barik ezinezkoa izango litzatekeela.

Hamabost kilo gatz eguneko

Beharrezko arabera gatz ekoizpena egiten dute gaur egun, eta gatz saldu ahala ari direla produzitzen adierazi du Ramilak. "Pertsona batzuk espresuki honetara dedikatzen garenez, gehiago ari gara saltzen, eta produkzioa handiagoa da. Azkenengo produkzioa azaroan egin genuen, eta laster beste bat egingo dugu...".

Podologoaren zerbitzua, gaur, erretiratuendako

Gaur, urtarrilak 31, egubakoitza, podologo zerbitzua izango da Leintz Gatzagako udaletxeko medikuaren kontsultan. Betiko moduan, izena emateko aukera izango dute herriko erretiratuek Labidea tabernan izango den eskuorrian.

Bi hilean behin, hileko azken egubakoitzean joaten da Aretxabaletako podologoa Gatzagara,

bertako erretiratuei zerbitzua eskaintzera. Labidea tabernako arduradunek adierazi dutenez, herritarrek zain egoten dira podologoa noiz joango: "Gatzagako erretiratuak gogoz egoten dira hankak zaintzeko, begiratzeko... Normalean, 09:30etik aurrera hasten da zerbitzua, baina kontsultatik pasa nahi duten herritarrek osatutako zerrendaren arabera ordutegia moldatu ere egin daiteke...", adierazi dute Labideako arduradunek.



Udal aurrekonturako bozketa: EH Bilduren (9) proposamenaren aurrean abstenitu egin ziren EAJ (5) eta PSE-EE (1). JOKIN BEREZIARTUA

Azken 18 urteetan lehen aldiz, kontrako botorik gabeko udal aurrekontua

Foru fondoari eta beste dirulaguntza batzuei esker 2019an baino %5,57 gehiago izango du Udalak 2020rako; ikuspegi ezberdinak agerian geratu ziren bilkuran, baina 2002tik lehen aldiz onartu da udal aurrekontua oposizioaren kontrako botorik gabe

Jokin Bereziartua BERGARA

Bergarako udalbatzak 25.251.152 euroko aurrekontua onartu du 2020rako, iazkoa baino %5,57 handiagoa. EH Bilduren proposamenaren aurrean abstenitu egin ziren EAJ eta PSE-EE, eta esan beharra dago datu esanguratsua dela hori, 2002a ezker lehen aldia da eta udal aurrekontua onartu dela kontrako botorik gabe. Azken 18 urteetan egon ez den adostasun politiko maila lortu izanarekin bereziki pozik zegoen Gorka Artola alkatea: "Hasiara batetik saiaturako gara haien [oposizioaren] proposamenak kontuan hartzen. Jasotako proposamen guztiek izan dute isla gure azken dokumentuan; batzuetan adostasunera heldu ez bagara ere, saiaturako gara lanketarako espazioa ematen. Bozketa horren emaitza izan dela uste dut". Horrekin batera, "bi abiaturako" aurre-

"ADOSTASUN GABE ERE, SAIATU GARA LANKETARAKO ESPAZIOAK SORTZEN"

GORKA ARTOLA, EH BILDU

kontua dela nabarmendu zuen alkateak asteleheneko ohiko osoko bilkuran: batetik, Bergarako eguneroko beharrei erantzutera bideratutako aurrekontua; eta, bestetik, etorkizuneko Bergara irudikatzen lagunduko duena.

EAJren kritika Zubieta dela eta EAJko bozeramaile Elena Letek esan zuen pozten direla euren emendakinetako batzuk onartu direlako eta "zentzudunak" direla iritzita ez zutela kontrako botorik eman. Hala ere, Zubieta-Masterreka ardatza berriro urbanizatzeko emendakina onartu ez izana ez dute ulertzen jeltzaleek. Diote, besteak beste, Udal Gobernuak ez duela obra gauzatzeko nahikoa konpromiso hartu. "Zubieta-Masterreka ardatza berriro urbanizatzeko 200.000 euro bakarrik bideratzea penagarria da. Seminarioko lurpeko parkinga, momentuz, gelditu dago eta ez dakigu noiz hartuko den proiektu horren gaineko erabakia; biak aldi berean gauzatu ezingo zirela aintzat hartuta, aprobetxatu beharko litzateke orain Zubieta-Masterreka eraberritzeko", deritzo Elena Letek.

PSE-EE: arreta berdintasunean

Alderdi sozialistaren eskari nagusia izan da udal aurrekontuaren %1 berdintasun politiketara bideratzea. Administrazioan helburu hori lortzea "oso zaila" dela aitortuta ere, udal aurrekontuaren %0,53 bideratu da berdintasun politiketara, 2019koa "askogatik" gaindituta. Alberto Alonsok Gobernuaren "jarrera eraikitzailea" txalotu zuen, baina, aldi berean, dio oraindik goiz dela aldeko botoa emateko: "Plazera izan da zuekin lan egitea, baina konfiantza pixkanaka irabazten den zerbait da, eta oraindik adierazpenen fasean gaude. Itxaron dezagun ekintzen arora, eta, nork daki, hurrengo urtean, akaso, emaitza positiboagoa lortu dezakete gure aldetik".

"Askotariko" beharrei erantzutera 2020an, 4.122.011 euroko inbertsio gaitasuna izango du Udalak; eta

"APARKALEKUA GELDI DAGO ETA EZ DAKIGU NOIZ HARTUKO DEN ERABAKI BAT"

ELENA LETE, EAJ

Proiektu eta partida esanguratsuenak

Inbertsioetarako 4.122.011 euro bideratu dira udal aurrekontuan, baina Udal Gobernuak aukera izango du gerakina baliatzeko.

2020an forma hartzen hasiko diren proiektu aipagarrienak

Labegaraietako kiroldegia berritzea –bi faseak–: 1.647.860 €.
Zubieta kalea berriro urbanizatzeko lehen fasea: 1.100.000 €.

Beste partida esanguratsu batzuk

Kultura ekintzak antolatu eta parte hartzea sustatzea: 320.000 €.
Sustapen ekonomikorako inbertsioa: 150.000 €.
Ortu komunitarioak martxan jartzeko prozesua: 140.000 €.
Berdintasun politiketara bideratutako partida: 133.000 €.
Jolas parkeak hobetu eta berriak egiteko partida: 100.000 €.
Auzoen birgaitze-prozesuak eta jaietarako laguntza: 63.000 €.
Agorrosin Berriaren proiektua idazteko: 54.450 €.
Etxe hutsetarako alokairu programa bat abiatzeko: 50.000 €.
Gazteen emantzipaziorako alokairuetako laguntza: 35.000 €.
Mankomunitatekoarekin osagarria den turismo plana: 30.000 €.
Herriko sortzaileen proiektuak sustatzeko kultura beka: 5.000 €.

Eguneko zentroa eta trafikoko isunak

Aurrekontuaz gain, beste gai garrantzitsu batzuk landu ziren bilkuran. Irekiera data hainbat alditan atzeratu duen eta 35 pertsonarentzat lekua izango duen eguneko zentroarekin zerikusia duen hitzarmen bat sinatu zen, batetik. Alkateak ez zuen irekiera data berririk eman nahi izan, eta Diputazioarekin landu beharreko gai dela gaineratu zuen. Bestetik, herri barruko isunetan aldaketa inportante batzuk ere onartu ziren bilkuran. "Udaltzaingoaren txosten batek argi utzi zuen gaizki aparkatzeagatik goiz ordainduz gero isuna hamar eurokoa izateak ez zuela arau-hauste hori ekiditea lortzen", dio Artolak. Horregatik, arau-hauste arinak 20 eurotik 50 eurora pasatuko dira; hau da, goiz ordainduz gero, 25 euroko isunak izango dira. Arau-hauste larrietan –200 euro– eta oso larrietan –500 euro– ez da aldaketarik izango.

horri gehituko zaio zehazteke dagoen gerakinetik bideratu litekeena. "Askotariko" beharrei erantzun gura diete diru hori baliatuta: "Eraberritze beharra duten kaleak berriro urbanizatzeko; eskola publikoen eraikinetan berrikuntzak; kirol azpiegiturak berritzea eta hobetzea; herritarren eta txakurren arteko bizikidetzaren errazteko baliabideak; kontratazio publikoetan irizpide etikoak ezartzea –sozialak, ingurumenekoak, berdintasunekoak, hizkuntza irizpideak...–, etxebizitza premiei erantzunak bilatzea...".

2020an forma hartzen hasiko diren proiektu esanguratsuenak izango dira Zubieta eta Masterreka berriro urbanizatzeko lehen fasea hastera eta Labegaraietako kiroldegia berritzeko bigarren fasea (Ikus 25. orria). Zubieta kalerako 200.000 euroko partida

bideratu dira udal aurrekontuan, eta Gobernuak kalkulatu du 2020 bukaeran hasiko liratekeela lehen fase hori gauzatzeko. Hiru faseetako lehen kostatuko den 1.100.000 euroetara heltzeko gerakinetik hartuko lirateke falta diren 900.000 euroak. Helburua da "ahalik eta modurik jarraituenean" hiru faseak gauzatzeko, betiere, Udalaren baliabideen arabera; Zubieta bizilagun batzuk izan ziren osoko bilkuran eta Udal Gobernuari eskatu zituzten ezer egiten hasi aurretik proiektua berriro ere eurekin konpartitzeko.

"PLAZERA IZAN DA LAN EGITEA, BAINA ITXARON DEZAGUN EKINTZETARA"

ALBERTO ALONSO, PSE-EE

Labegaraietako kiroldegi berriua, urtebete barru

1980ko hamarkadatik interbentzio aipagarririk izan gabe, Labegaraietako kiroldegiari urtebete falta zaio berriua eta erabilgarri egoteko; lehen faseko obrak "martxa onean" doaz, eta barruko lanak maiatzean hasteko kontratazioa asteon jarriko dute martxan

Jokin Bereziartua BERGARA

2019ko abenduan hasi ziren Labegaraietako kiroldegia berritzeko obrak, baina 2020a izango da eraldaketaren urtea 1980ko hamarkadatik apenas interbentziorik izan duen azpiegitura-erentzat. Aurreko agintalditik datorren proiektua da, eta Diputazioaren dirulaguntza bati dago lotuta. Aurrekontu osoa 1.647.860 euro da eta Diputazioaren dirulaguntza 589.720 eurokoa da, zehazki. Asteleheneko osoko bilkuran onartutako udal aurrekontuaren proiektu nagusietako bat da Labegaraietako kiroldegia berritzearena (Ikus 24. orria). Lehen faseko lanak "martxa onean" doaz; hau da, betiko eraikinari konektatuta egongo den eraikin berria aurreikusitako epeen barruan ari dira altxatzen. Hor joango dira Beti Bustikoen piraguendako biltegia eta tailer txiki bat, aldagela nagusiak eta makinendako gela txiki bat.

Bigarren faserako kontratazio prozesua asteon jarriko da martxan eta asmoa da lanak maiatzean hastea. "Hori da gure nahia, baina prozedura administratioboak geldoak eta konplexuak dira; saiaturako gara lan potoloenak udan egiten", dio Kirol teknikariburu Ugarteburuk.



Kiroldegiari lotuta joango den eraikin berria altxatzeko lanak "martxa onean" doaz. J. B.

Barruko lanak, maiatzetik aurrera
Bigarren fasean, hainbat lan egingo dira: sarrera aldatu egingo dute; taberna leku berean joango da, baina beste orientazio batekin; sarreraren eskuinaldean igogailu bat eta eskailera berri batzuk egokituko dituzte, kiroldegi osoan irisgarritasuna bermatzeko; goiko solairuan auzotarrendako eta klubendako espazio bat jarriko dute; kantxa guztiz berriuko dute, lurra, gortina eta argiteria berriarekin; eta, herriko eskalatzailen aspaldiko eskaera bati erantzunez,

rokodromo berria itxita joango da. Gimnasio txiki bat eta biltegi batzuk ere egokituko dituzte.

Erabiltzaileak mugitu beharra
2020ko maiatzetik 2021eko urtarilerira iraungo dute barruko lanak eta nahitaz eragozpenak eragingo dizkie erabiltzaileei. "2020-2021 denboraldiaren hasiera mugitua izango da, klub batzuek beste herri batzuetako instalazioetan aritu beharko dute eta. Hasita gaude harremanetan inguruko herritako kirol sailekin", esan du Ugarteburuk.

GORA ETA BEHERA




Angiozarko eskola: txakur kakak jasotzeko eskaera

Angiozarko eskola txikiko umeei kartelak jarri dituzte Angiozarren, txakur jabeek ondoko irudiko moduko kakak jaso dezatela eskatzeko. "Umeei jolastu egin nahi dute; egun oso zaila dena, eskola ingurua eta herriko hainbat txoko kakaz beteta daudelako", adierazi du bizilagun batek.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.



U.A.

Aratusteak: kartelaren aukeraketa eta kontzerturako sarrerak

Otsailaren 22a izango da Aratusteetako egun handia Bergaran. Kartel lehiaketan zazpi lan jaso ditu Udalak eta herritarrek aukera izango dute botoa emateko, www.bergara.eus webgunean, otsailaren 3ra arte. Herritarren botoek %40ko balioa izango dute eta epaimahaiarenak, berriz, %60koa. Irabazleak 350 euro jasoko ditu bonutan, herriko komertzioetan trukatzeko. Bestalde, otsailaren 21ean egingo den Aratusteetako kontzerturako frontoian, 22:30- sarrerak otsailaren 13an jarriko dituzte salgai, 18:00etan. Internetez salduko dira lerro bikoitietakoak eta Seminarioko leihatilan lerro bakoitietarakoak; prezioa zortzi euro da.

Holokaustoa eta Pedro Axpe gogora ekartzeko erabateko adostasuna

Urtarrilaren 27an, 75 urte bete ziren Sobietar Batasunaren Armada Gorriak Auschwitzeko kontzentrazio-esparrua askatu zuenetik, eta urtemuga hori aintzat hartuta alderdi sozialistak adierazpen instituzional baterako proposamena erregistratu zuen Udalean. 1907ko irailaren 20an jaiotako Pedro Axpe bergararra da holokaustoaren biktimetako bat, Dachauko kontzentrazio-esparruan hil zen-eta 1944ko abenduaren 18an. Asteleheneko bilkuran landu zen gaia, eta, EAJk adierazpenean 2017an Pedro Axperi Munibe plazan egin zitzaion omenaldia-ri aipamena egiteko eskatu ostean, aho batez onartu zen.

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09



Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI
LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

MINDFULNESSA



8 saio

Larunbatetan
10:00etatik 12:30era

Hasiera, otsailak 15

Informazio gehiago:
FELIX (652 77 15 83)

"Hardcorea probatzera animatu nahi zaituztegu"

ANDER ELORZA FLY SHIT TALDEKO GITARRA-JOTZAILEA

Zarauzko Managaitz-ek eta Bergarako Fly Shit-ek kontzertua eskainiko dute gaur kartzela zaharrean (22:00); Andoaingo %30 taldeak ez du joko, kide baten "arazo pertsonalengatik"

Jokin Bereziartua BERGARA

Egubakoitzak berreskuratzen ekimenari esker hardcore festa izango da gaur kartzela zaharrean (22:00): Zarauzko Managaitz eta Bergarako bertako Fly Shit. Hasiere batean, Andoaingo %30 taldeak ere jo behar zuen, baina taldekide baten "arazo pertsonalak" direla-eta ez dute joko. Komenio kaleko Pol-Pol taberna zaharrean 1996an lehen kontzertua eman zutenetik gauzak asko aldatu diren arren, hardcoreari leial jarraitzen dute Fly Shit bergararrek. Gaurko jaialdiaz eta hardcoreak bizi duen egoeraz dihardu, besteak beste, taldeko gitarrajotzaile Ander Elorzak.

Gogotsu zaudete gaurko festarako? Nola eragin dizue %30 taldearen azken orduko bajak?

Oso gogotsu gaude. Managaitz taldearekin batera atera dugun azken diskoa, *Gaztaroko erokeria bat baino gehiago* izena duena, aurkeztuko dugu gaur zuzenean. Agertokia talde lagunekin partekatzea beti da ederra. Managaitzekin batera, Andoaingo %30 taldea izan behar zen jaialdia borobildu behar zuena, baina azken orduan abisatu digute ezingo dutela egubakoitzean [gaur] jo. Sekulak pena hartu dugu guk, baina esan digute eurak ere pena itzelarekin daudela. Ezin dugu ahaztu %30 gure hasieretako erreferenteetako bat zela eta oso gutxitan jotzen dutela. %30 barik ere kartel polita osatu dugu, eta guretzat, etxean jotzea beti da berezia. Ikusteke dagoena da jendea gutaz aspertu den edo ez... [Barreak].

Zuzeneko diskoaz eta DVDaz gain, bosgarren diskoa da gaur aurkeztuko duzuenena. Nolako da?

Managaitz taldeak sei abesti sartu ditu disko konpartitu honetan. Gureak lau abesti dira, zarauztarrenak baino luzeagoak direlako. Iaz kaleratu genuen,



Fly Shit 2014ko abenduaren 18an, Arrasateko Kooltur Ostegun baten. BURRUNAYE

"USTE DUT GALTZEN ARI DELA GARAI BATEAN BAZEGOEN MUSIKAREKIKO KURIOSITATEA"

Hardcorearen haria eten da?

Hardcoreak indar berezi bat izan zuen Bergaran duela urte batzuk. Belaunaldi berrien artean, baina, punk-oi! musika da errotzen ari dena. Kaleko Urdangak, Brigade Loco, Barne Guda eta No Limits taldeen sorrera eta bereziki haien kontzertuetan izan ohi den jende kopurua ikusita, badirudi gauzak aldatu egin direla. "Gure sustraiak punkean daude eta estilo aldetik anaiak izan gara beti. Hori bai, uste dut garai bateko musikarekiko kuriositatea galtzen ari dela", uste du Elorzak.

eta hardcorea aurkituko du disko hau entzuten duenak.

Hardcoreak indar berezia izan zuen Andoaingen 1990eko hamarkadan eta zuengatik, hein batean, Bergarara ere zabaldu zen estilo hori. Ze egoera bizi du hardcoreak egun?

Gutaz aparte ez dut uste Bergaran hardcorea egiten duen talderik dagoenik gaur egun. Herriko belaunaldi berriak beste erreferente eta estilo batzuei begira daude. Gure kontzertuetan nahikoa argi ikus daiteke hori; azken emanaldietara gaztetxoago batzuk agertu badira ere, gure kontzertuetako publikoa 30 urtetik gorakoa da, gehienbat.

Belaunaldi berrietan badago hardcorearen jarraitzailerik?

Ez. Bergaran arrakasta duten taldeek punk-oi! musika egiten dute bereziki eta arrakasta dute ez Bergaran bakarrik, Euskal Herri osoan baizik. Pozgarria da. **Zergatik joan beharko litzateke musika-zalea kartzela zaharrera?** Hardcorearen festa ederra biziko dugulako eta Euskal Herrian ez daudelako hardcorea egiten duten talde asko. Gazte batzuentzat esperientzia berria izan daiteke; hardcorea probatzera animatu nahi zaituztegu.



NIRE USTEZ

AINHOA NARBAIZA IRIZAR

Inuzentekeria

Pasa den abenduaren 28an, despistatuta harrapatu ninduen *Argia* aldizkarian eskusiban zetorren erreportaje batek. Honela zioen: *Ezkerraren eta independentismoaren desmobilizazio masiborako agintarien isilpeko arma*. Euskal elite politiko eta ekonomikoaren isilpeko egitasmo baten berri ematen zen testuan. Planaren helburua lan eskaintza publikoetarako lehiaketan kopurua eta maiztasuna biderkatzea zen, etengabeko azterketen bitartez sektore aurrerakoiak desmobilizatzeko. Honez gain, fikziozko planak bestelako neurri batzuk ere bazekartzan: furgoneten erosketarako subentzio politika bat, manifestazioen ordez, denbora bidaiatzen emateko; nor bere gauzetan zentratu dadin denetariko terapien sustapen masiboa; eta azkenik, Mendi Lasterketen Euskal Zirkuitu profesionala sortzea, antsietatea eta amorrua bide baketsutik bideratzeko. Inuzentekeria ez hain inuzentea. Telesail berri baterako distopia interesgarria izan zitekeen, ezta? Gidoian, zerbitzu publiko duinak aldarrikatzen dituzten greba eta mobilizazioak ahultzeko, EITB maratokia bezalako karitate-egitasmoen plana gehitu genezakeen.



OIHANA ELORZA

37 aparkaleku erabilgarri, laster

Goiauzoan, San Martzialerako bidean, otsail hasierarako 37 aparkaleku berri egongo dira erabilgarri. Aparkaleku berriek espero baino gehiago itxaron behar izan dute, obrak espero baino hiru hilabete beranduago hasi zirelako. Lanek 79.483 euroko aurrekontua izan dute, BEZa barne; hasierako LED argiek arazoak eman zituztenez, kostu gehigarri bat ere izan du proiektuak.

OHARRAK

Iazko bonuak, martxoaren 31ra arte erabilgarri

2019an Udalak 17.000 bat euro banatu zituen bonutan, herriko dendetan trukatzeko. 2019ko abenduaren 31ko iraungitze-data zuten bonuak martxoaren 31ra arte erabili ahal izango dira.

Gimnasia erritmikoa: Gipuzkoako txapelketa

Ariznoa elkartearen eskutik, Gipuzkoako eskolarteko A mailako lehen faseko txapelketa jokatu da Labegaraietan bihar. 10:00etatik 14:30era eta 16:30etik 18:30era izango dira lehiak.

Torradak eta pellak egiteko ikastaroa

Otsailaren 19an izango da, Gure Ametsan, Gorka Lobatoren eskutik. Izena emateko azken eguna: otsailak 12 (943 77 91 59).



dks'19
DEBAGOIENEKO
KIROL SARIAK

ZORIONAK KIROLARI GUZTIEI!

Debagoieneko kirolarekin bat

Antolatzaileak:



Babesleak:



Aho batez onartu dute aldagelen proiektua

Dena ondo bidean, Eztalako aldagela berrituen lanak lau hilabeteko epean egingo dira: apirilean hasi eta uztail amaierarako bukatutako dituzte. Guztira, 281.000 euro pasatxoko aurrekontua dute lanek –saneamendu lanak barne, 10.000 euro inguru–

Maidar Arregi ANTZUOLA

Asteon egin dute urtarrileko ohiko osoko bilkura. Bertan, aho batez onartu du udalbatzak Eztalako aldagelak eraberritze-ko proiektua.

Une honetan, ezkerreko aldagelak bereziki oso egoera txarrean jarraitzen du eta itxita dago. "Guztia zurkaiztuta dago –apuntalatuta–, eta oso egoera txarrean. Lur-mugimendua gelditzeko 24 metroko piboteak sartu ziren aparkalekuan, eta, horri esker, mugimenduak gelditu egin dira eta aldageletako pitzadurak ez dira areagotu. Orain, obra hasteko moduan dago", azaldu du Hirigintza teknikari Valen Moñuxek udalbatzarrean.

Apirilean hasiko dira lanak

Behin proiektua onartuta, urtarrilaren 28an argitaratuko dira oinarriak. Hogeit eguneko epean, aldiz, eskaintzak aurkezteko epea izango dute enpresek. "Udalbatzak egin beharko du esleipena osoko bilkurara eroanda. Dena ondo bidean, martxoaren 5ean esleituko litzateke Eztalako obra", argitu du.

Esleipena egin, eta legeak arautzen duen moduan, hilabeteko epearen ostean hasiko dira lanak, apirilaren 5ean. Lau hi-



Eztalako aldagelak gaur egun. MAIDER ARREGI

EZTALAKO OBRA LAU HILABETEAN EGINGO DA; APIRILEAN HASI ETA UZTAILEAN AMAITU

labetean egin beharko dira lanak eta uztail amaierarako bukatuta egon beharko du Eztalako obrak. Aurrekontua 271.000 euro pasatxokoa da eta horri gehitu behar zaio saneamendu lanen kostua: beste 10.000 euro.

Martinon gogoan

Udalbatzak Andre Martinoni herriko karta eta bandera ematea adostu du. Udal ordezkari eta otsailaren 8an Aiherrera joango da Martinonen emazteari karta eramatera eta senidetaren 36. urteurreneko ekintzak adostera.



ANTZUOLAKO UDALA

Larrañagak 100 urte bete ditu

Mari Karmen Larrañagak 100 urte bete zituen joan den egubakoitzean eta Antzuolako udal ordezkarien bisita jaso zuen etxean. "Umore onez eta pozik hartu gaitu. Segi horrela urte askoan, zorionak!", nabarmendu du Beñardo Kortabarria alkateak. Larrañagak aitortu du botika bakar bat ere ez duela hartzen.

Eztarriak sano, Senegali eta Kongori laguntza emateko

Anelkar, abesbatza eta txistulari taldea Santa Ageda bezpera egunean irtengo dira kantuan egitera

Maidar Arregi ANTZUOLA

Aurten ere, antzuolarrak ezarriak sano dituztela, santa eskean irtengo dira otsailaren 4an, martitzena. Anelkar elkarteak herritarrei kantuan egitera batzeko dei berezi egin die. Santa eskean batzen den dirua Kongo eta Senegalen martxan dauden proiektuetara bideratuko da.


Hala, Santa Ageda bezperako ohiturari eutsiz, arratsaldeko seiak eta erdietan Herriko Plazatik abiatuko dira Anelkar, abesbatza eta herriko txistulari taldea lagun dutela. Herritar

oro noski, gonbidatuta dago parte hartzera.

Hain zuzen ere, ahalegin guztia hezkuntzan du jarria Anelkarrek. Bittor Arbuluk maiatzean egin zuen azken bidaiaren ostean GOIENARI adierazi zion maisuei laguntzen dihardutela. "Geure proiektu nagusia hango hezkuntza da. Maisuei laguntza eman gura diegu. Izan ere, bailaran 60 maisu daude eta Gobernuak hogeiri soilik ordaintzen die soldata. Gure proiektuko diru eta ahalegin gehiena irakasleei laguntzeko izaten da".

Lau aldagela eta tabernari lotuta

Onartu berri den proiektuak lau aldagela izango ditu: bi ezkerrean eta beste bi eskuinean. Erdian, arbitroarendako aldagela. Biltegia, bulegoa eta masaje gela ere baditu. Baita komun publikoa ere. Azalera bera izango du: 181 metro koadro inguru. Taberna lotuta izango du eraikinak; erdiko lotunea biltegia egiteko aprobetxatuko da.



Udalbatzak onartu duen proiektua. ANTZUOLAKO UDALA

'Paziente bizia' programa abian da Antzuolan ere

Landaxpe elkarteak bat egin berri du Osakidetaren *Paziente bizia* programarekin. Baina zer da programa hau? Nork bere burua zaintzen ikasteko programa bat da. Hala, gaixotasun kronikoak dituztenei edo horrelako gaixo bat zaintzeaz arduratzen direnei informazioa ematea du helburu. Gaixotasunei buruz jardun ez ezik, osasun-

egoera hobetzeko izan beharreko ohiturak eta jokabideak erakutsi gura ditu *Paziente bizia* programak.

Antzuolan, guztira, zortzi saio egingo dira. Tailer horietan irakatsiko da gaixotasuna ulertzen eta gaixotasunaren inguruan erabaki egokiak hartzen, besteak beste.

Lehen saio irekia otsailaren 4an, martitzena, Olarango bigarren solairuan egingo da, 16:30etik 19:00etara bitartean, eta herritar oro dago gonbidatuta.



Olatz Insausti, Leire Galeano eta Nagore Galeano, Antzuolako pilotalekuan. MAIDER ARREGI

Emakumezko pilotarien artean erreferenteak

Bihar, otsailaren 1ean, Emakumezkoen Master Cup 2020 txapelketak lau kanporaketa jokatu ditu Antzuolako pilotalekuan. 17:00etan hasiko dira partiduak eta lehen bi kanporaketetan izango dira Antzuolako ordezkariak jokatzeko.

Maidar Arregi ANTZUOLA

Antzuolako Leire eta Nagore Galeano ahizpek eta Olatz Insaustik bihar, zapatua, Emakumezkoen Master Cup-eko kanporaketa bana jokatu dute. 16 urtez azpiko kategorian parte hartuko dute hirurek.

11 urte ditu Insausti aurrelariak eta ilusioz aurre egingo diola lehenengoz erronkari aitortu dio GOIENARI: "Bikotekidea Uharte Arakilgoa da eta oraindik ez dut ezagutzen; baina pozik nago lehenengoz txapelketan parte hartzeko aukera izango dudalako. Iaz txapelketa gertutik jarraitu nuen, eta aurten, oso pozik nago".

Leire Galeano atzelariak 13 urte beteko ditu aurten eta Nagore Galeano ahizpa aurrelariak 14 urte ditu. Indartsu sentitzen direla aurreratu dute: "Oso sentsazio onarekin gaude. "Gure jokoa egingo dugu eta, hain zuzen, partiduaren norabidea ikusita taktikaren bat edo beste ere erabiliko dugu".

Iaz, oso esperientzia ona bizi izan zuten eta maila paregabea erakutsi zuten pilotalekuan. "Aurten, hirugarrenez parte hartuko dugu txapelketan. Momentuz, ez gaude urduri, baina egia da eguna gerturazten doan heinean urduritasuna pixka bat igarriko dugula", kontatu dute Galeano ahizpek.

Guztira, lau kanporaketa

17:00etan hasiko da txapelketa. Lau partidu jokatu dira: lehenak izango dira jokatzeko antzuolarrak. Ondoren, kategorian mistoko bi kanporaketak jokatu dira. Tartearen, iazko txapelketa Uxue Osés pilotariak jokatu du.

Erreferenteak

"Olalde pilota eskolaren izenean esan behar dugu guretzat oso pozgarria dela herriko hiru neska Emakumezkoen Master Cup-ean ikustea. Umeentzat erreferenteak izatea oso garrantzitsua da eta Galeano ahizpek aspaldiko hutsune bat bete dute. Olatz indartsu dator eta atzetik badatoz beste neska batzuk ere", azaldu dute Olalde elkartearen arduradunek.

Azkarateri, laguntza

Olalde pilota elkarteak zozketa-txartelak jarriko dituela pilotalekuan salgai adierazi du. "Txartelen bitartez batzen den dirua gupil aulkian dabilen Oñatiko Joseba Azkarateri bikikleta egokitua erosten laguntzeko izango da -aita antzuolarra du-". Azkarate Atxintxikaren Triatloi Taldeko kirol egokitu saileko kide da eta handbike modalitatean parte hartzen jarraitzeko beharrezkoa du bikikleta egokitua.



ARGAZKIAK: IBAI ZABALO

Zabalo eta Fernandez txapelkun

Ibai Zabalo eta Mikel Fernandez dira aurtengo Antzuolako Mus Txapelketako irabazleak. Antolatzaileek balorazio ezin hobea egin dute: "Izena 30 bikotek eman dute, eta 26k jokatu. Gipuzkoako txapelketan lau bikotek ordezkatu dute Antzuola. Parte hartzea eta giroa oso ona izan da; eskerrik beroenak sarietarako borondatez laguntza eman dutenei".

OHARRAK

Aratuste-bazkaria

Txartelak salgai daude otsailaren 14ra arte udaletxean eta liburutegian. Prezioa 15,50 euro da; menu beganoa ere eskainiko dute.

Kirol sarietako sarituak

Aitor Mendizabal sarituak eta zozketako irabazle Jabi Fernandezek asteburu-pasa egiteko *pack* bana irabazi dute.

Aurrekontuen aurkezpena

Otsailaren 4an, martitzena, udal aurrekontuen aurkezpen irekia egingo da Olarango ekintza aretoan, 18:30ean.

"Diseinu grafikoa maitatzen ikasi dut"

GOIZALDI AROZENA DISEINATZAILE GRAFIKOA

Gasteizen dihardu Diseinu Grafikoa ikasten. Argazkietan oinarrituta eta Adobe Illustrator programaren bitartez egiten dituen ilustrazioak Instagramera igotzen ditu

Maialen Regueiro ELGETA

Duela 22 urte jaio zen Goizaldi Arozena elgetarra. Diseinu Grafikoa ikasten dihardu Gasteizen, baina, aurretik, arlo bereko goi mailako ziklo bat egin zuen Donostian.

Zergatik egin zenuen Diseinu Grafikoa aldeko apustua?

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaituta, Batxilergo Artistikoa egitea erabaki nuen. Artearen arloan gauza batzuk beste batzuk baino gehiago gustatzen zitzaizkidan, eta, horregatik, nire aukeren artean zeuden Arte Ederrak edota Diseinu Grafikoa. Bi graduen artean erabakitzeke, ate irekien hainbat saiota joan nintzen, eta, bertan ikusitakoarekin, Diseinu Grafikoa ikasteko erabakia hartu nuen.

Diseinu grafikoa aukera asko ematen ditu.

Diseinu grafikoa mundua oso irekia da eta arlo ezberdinetako gauzak ikasi daitezke: maketazioa, ilustrazioa, web diseinua, koloreen erabilera... Azken batean, aukera horiek eraman ninduten mundu honetan sartzerara.

Arlo honetan egongo da gehien eta gutxien egitea gustatzen zaizuna.

Zentzu honetan, ez daukat erantzun zehatzik. Egia esan, sor-



Goizaldi Arozena, ordenagailu aurrean, ilustrazio batekin lanean. GOIZALDI AROZENA

menaren bitartez egin daitezkeen gauzak egitea asko gustatzen zait. Hala ere, lan batzuk beste batzuk baino pisutsuagoak izaten dira, egiteko ere gehiago daukatelako. Azken batean, esango nuke diseinu grafikoko atal guztiak maitatzen ikasi dudala.

Egiten dituzun artelanak Instagramera igotzen dituzu.

Nire profil pertsonala izateaz gainera, @goizart Instagrameko kontua sortu nuen eta bertara igotzen ditut egindako ilustrazioak.

Zer egiten duzu?

Adobe Illustrator –bektore bidez funtzionatzen du– programarekin egiten dut lan. Bezeroek beraien argazkiak bidaltzen dizkidate eta horietan oinarrituta egiten dut lan. Argazkien koloreei eta itzalei forma erakitzen diet, ilustrazioa guztiz osatu arte.

Euskal Herriko bezeroak dituzu, baina baita kanpokoak ere.

Instagram bidez kanpoko jende asko jarri izan da nirekin kontaktuan; Valentziakoak eta Kanarietakoak, besteak beste.

Hainbat ekintza gerrako umeak omentzeko ekitaldiaren baitan

Omenaldiarekin batera, aste horretan komiki eta dokumental baten aurkezpenak izango dira Elgetan

M.R. ELGETA

Apirilaren 26an, Debagoieneko gerrako umeak omenduko dituzte Elgetako Udalak eta Intxorta 1937 Kultur Elkarteak, beste hainbat eragilarekin batera antolatzen diharduten eki-

taldian. Iraitz Lazkano Elgetako alkateak aurreratu du ekitaldiarekin batera bisita gidatua izango dela, besteak beste.

Aipatutako ekitaldiaren baitan, gainera, beste ekintza batzuk antolatu dituzte. Apirilaren

21ean, martitzenean, 19:00etatik 20:00etara bitartean, *1936ko gerra Elgetan* izeneko komikia aurkeztuko dute, non garai hartan gerrak Elgetan utzitako bizipenak jasotzen diren. Egun batzuk geroago, apirilaren 23an, egunean, eta ordu berean, *Zer da gerra?* izeneko dokumentala aurkeztuko dute. Kasu horretan, ikus-entzunezko horretan, hainbat umeren testigantzak jasotzen dira, eta horiek gerraren inguruan duten pertzepzioa ere ematen da ezagutzera.



Argazki hutsa baina askoz gehiago

Goizaldi Arozenak zerbait adierazten dioten edota mezu bat transmititzen duten argazkiak ilustratzen ditu. Kasu honetan, argazki honek LGTBI kolektiboa normaltasunez aldarrikatzen duela iruditzen zitzaion eta berau ilustratzea erabaki zuen.

Normalean, nire bezeroek familia, lagun edota bikotekideendako opari bezala eskatzen dizkidate ilustrazioak. Horrez gain, animaliekin ateratako argazkiak ere bidaltzen dizkidate, horiek familiako kide bezala hartzen ditugulako askotan.

Pertsonaia ospetsuen argazkiak ere ilustratzen dituzu.

Nire bezeroek bidalitako argazkiez gain, hainbat pertsonaia famaturen argazkiak hartu eta ilustrazioa egin izan dut; besteak beste, Rosalia eta Amy Winehouse abeslariena. Horrez gain, sare sozialetan herritar arruntek dituzten argazkiak begiratzen aritzen naiz eta mezu berezia transmititzen dituzten horiek ilustratzen ditut.

Sare sozialek zure lana ezagutzera ematera lagundu dizute?

Egia esan, bai. Gaur egun, bide oso ona da gu ezagutzera ema-

teko, eta bide erraza, baita ere, jendeak gure lanak ikusi ahal izateko.

Non eta zer egiten ikusten duzue zure burua etorkizunean?

Lehenik, ikasketak amaitu behar ditut, eta gero, ez dakit zer ekarriko didan etorkizunak eta non egongo den nire lekua. Espero dut gustuko dudan zerbaitetan ibiltzea, horretarako ikasten dugulako bakoitzak gustuko ditugun ikasketak. Hori izango litzake jende gaztearentzat nire aholkua, ez izatea inoiz beldur gustuko duzuna ikasteko eta ez dadila inoiz berandu izan.

"SARE SOZIALAK BIDE ONA ETA ERRAZA DIRA JENDEAK GURE LANA EZAGUTU ETA IKUSI AHAL IZATEKO"

OHARRAK

Tailerra ludotekan

Gure erraldoia sortzen tailerraren lehen saioa otsailaren 14an izango da, gurasoendako eta umeendako. Izen-ematea udaletxean da.

'Barre tourra'

Otsailaren 16an 18:00etan hasiko da Espaloian *Barre tourra* ikuskizuna. Sarrerak aurrez erosteko aukera dago, eta baita egunean, leihatilan.

Otsailaren ikastaro sorta Elgetako KZgunean, doan

Otsailaren 7tik 17ra bitartean, 09:00etatik 11:00etara, Android sistema eragilea duten gailuak erabiltzen ikasteko saioak izango dira kultura etxeko KZgunean. Otsailaren 18an, berriz, gaia izango da mugikorrerako lokalizazioa, entretenimendu eta osasun aplikazioak. Interesatuak udaletxean eman behar dute izena.



Elgetako Ostiada Oi! taldea, zapatuan, entsegua egiten Azkoitian. KOLDO IZAGIRRE

Ostiada Oi! gogotsu Espaloiko kontzerturako

Otsailaren 8ko Mendi Mendia Racing jaietan izango da Elgetako taldea. Badira urte batzuk agertokiak utzi zituztela; izan ere, duela sei bat urte egin zuten azken zuzenekoak. Barne Guda eta Azken Sustraiak taldeek ere egingo dute emanaldia

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Badira urte batzuk Ostiada Oi! taldeak emanaldirik egiten ez duela, eta ikusmina sortu du Mendi Mendia Racing jaiaren barruan egitekoak duten kontzertuak. Sorpresa atsegina izan da taldea gertutik jarraitu zuten guztiendako, eta, nola ez, Elgetako lagunendako.

Josu Azkarate, Iker Valle, Aritz Macarro eta Aniotz Birumbrales izango dira taula gainean, eta hasita daude emanaldia prestatzen. Betiko kantak prestatzen ari direla adierazi dute. "Gure kantuen errepasso bat egitea da asmoa", adierazi du Ostiada Oi! taldeko batera-jotzaile Iker Valle elgetarrak. Gustura entzungo dituzte punk-oi! taldearen jarraitzaileek, oroimenean gerratutako kantuak baitira askorrendako.

Lehenengo entseguak

Otsailaren 8ko kontzertua prestatzeko lehenengo egitekoak entseatzeko hasten izan da. "Ez da

erraza. Ez daukagu lokalik, materiala ere ez dago lehen moduan... Kideetako batek, Aniotz Birumbralesek, Kaleko Urdangak taldean jotzen du, eta haien lokalean elkartzen gara, Azkoitian", azaldu du Valle. "Badira urte batzuk Mendi Mendia Racing taldeko gazteak hurbiltzen zaizkigula joko dugun galdezka. Aurreko urteetan ez da irten,

baina aurten laurok animatu gara".

Ostiada Oi! taldetik zehaztu dute, dena den, ez dela taldearen itzulera. "Kontzertu bakarra planteatzen dugu. Mendi Mendia Racing taldeko gazteek merezi dutela uste dugu, eta nahi genuen gure aletxoak ipini, nolabait. Gero zer gertatuko den? Auskalo! Printzipioz, ez da itzulera".

Berriz elkartzea polita izan dela esan du Valle. "Gehiago entseatu beharko genuke, baina ez dugu lehen besteko denbora librerik, eta laurok kointziditza oso zaila da". Zailtasunak zailtasun, ordea, egin dituzte entsegu batzuk. Zapatuan egin zuten azkenetakoa. Argazkiak ateratzeko ere baliatu zuten aukera.

Gaztetxotan hasitakoak

14-15 urte inguru zituztela hasi ziren taldea osatzeko egitasmoarekin, eta 16 urterekin hartu zuten lokala. Sasoi hartan hasi ziren lehenengo kontzertuekin.

Ostiada Oi! taldeak disko bat kaleratu zuen. 2003an argitaratu zuten *Behin betiko* izeneko diskoa. Ordukoak dira *Antifascista*, *Skinhead 1969*, *Behin betiko*, *Punk-Oi!* eta *Euskadi* kantuak, besteak beste. Boskotea ziren orduan. Asier Landak, gerora, utzi egin zuen taldea. "Diskoa kaleratu eta gero ere sortu genituen kantu berriak, baina hor gelditu ziren", azaltzen du Valle. "Akaso, bazegoen aukera beste disko bat ateratzeko, baina ez genuen fundamenturik egin".

Goienaren Danbaka lehiaketan ere izan ziren. 2004ko abenduan egin zuten kontzertua, Espaloian.

2010. urtean jaitsi zen taldearen martxa. Ez zuten agurreko kontzerturik egin, eta 2013an elkartu ziren azken emanaldiak egiteko. 2013ko abenduan egin zuten azken kontzertua, Elgetan. Gaztetxean jo zuten.

Gogotsu kontzerturako

"Elgetarrak gara gehienak, eta herrian jotzea beti da berezia. Sumatzen dugu, gainera, jendea gogoz dagoela, eta gerturatuko dela pentsatzen dugu. Zirrara sortzen du horrek!".



NIRE USTEZ

OXEL EROSTARBE

Ozkarbik bidia eta norabidia baditu

Makiña bat andra-gizonek egin dogu lan 1967tik 2020ra Ozkarbi elkartian. Lan hau balorian jartzeko elkartian ardurak hartzia modukorik ez dago. Orduan konturatzen zara hamarkadaz hamarkada zenbat ekarpen egin dotzaguzen Elgetari.

Etorrizunera begira, aho batez erabakita daukagu bazkidiok herrira zabalik dagon elkartia gura dogula, gastronomikua izatiaz gain hainbat ekintza aurrera eruingo ditutana.

Adin askotako lagunak elkartzeko gune eroso eta aproposa da gurua. Elgetara bizitzera etorri diran hainbat gurasok bertan murgiltzeko baliatu dabena; erretiratuen beharrei erantzuteko Udalak daukan egitekuari modu on eta merkian erantzuten dotzana; elkartera gaztiak erakartzeko zailtasunei eta herriko gazteiek elkartzeko dauken biharrei txoko bat egokittuta erantzun dotzena; ekintzak gainerako elkartiekin batera bultzatu dabena –garagardo dastaketa, bertso afari, kontzertuak, mus txapelketa...–.

Nundik gatozen badakigu eta nora jua nahi dogun ondo zehaztuta daukagu. Hori barik ez dago etorkizuniki.

Domekan, bisita gidatua Intxortako lubakietara

Domekarako, otsailak 2, bisita gidatua dago antolatuta Intxortako ibilbide tematikora. Irteera 10:00etan izango da, Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentrotik –Espaloian–. Bisitak bi ordu eta erdi iraungo du. Interesatuak aurrez eman behar dute izena: 943 79 64 63 edo 943 71 89 11 edo turismo@debagoiena.eus.

Punk-oi! doinuak nagusi

Bergarako Barne Gudak eta Beasaingo Azken Sustraiak taldeak osatuko dute kartela Ostiada Oi! taldearekin batera. Barne Gudak orain gutxi ekin zion jotzeari, eta Beasaingo Azken Sustraiak taldeak ibilbide luzeagoa dauka. Sarrerak salgai daude Bergarako Arranoan eta Elgetako El Rincon de Lolan. Kontzertuetarako prezioa 5 euro da.



Barne Guda talde bergararra. JON ANDER ALBERDI

Egindakoei balioa eman eta berriak esku artean

Agintaldiko lehen zazpi hilabeteetan instituzioa barrutik ezagututa, proiektuen lanketan sartua dagoela adierazi du Udal Gobernuak, orain arteko lanen errepasoa eginda. Herritarren ekarpenekin sorturiko proiektu sortaren lanketarekin diharduela dio

Oihana Elortza OÑATI

Ekainaren 15ean egin zen alkate-makilaren esku aldatzetik zazpi hilabete pasa dira eta agintaldiaren orain arteko ibilbidearen "balorazioa positiboa" egin du asteen Udal Gobernuak. "Martxa onean goaz. Talde sendoa daukagu, lanerako gogoz dabilena. Serioski heldu diogu instituzioa barrutik ezagutzeko zereginari, hurrengo urratsak egiteko ezinbesteko izango zaigunaz jakitun. Hori eginda, aspaldi hasi ginen hainbat proiekturen aurrelanketarekin, eta jada gauzatu ditugu horietako batzuk", adierazi du prentsa oharrean Izaro Elorza alkateak.



Udal Gobernuako kideak mahaiaren bueltan. UDALA

Hainbat proiektu

Alkateak dio aurreko agintalditik martxan ziren beste zenbait egitasmoekin ere badihardute-la; kiroldegia eraberritzearekin, Natur Eskolaren birgaitzearekin, kaleko argiteria aldatzearekin eta jolas-parkeak egokitzerekin, adibidez. Esku artean dituen egitasmoen berri ere eman du Udal Gobernuak, eta dio, adibidez, Natur Eskolaren birgaitze lanen bigarren fasea esleitu dutela eta hilabete honetan hasiko dituztela lanak.

Hurretik egitasmoak jarraitzen izango duela ere eman du aditza Udal Gobernuak, orain arte LH1 eta LH2 mailetako ikasleendako sortutako unitate didaktikoak txertatzeko, tutorretza zerbitzua izango dute herriko hiru ikastetxeek. Beste zortzi unitate didaktiko berri ere landuko dira, LH3 eta LH6 maila arteko ikasleendako. Era berean, herriko ikastetxeen arteko ekintza bateratuak bultzatzen jarraitzen dutela ere gaineratu du. Eskola Bidea egitasmoaren barruan, berriz, bizikletaren eta patinetearen erabilerrari buruzko datuak eta aholkuak biltzen dituen eskuorriak egin gura ditu.

ZORTZI UNITATE DIDAKTIKO BERRI LANDUKO DIRA HURRETIK EGITASMOAN

Gazteen emantzipaziorako lagungarri liratekeen egitasmoak lantzen ari dela ere iragarri du, aurrekoek aparte. "Emantzipazio dirulaguntzen oinarriak egungo egoerara eta beharretara egokitzeko lanketarekin eta bestelako egitasmoak aztertzen" ari da, adibidez. Bestetik, herriko ikasleendako ikasketa guneen eskaintza zabaltzeko asmoa ere baduela esan dute Udal Gobernuko ordezkariak, eta horretan ari direla lanean.

Jarraikortasuna dutenak

Baina egiteko asmoa duen proiektuez gain, zazpi hilabete hauetan egin dituenak era aipatu ditu Udal Gobernuak, baita lehendik martxan zeudenetako batzuei segida ematen ari dela. Horietako bat da, esaterako, Hiri Antolamenduaren Plan Orokorra. "Herritarren ekarpenak jasotze-

ko zenbait saio antolatu dira, euren proposamenak planean txertatuz. Bestetik, lanketa sakonean murgildurik da Gobernantza eta Parte Hartze araudia. Bada, idatzia dago behin-behineko dokumentua, herriko eragileekin kontrastatua eta haien ekarpenak jasota. Ekarpentok kontuan izanda idatziko da behin betiko dokumentua", dio oharra. Partaidetza prozesuan jasotako batzuk gauzatu direla ere badio: Olakuako kirol pista egokitzea, komun publikoak eta zabarrontzi kopurua gehitzea.

Udal Gobernuak dio arreta berezia duela jarrita berdintasunaren alorrean eta "urrats sendoak egiteko konbikzioz" diharduela. Horren adibide aipatzen ditu indarkeriaren aurrean laguntzak emateko egindako protokoloa eta Selma Huxley Barkham bekari jarraipena ematea. Herriko enprekin eta ostalaritza sektoreko ordezkariekin egindako bilerak eta martxan jarritako merkataritza biziberritzeko plana ere aipatzen ditu orain arte egindako lanen artean. Ingo Xonau!, BiziPoz eta Poz egitasmoek jarraipena izango dute.



Munazategin jarri duten komuna. M.U.

Dagoeneko erabilgarri dago Munazategiko komun publikoa

Olabarrieta eta Asentzio arteko Aiastru baserri inguruan jarriko dute eta lanak hasi dituzte dagoeneko

O.E. OÑATI

Partaidetzako aurrekontuetan herriko paseo tokietan komun publikoak jartzeko eskaera jaso zuen Oñatiko Udalak herritarrengandik, eta horietako bat erabilgarri dago dagoeneko. Munazategin jarri dute. Bigarrena jartzeko egokitzapen lanak egiten ere hasi dira.

Berez garbitzen diren komunak Munazategin, bidegorriaren ondoan, jarri dute dagoeneko erabilgarri dagoena. Komun Lorke Systems SL enpresak instalatu du, 37.700 eurotan; obra zibila

eta azpiegitura lanak udal brigadak egin ditu. Komunaren ondoan iturri bat ere jarriko dute. Partaidetzako aurrekontu horietan, Torreauzo-Madalena eta Olabarrieta-Asentzio ibilbideetan jartzea komunak eskatu zuten herritarrek. Horrela, bigarrena Olabarrietan jarriko dute, justu Aiastru baserri aldera, errepide azpiko pasabidearen ondoan. Udal brigadako langileak ari dira tokia egokitzen. Hau ere berez garbitzen den komuna izango da eta argindarra eta ur-hornidura bertaraino eramango dute.

Euskal Errepublikaren eguna ospatuko dugu hilaren 15ean

Azoka egingo dugu Oñatin eta Goiener eta Izarkom proiektuak ezagutzeko hitzaldiak ere antolatu ditugu

Goiena komunitatea EHUN / OÑATI

EHUN otsailaren 15ean Euskal Errepublikaren eguna antolatzeko jaio den mugimendu herritarra da.

Ekintza konkretu horren birtartez eta etorriko diren beste batzuen bidez, Euskal Herriko herri, auzo, lantoki, lagunarte eta norbanakoak ehuntzeko bokatua duen mugimendu gara. Sinetsita gaude Euskal Errepublika dela egunerokoan eragiten diguten arazo eta kezka konpontzeko beharrezkoa dugun erreminta. Mugimendu horrek

arrakasta izango badu, behetik gora egin beharko du goitik behera beharrean. Otsailaren 15ean, hainbat arlotan burujabetza lantzen ari diren elkarteekin azoka bat ospatuko dugu herriko plazan, 11:00etatik aurrera. Besteak beste, Goiener, Izarkom, Koop57 eta Ortuzabal proiektuak ezagutzeko aukera egingo da. Datozen egunetarako bi hitzaldi antolatu ditugu: otsailaren 5ean Goiener proiektuari buruzko hitzaldia egingo da eta 12an Izarkom-i buruzkoa. Biak dira kultura etxean, 18:30ean.



Digitalizatu duten kantu-liburuetako baten jatorrizko azala. x.u.

Paperetik digitalera pasa dituzte 29 kantu-liburu

Bidaurreta eta Santa Ana komentuetan, Araotzeko eta Oñatiko elizetan eta Arantzazuko santutegian gordetzen zituzten XV. eta XX. mende bitartekoak dira digitalizatu dituztenak, "beraien bizia luzatzearen aldeko asmoarekin"

Oihana Elortza OÑATI

2019. urtean zehar, Xabier Ugarte, Joxe Fernandez eta Juanjo Iturrioz –Donosti Ereski gregoriar scholaren izenean– izan dira digitalizazio-lan hau burutu dutenak. "Inprentarekin, batik bat, liburu eder eta izugarri hauek, sortzerako horrenbeste lana behar izan zutenak: ahaztuak, zokoratuak eta baztertuak geratu ziren. Denborak kantu liburu hauetako asko irentsi egin ditu, pipiak janda, hezetasunez hondatuta eta giza-kiaren aldeko tratu txarra jasota: panderoak eginez, lanpara tulipak... Egoera honetaz jabetuta, eta gure kultura-ondasunaren zati garrantzitsu bat zela ikusita, Oñatiko hainbat liburu digitalizatzea erabaki genuen, beraien bizia luzatzearen aldeko asmoarekin. Digitalizazioak dokumentu horien babesa eta iraupena bermatzen duelako eta, horrez gain, haien atzipena izugarri errazten denez, edukia ere hedatzen du", dio hirukoteak.

Belaunaldiei transmitzeko

Gure arbasoengandik jasotako ohiturak, kanta, objektuak, historiak eta antzerakoak, "gure kultura-ondarea osatzen duen hori guztia kontserbatzera behartuta gaudela" uste du hirukoteak, "hurrengo belaunaldiei transmitzeko". Eta horregatik egin dute hau. Eta gaineratu: "Kultur ondare arkitektonikoa, arkeologikoa, industrial eta paisaia-ondarea begi bistakoak izanik, badugu hori guztia kontserbatzearen aldeko kontzientzia sozial nabarmen bat. Bestelako kontsiderazioa izan dute ikusezin geratu diren beste ondare material batzuek: artxibategietan (kasu onenean) eta eliz-komentuetan dauden kantu-liburuak, adibidez, musika izan ala ez. Ahaztuak, baztertuak eta kontserbaziorako inongo instituzio-laguntzarik ez dutelako, egoera larrian daudenak".

EUSKARRI DIGITALEAN ERAMANGO DITUZTE DIGITALIZATUTAKO LANAK JATORRIZKOAK ZEUDEN EGOITZETARA

Orain hondatuta ikusten diren dokumentuen eta libururen sorreran lan handia egon zela gogorarazi dute oñatiarrek: "Erdi Aroan sortutako gregoriar kanta, lehenik ahoz-belarriz ikasiz mantentzen zirenak, halako batean kantu-liburuan biltzen hasi ziren. Liburu bakoitzak izugarrizko lana zekarren" eta "era guztietako artisauak" behar zirela diote horrelako kantu-liburuak egiteko.

Lehenengo lana baloratuz

Lana bukatuta, digitalizatutako kantu-liburuak euskarri digital batean eraman gura dituzte jatorrizkoak gordeta egon diren egoitzetara. Eta horixe egingo dute datozen egunetako batean. Hiru egileak elkartuko dira eta eskura entregatuko dizkiete digitalizatutako materiala.

Bertsolari gazteen sariketa egingo da Oñatin otsailean

Euskal Herriko hamabi bertsolarik hartuko dute parte eta hiru saio egingo dira: bi kanporaketa eta finala

O.E. OÑATI

Beste bertso txapelketa bat antolatu du herriko Txinparta bertso eskolak: Dizdaitte. Bertsolari gazteen sariketa izango da eta datorren astean izango da lehen saioa.

Otsailaren 8an hasiko da

Dizdaitte sariketa honek hiru saio izango ditu eta Euskal Herriko herri ezberdinetako bertsolariek hartuko dute parte. Hamabi izango dira, guztira; horietatik hiru oñatiarrek –Maidder eta Urko Arregi anaia-arre-

bak eta Aitor Tatiegi–. Gainerakoak gipuzkoarrak, bizkaitarrak, nafarrak eta Iparraldekoak izango dira. "Gazteen artean maila oso altua duten bertsolariak etorriko dira. Nafarroatik datorrena, esaterako, hango txapelketako finalera iritsi zen".

Guztira, hiru saio izango dira: otsailaren 8an Pako tabernan lehenengoa, hilaren 15ean Ikatz tabernan bigarrena eta 29an hirugarrena, finala, Antixena gaztetxean. Lehenengo biak 17:30ean izango dira eta azkena, 19:00etan.



OÑATIKO UDALA

Arrikruz kobendako saria

Kudeaketarako bikaintasun saria jaso dute Arrikruz kobek Madrilan, Koba Turistikoen Elkartearen eskutik. 2018ko ekitaldian Arrikruz-Oñatiko Kobak Arrikruzeko lehoiaren inguruan egindako lana saritu du elkarte horrek, lehoiaren inguruan egindako hedapen eta hezkuntza lanagatik. ACTE Koba Turistikoen Elkartearen jaso zuen saria Xabier Igartua zinegotziak.

Eltziako gimnasia sartzeko txartela eskatu egin behar da

Eltziako kirolgunera sartzeko txartela behar da eta hori eskatzeko epea aste honetan zabaldu dute. Eltzian bertan eska daiteke egun hauetan, edo Zubikoa kiroldegian, bestela, otsailaren 3tik aurrera. Eltziako gimnasia nahiz fitness ekintza gidatuetako erabiltzaileek txartela beharko dute instalaziora sartzeko otsailaren 3tik aurrera.

Aloñako Igoeran izena emateko txanda oñatiarrendako

Oñatin erroldatutako oñatiarrek asteburu honetan dute aukera Aloñako Igoera proban izena emateko. Guztira, 100 dortsalek egongo dira eskuragarri, eta, horiek agortzean, korrikalari oñatiarrek otsailaren 8ra bitartean itxaron beharko dute dortsala gainontzeko parte-hartzaileen moduan lortzeko. Izena emateko: www.sailkapenak.com.

Kantari Oñatin: ahotsa bero-bero, euskal kantuen festa bizi-bizi

200 neska-mutiko oñatiar izan dira gaztelekuko oholza gainean euskal kantuak abestu eta dantzatzen. Sabelean tximeletak, ilusioa, poza eta irribarrea ahoan nagusi izanda, gozatu eta gozarazi egin zituzten bertan bildutako ikus-entzule guztiak



Kantari Txikiak taldeko kidea abesten.



Txantxikutarrak taldeko kidea kantuan.



Parte-hartzaile bat abesten.



Ilargia taldeko partaideak giza dorrea egiten. ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO



#Oreinak taldeko kideak *Bizitzari txistuka* kantua abestu eta dantzatzen.



Kantuz eskertu kantua abestu eta dantzatzen 1, 2, 3, 4, Goazen! taldeko lagunak.



Eskuetan kantua abesten.



Koloredun kamisetekin mutil taldea ikuskizuna eskaintzen.



Onenak taldeko kideak saltoka eta koreografiako pausoak dantzatzen.



Parte-hartzaileak eta aurkezleak matxinsaltoen pare saltoka.



Neska abesten.




Basatiak taldeko kideak *Aldapan gora* kantua abestu eta dantzatzen.



Aurkezleak eta saioko partaideak, grabatutako emanaldi baten amaieran.



Aiert Alberdi, gonbidatu berezia, emanaldia eskaintzen.



Deabru Beltzak taldeko kidea abesten.



Rock izar handiak gitarra pertsonalizatuekin.



Amaia Txinturreta eta Beñat Arizabaleta partaideekin batera saio amaierako kantua abestu eta dantzatzen.

7. ALDIA
Kantari
 DEBAGOIENA

Aretxabaleta eta Eskoriatzako partaideok, eman azken errepasoa abestiari eta koreografiari!

ENTSEGUAK
 Otsailaren 8an eta 9an, Arkupen

IKUSKIZUNA
 Otsailaren 15ean eta 16an, Arkupen.

Animatu eta etorri neska-mutikoekin kantuan eta dantzan egitera!

Informazio gehiago: 943 25 05 05 / 688 69 00 04 / <https://goiena.eus/berezak/kantari-7-aldia>

goiena



Debagoiena Kirol Sarietako hamalau sarietako protagonistak taula gainean, ekitaldia amaitutakoan. IMANOL SORIANO

Bergaran geratu dira sari nagusiak eta bailarara zabaldu dira aitortzak

DKS'19 Euskadi Fundazioko ziklista Mikel Aristik irabazi du urteko Kirolari Onenaren Saria, eta ibarrekoek Mikel Linazisoro aukeratu dute Herritarren Saria emateko. Markel Irizarrek, berriz, 'dobletea' egin du, Oñati Saria eta Kirol Ibilbidearena jasota

Xabier Urzelai BERGARA

"Taldea berriari hasi naiz eta ilusio handiarekin nago. Hasierak beti dira zailak eta lan mordoa egin behar da, baina ilusioa badago eta egingo dugu". Mikel Aristiren adierazpenak dira, Bergarako Seminarixoko agertoki ginetik egindakoak, 2019ko Kirolari Onenaren Saria jaso berriaren.

Izan ere, Bergarako txirrindulariarena izan zen arratsaldeko azken saria, baina lehena kuadrilla polita igota zegoen taula gainera. Esaterako, fina-

listen artean sariaren atarian geratu zen Mikel Linazisoro: "Baina Herritarren Saria jaso izana oso pozgarria da, horrek esan gura du jendea mobilizatu egin dela botoa emateko orduan". Izan ere, Kirolari Onenarena ez, baina Herritarren Saria jaso zuen eskalatzailer bergararrak, boto guztien -1.600 izan ziren-%24 jasota.

Jokoetarako txartela, martxoan

Hurrengo erronka hilabete eskasera izango du Linazisorok, Tokioko Olinpiar Jokoetan ego-

teko aukera du eta, baina, gauzak diren moduan, Medikuntzako azterketek goitik behera baldintzatu diote prestakuntza. Hala, Bergarakoak garbi du zerk duen lehentasuna.

Sari Berezia, Antxintxikak

Auto istripuan elbarri geratu zen Joseba Azkarate oñatiarra lagun, Antxintxikako hainbat ordezkari igo ziren taula gainera. Kirol egokituaren alde egindako lanagatik jaso zuten saria, eta Azkarate bera da lan horren testigu: "Lehen ere esan

izan dut kirola dela nire bizitzako arnasa, eta orain, Antxintxika taldea dira nire birrikak". Hala, klub barruan kirol egokituko sailari *egurra* ematea da orain euren asmoa: "Halako ekimenak ez ditugu jendearen txaloak jasotzeko egiten, beharra ikusten dugulako baizik. Baina egia da, halako errekozimenduak jasotzea polita da", adierazi zuen taldeko presidente Patxi Torresek.

Giroa, eskoriatzarren esku

Eskoriatzako areto futbol talde nagusia iaz maila nazionalera igo izanagatik saritu zuten, eta, Manuel Muñoz kiroldegian jokatzen duten bakoitzean harmailetan egoten den giroa parekatuz, ekitaldiari kolorea eman zioten -jokalari guztiak Eskoriatzako elastikoa jantzita joan ziren Seminarixora-. Kuadrilla ederra batu zen, eta taldeko kapitain Aratz Kortazarrekin batera beste bospasei lagun igo ziren taula gainera: "Egia da iaz oso denboraldi ona egin genuela eta aurten igarri egin dugula beste kategoria batean gaudela. Baina asmoa da bigarren itzulian gora egitea".

Kirol Ibilbidearen Saria -eta Oñatiko Udalarena- Markel Irizarrendako izan zen, eta etxeokoe jaso zuten saria, Irizar bera kanpoan dabil eta. Bideo bidez eman zituen eskerrak.

Bestalde, bailarako kirolaren alde horrenbesteko lana egin dutenek ere aitortza jaso zuten, eta, hain zuzen, udaletako ordezkariak aitortu zieten ordaindu ezin daitekeen lan hori.

Sari bereziak

Kirolari Onena
Mikel Aristi ziklista.

Kirol Talde Onena
Eskoriatza Kirol Elkarte.

Sari Berezia
Antxintxika triatloi Taldea.

Herritarren Saria
Mikel Linazisoro.

Ibilbidearen Saria
Markel Irizar.



DKS'19

Hauek dira hamalau saridunak



ANTZUOLA SARIA

Zortzi urtez Aspeko pilotari izandako Aitor Mendizabal pilotariak Beñardo Kortabarria alkatearen eskutik jaso zuen saria.



ELGETAKO SARIA

Iñaki Olaortuaren izenean haren ama Tere Deskargak eta Olatz Olaortua ahizpak jaso zuten saria Iraitz Lazkanoren eskutik.



ARRASATEKO SARIA

Fernando Zufiriak ondo merezitako saria jaso zuen Maria Ubarretxena alkatearen eskutik.



KIROL IBILBIDEAREN SARIA

Markel Irizarrek bi sari irabazi zituen. Argazkian, Soralue Kooperatibako Javi Gonzalez, Alaitz Perez de Arenazarekin eta Aimar eta Unai semeekin.



ARETXABAETA SARIA

Oihana Aldai Kordoban jokatzan dabilenez, haren ahizpa Itsasok jaso zuen Unai Elkoro alkatearen eskutik saria.



BERGARA SARIA

Aitor Aranzabal Kirol zinegotziak saritu zuen herrian eskubaloia alde horrenbesteko lana egin duen Josetxo Muniategi entrenatzailea.



GATZAGAKO SARIA

Leintz Gatzagako Udaleko Kirol zinegotzi Beñat Agirreurretak eman zion saria Jose Inazio Belokiri, herrian pilotari gazteekin urteetan egindako lanagatik.



HERRITARREN SARIA

Botoen %24rekin irabazi zuen Mikel Linazisorok saria. Argazkian, Laboral Kutxako ordezkari Iñaki Goñirekin.



TALDE ONENAREN SARIA

Maila nazionalera igo izanagatik Eskoriatza areto futbol taldeak jaso zuen saria. Argazkian, Goiena Taldeko zuzendari Aitor Izagirre, Aratz Kortazarrekin.



OÑATI SARIA

Markel Irizarrendako izan zen saria. Alaitz Perez de Arenazak jaso zuen Izaro Elorzaren eskutik saria, Aimar eta Unai semeek lagunduta.



ESKORIATZA SARIA

Urteetan areto futbolaren alde egindako lanagatik jaso zuen Narciso Pavok Joserra Zubizarretaren eskutik saria.



ARAMAIOKO SARIA

Aitor Ugarte mendi lasterkariari amak, Igone Erizek, eman zion saria. Ekitaldiko une hunkigarrietako bat izan zen.



SARI BEREZIA

Antxintxikak kirol egokituaren alde egindako lanagatik jaso zuen saria; Errekako Cristina Etxegoienek eman zion saria.



KIROLARI ONENAREN SARIA

Euskadi Fundazioko ziklista Mikel Aristi aukeratu dute 2019ko kirolari onena. Argazkian, Ekide Group-eko zuzendari Oscar Sevillanorekin.



Garazi Orobengoa eta Beñat Agirreurreta zinegotzia, Jose Inazio Belokirekin.



Xabi Urzelai eta Goiatz Arana kazetariek aurkeztu zuten martitzeneko ekitaldia.



Eskoriatza Kirol Elkarteko areto-futboleko taldea, agertoki gainean. ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO



Bergarako Shotokan karate taldekoek erakustaldia eskaini zuten.



Elkoro, Oihana Aldairen senideekin.



Fernando Zufiria, bere gertukoekin.

"Halako sariak eskertzekoak dira, pozik nago"

MIKEL ARISTI KIROLARI ONENAREN SARIA

laz Portugalgo Itzulian etapa bat eta Limousingo Tourrean beste bat irabazita, denboraldi bikaina burutu zuen Mikel Aristi txirrindulariak (Bergara, 1993) eta hori izan da Debagoieneko Kirolari Onenaren Saria jasotzeko arrazoi nagusia. Pozik hartu du saria eta, era berean, denboraldiari aurre egiteko gogotsu azaldu da.

Esperotako saria izan da zuretzat?

Aukerak izango nituela banekien, baina ez nuen espero. Zorionez, oso kirolari onak ditugu bailaran, eta ez zen erraza. Guztiok egiten dugu lan handia, eta horrelako sariak eskertzekoak dira, pozik nago. Beraz, eskerrak eman nahi nizkieke nirekin akordatu diren guztiei.

Euskadi Fundaziora itzuli zara. Zer sentitzen duzu?



IMANOL SORIANO

Lehen ere aritu nintzen Euskadi Fundazioan, baina esan daiteke talde berri bat dela. Hala ere, etxera itzultzea bezala da niretzat. Orain arte ere etxean moduan sentitu izan naiz, baina Euskal Herrian jarraitzen dut, etxe giroan, eta jendea ilusio

askorekin ikusten dut. Jende gazte asko dago taldean, ilusioa arnasten da.

Kolore laranja ere itzuliko da. Garai berri bat markatuko duzue zuek ere?

Txirrindularitzan gabiltzan guztiok amestu izan dugu noizbait laranja janzea, eta, nahiz eta momentu hauetan esanahi bera ez izan, ilusio handiarekin jantzi nahiz laranja kolorez; gogo askorekin hartzen dut urte berri hau.

Zeintzuk izango dira denboraldi berri honetan taldearen helburuak?

Hasierak beti izan ohi dira zailak, baina esango nuke sabaia oso altu daukagula oraindik, eta ikusteko dagoela noraino heltzeko gai garen. Lasterketa onak ditugu aurretik, eta lan gogorra daukagu egiteko. Beraz, ea gorantz joaten garen apurka.

Eta helburu pertsonalak?

Urtero moduan, apurka-apurka konfiantza irabazten joan eta beste aurrerapauso bat ematea izango da nire helburu nagusia. Pasa den denboraldian, puntualki, maila txukuna eman nuela esango nuke, eta aurtun gustatuko litzaidake konfiantza gehiago edukitzea. Beti nahi izaten dut gehiago; iazko denboraldian bi garaipen lortu banituen ere, gustatuko litzaidake kopuru hori hobetzea aurtun. Dagoeneko hasi gara horretarako gogor lanean.

Taldekideei dagokienez, zer moduzko sentsazioak dituzu? Gehienak ezagutuko dituzu.

Hala da. Gehienak ezagunak dira, eta asko lagunak ere bai. Hasieran, bakarren bat edo beste ez nituen ezagutzen, baina dagoeneko guztiok ezagutzen dugu elkar. Egon ginen egun batzuk guztiok batuta, eta oso giro polita dago taldean. Esango nuke oso denboraldi oparoa daukagula aurretik, baina ikusiko dugu.



Mikel Linazisoro, kuadrillako lagunekin.



Joxean Iñarrak bere ikasle baten gainean zegoen berenjena bat moztu zuen.



Mendizabal, zinegotzi eta lagunekin.



Aitor Ugarte, bere anaiekin eta amarekin.



Iñaki Olaortuaren arreba eta ama.



Bergarako Arragoa taldeak emanaldia eskaini zuen ekitaldia girotzeko.



Seminarioxoa lepo bete zen ekitaldiaz gozatzeko.



Joseba Azkarate, udal ordezkariekin.

Saria jaso ondorengo sentsazioak



PATXI TORRES
SARI BEREZIA, ANTIXINTXIKA

"Sari honek esan nahi du guk egiten ditugun gauzak ikusten direla; ez dugu horregatik egiten, baina polita da. Beti izan gara lagun talde umil bat, gauzak bihotzetik egiten dituen, eta pozik gaude aitortza honekin. Triatlói egokituko saila sortu dugu, eta, Joseba Azkaratez gain, beste bi mutil batuko zaizkigu. Euskal Herri mailan ez dago halako sailik; beraz, gure atek zabalik daude edozeinentzat".



ARTAZ KORTAZAR
TALDE ONENAREN SARIA, ESKORIATZA KE

"Sari hau jasotzea lan ona egin dugun seinale da, eta talde guztia oso pozik dago sariarekin. Urte dezente generamatzen Euskal Ligan; azkenean, iaz lortu genuen maila nazionalera igotzea. Nabaritzen ari gara kategoria honetan dagoen maila, beste erritmo bat dute taldeek, baina ea atzetik aurrera egin eta mailari eusteko gai garen, hori da gure helburua denboraldi honetan".



MIKEL LINAZISORO
HERRITARREN SARIA

"Pozik nago, herritarren babesa izan dudalako sari hau jasotzerakoan. Babes handia sumatu dut; beraz, eskerrik asko guztioi! Lagun guztiak ibili dira bozkatzan, baina ez nuen espero irabazteko adina izango zenik. Iaz, senior mailan hasi nintzen, eta nahiko maila onean. Lehen urtea izango da eskalada Olinpiar Jokoetan egongo dena, eta martxoan ea Tokiorako sailkatzeko aukerarik daukadan".



MARKEL IRIZAR
KIROL IBILBIDEAREN SARIA

"Eskerrak ematea nahiko nuke. Hasteko, Oñatiko Udalarai, Oñati saria ematerakoan nirekin akordatzegatik. Goienari ere eskerrak eman nahiko nizkioke, DKS antolatzeagatik. Azkenik, nire emazte Alaitzi ere eskerrak eman nahiko nizkioke. Egin dudan ibilbidea ez litzateke posible izango bera gabe, eta plazera eta ohorea da saria berak jasotzea nire orde, kanpoan nago eta".

"Netflix ere erakusleiho ona izango da guretako"

AITOR ARREGI 'LA TRINCHERA INFINITA' FILMEKO ZUZENDARIA

'La trinchera infinita'-k bi Goya sari eskuratu zituen zapatuan: soinuarena eta Belen Cuestak aktore onenarena; "potoloenak", Almodovarren 'Dolor y gloria' filmarendako

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

Goya sariaren zurrumbiloba pasatuta, Moriartikoak "oso pozik daude" egin duten ibilbidearekin. Astean Goiena telebistako *Hemen Debagoiena* saioan izan da Aitor Arregi zuzendari oñatiarra.

Zorionak? Pozik? Ze aho zapore utzi dizuete bi sariek?

Bada, izan zitezkeela gehiago, eta baita gutxiago ere. Oso aurkari indartsuak ziren, Almodovarren urtea da, eta Amenabar takila lehertzen duen zuzendari bat, eta gu hor tartean, nola ez gara pozik egongo?

Esperientziak laguntzen du, ezta?

Duda barik; jaialdi batean sari pila bat jaso ditzakezu, eta hurrengoan ezer ez; eta orain goian, gero behean, dinamika horretan erortzea ez da ona. Esperientziak erakutsi digu filmak egin duen eta egiten ari den ibilbideagatik oso pozik sentiarazten. Gainera, bi Goya horiek ilusio handia egin digute: alde batetik, soinu arloko Xanti Salvadorrek, Iñaki Diezek, Alazne Ametzoyk eta Nacho Royo-Villanovak egin duten lana ikaragarria izan delako; eta, bestetik, Belen Cuestari ere eman beharrekoa zela uste dugu; zentzu horretan, bada, bi Goya oso gozo guretako.

Handia-k hamar Goya sari jaso zituen, baina halakorik ez.



Aitor Arregi zine zuzendaria. GOYA SARIAK

Hori da, argazkiaren negatiboa izan da oraingoan.

Almodovarren Dolor y gloria filmak jaso ditu sari potoloak. Esperotakoa, zuk aipatutako perspektiba horretatik begiratuta?

Urte aberatsa izan du eta Oscar sarietan ere bi izendapen ditu; hortaz, faborito argia zela bagenekien; egia da Forque sarietan film onenarena jaso genuenean sinisten hasi ginela akaso gerta zitezkeela, baina normalena gertatu zen eta barneratuta genuen, eta ez ginen triste, inondik inora.

Ondo ospatu zenuten gero, gala ostean izan zen jaian, ezta?

Hala da, bai; berandu arte oso gustura ibili ginen; lantaldekoetz gain, familiakoak eta lagunak ere han ziren.

Halako hainbat ekitalditan izan zarete aurrez; zer iruditu zitzaizun?

Ondo egon zen, sorpresa handirik barik. Halakoetan, pasiloan Banderasekin, Almodovarrekin... elkartzen zara, eta bitxia eta polita da hori.

Orain artean 23 sari eskuratu ditu La trinchera infinita-k; zelan baloratzen duzue egindako bidea?

Orain dela hilabete batzuk, sinatuko genuen izan duen harreara; zuzendari handiek ere esaten dute ez dakizula aurrez filmarekin geratuko dena.

Ze bide egingo du aurrerantzean?

Hilabete barru Netflix-en jarriko dute, eta horrek hainbat jaialditara joatea mugatuko du. Mundu osoan ikusi ahal izateak asko poztzen gaitu. Deseatzen gaude izango duen harrera ikusteko; gogora ekarri behar da filma Netflix-ek diruz lagundu zuelako bukatu zela.

Proiektu berririk esku artean?

Baditugu motibatzen gaituzten hainbat proiektu, baina, oraingoz, ez dugu ezer erabakita; aurretik, indarberritzeko beharrezko atse-den txikia hartuko dugu.



Miren Amuriza eta Askoa Etxebarrieta, *Gorria* ikuskizunean. LEIHOR ELORRIAGA

Kopla flamenko-euskaldunekin osatutako 'Gorria' ikuskizuna

Miren Amuriza bertsolariak eta Askoa Etxebarrieta 'La Pulga' dantzariak eskainiko dute, bihar, Seminarixoan

A. Aranburuzabala BERGARA

Bertsozale Elkarteak 2003an sortu zuen Lanku kultura enpresak kultura ekimenak sustatzeko beka eskaintzen du urtero, eta iazkoak emandako fruitua da Berrizko bertsolariak eta Gasteizko dantzariak sortu duten *Gorria* ikuskizuna. "Bertsolaritzaren eta flamenkoaren arteko fusioa baino gehiago" dela diote egileek; hain justu, bertsolari baten eta flamenko-dantzari baten arteko elkarrizketa prozesu baten emaitza" dela zehaztuta.

Taularen gainean bi lagun dira, baina *Gorria*-ren atzean jende gehiago dago: Eder Aurre (jantziak); Lierni Eizagirre (atreztoa); Ion Chavez (argiztapena); Jon Garagarza (soinuaztapena); Aitor Escobar Arrasateko gitarrak-jolea; Adrian Larrañaga, perkusioan; eta Aitor Ariño musika grabaketa lanetan.

Gorria, ikuskizunaren haria

Hamar piezatan banatuta dagoen 50 minutuko obra da. Amurizak sortutako hitzekin kopla neurrikoak dira testu guztiak. "Sorta bakoitzak gai bat dauka eta modu batean edo bestean kolore horrekin lotuta dago, batzuetan, sinbolikoki, eta giroagatik, edo esplizituki berba horren konnotazioak azaltzen direlako", dio bertsolariak. "Gaiteka zabalda da", dio dantzariak, eta zera gaineratu du: "Hitz ederrak dira, eta ahots oso politarekin kantatuak. Sekulakoa lana egin du koplei flamenko kutsua ematen".

Publikoak ondo hartuta

Iruñean eta Legutian "arrakastaz" eskaini ondoren, Bergarako Seminarixoan izango dira bihar, zapatua, 19:00etan. Sarrerak zortzi eurotan eros daitezke, [Tickets.kutxabank.es](https://tickets.kutxabank.es) atarian eta Seminarixoko leihatilan.

HARIRA

GOIENA TELEBISTA, ELKARRIZKETA SAIOA
OTSAILAREN 4AN, MARTITZENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN
GONBIDATUA: JOSEBA ASIRON, IRUÑAKO ALKATE OHIA
ENEKO AZKARATEK AURKEZTUTAKO SAIOA

goiena
Zu hemen zaude.





Amaia Apalauza. ELKAR



Sonia Kolaczek. WIKIPEDIA



Joxe Mari Berasategi. ELKAR

Jokin Zaitegi bekaren irabazleak erabakita

Amaia Apalauza eta Sonia Kolaczek Olga Tokarczuk idazle poloniarren lan bat euskaratuko dute. Joxe Mari Berasategik, berriz, Peter Handke idazle austriarrak idatzitako lan bat. Poloniarra da 2018ko Literatura Nobel Saria; austriarra, 2019koa

Miren Arregi ARRASATE

Urtebeteko isilaldiaren ondoren, joan zen urtean Literaturako Nobel Sari bikoitza eman zuen Suediako Akademiak. Honela, 2018ari dagokiona Olga Tokarczuk idazle poloniarri eman zioten eta 2019ko Nobel Saria, ostera, Peter Handke idazle austriarrari.

Horiek horrela, Literaturako Nobel saridunen lanak euskaratzeko baliatzen den Jokin Zaitegi sariketarako astean ebatzi ditu aurtengo bekaren irabazleak. Modu horretan, Olga Tokarczuk poloniarren lan bat euskaratzeko ardura izango dute Amaia Apalauza eta Sonia Kolaczek. Berriz, Peter Handke idazle austriarraren lana euskaratzeko enkargua Joxe Mari Berasategik jaso du.

Urte bukaerarako kalean

2020 urtea bukatu aurretik argitaratuko ditu Elkarrek bi lanok. Liburuak dira Tokarczuk-en *Prowadz swój plug przez kosci umarłych* eta Peter Handke-ren *Die Angst des Tormanns beim Elfmeter*. Behin betiko euskarazko izenburua oraindik jakiteke, honakoak izan litezke proposamenak, hurrenez hurren: *Eraman zure goldea hildakoen hezurren gainean* eta *Atezaina penaltiaren beldur*. Itzuliko diren liburuak aukeratzekoan, aurrez autoreari eta haren lanari buruz ikertzen dute antolatzaileek eta hainbat aditurekin kontrastatu ere bai. Aurtengo ediziorako aukeraturako bi liburuei dagokienez, esan behar da, batetik, ibilbide luzea duen Peter Handke austriarraren gaztetako liburu bat aukeratu dutela. "Nobela labor bat da, bere garaian abangoardia izan zena, kontatzeko teknika berritzaileak zituelako", dio Elkarreko Xabier Mendigurenek. Tokarczuken liburua, bestetik, nobela beltza eta ekologista da, idazlearen pentsamoldearen adierazgarri.

Jokin Zaitegi sariketa AEDK eta Elkarrek antolatzen dute 2002. urtetik eta azken urteetan, Arrasateko Udalaren eta Laboral Kutxaren laguntza izan du. 1986an abiatu zuten sariketa, orduan zaila zen hainbat arlo edo gairi buruzkoak euskaraz irakurtzeko aukera emateko. Gero 90eko hamarkadan, Nobel Literatura sariak itzultzea erabaki zuten eta 2002tik beste dimentsio bat du sariketarako, Elkar argitaletxea baitute bidelagun.

keztera joango dira Arrasatera. Giro bereziak sortuko dituen taldea da Ro. Jarraitzeko, Xabi Bandiniren, Iruñeko abeslariaren, txanda izango da, otsailaren 20an. Elektro-pop zuzena eta bizia egiten duen Kerobia taldeko abeslari ohiak bigarren diskoa kaleratu du bakarka, *Biba!* izenekoa. Azkenik, hip-hop eta elektronika nahasten dituen Barakaldoko Revolta Permanent taldea izango da Arrasaten, otsailaren 27an. Kontzertuak 22:00etan hasiko dira.

Mocker's, Ro, Xabi Bandini eta Revolta Permanent otsailean

Rock, elektronika eta hip-hop doinuak, datorren hileko Kooltur Ostegunak egitarauko protagonistak

M.A. ARRASATE

Mocker's taldeak irekiko du otsaileko Kooltur Ostegunak egitasmoa. Otsailaren 6an, rock gogorra egiten duen Durangoko taldeak kontzertua egingo du Arrasateko gaztetxean. Taldeak

bigarren diskoa aurkeztuko du: *Oreka*.

Otsailaren 13an, Azkoitiko Ro taldearen txanda izango da. Mataderon sortutako taldeak post-rocka egiten du, musika iluna eta indartsua. *Tenk* lana aur-

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko urtarrileko sariak!

Telebista LG 32"

Parte hartzeko sariaren izena: Telebista



Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz



Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea



PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: klub@goiena.eus Whatsapp: KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzailearen artean egingo da zozketa.

Idazlearen LPD 15/1999 legearen arabera, pentsatzen duguzue zuek dituzten Goiena Klubaren sariak zuek bakarrik izango dituzte. Datu pertsonal guztiak Goiena Klubaren sariaren zuzendaritzaren eskuetan daude. Datu pertsonal guztiak Goiena Klubaren sariaren zuzendaritzaren eskuetan daude. Geroago zozketaren emaitzak zuek jakin dezakezue. Geroago zozketaren emaitzak zuek jakin dezakezue. Geroago zozketaren emaitzak zuek jakin dezakezue.

Irabazi tarta bat

GOXO-GOXUA GOZOTEGIARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte!



943 25 05 05



kluba@goiena.eus



KLUBA Jatorria

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Arrasateko Udaleri esker

"Hanse eta Gietel" antzerkirako sarrerak ditugu.

Arrasate | Amaia Antzokia | Otsailak 8 | 17:00etan

PARTE HARTZEKO: OTSAILAREN 6RA ARTE

E-postaz: klub@goiena.eus Whatsapp: KLUBA "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzailearen artean egingo da zozketa.

Idazlearen LPD 15/1999 legearen arabera, pentsatzen duguzue zuek dituzten Goiena Klubaren sariak zuek bakarrik izango dituzte. Datu pertsonal guztiak Goiena Klubaren sariaren zuzendaritzaren eskuetan daude. Geroago zozketaren emaitzak zuek jakin dezakezue. Geroago zozketaren emaitzak zuek jakin dezakezue. Geroago zozketaren emaitzak zuek jakin dezakezue.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailak gozatzeko...



2020ko bazkidetza: 56€

Deitu: 943 25 05 05 • klub@goiena.eus

goienakluba
Euskarari irabazle, denok irabazle!

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05
edo eskelak@goiena.eus

- ▶ Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 176 € / Goiena Klubeko bazkideendako 156 €
- ▶ Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 155 € / Goiena Klubeko bazkideendako 137 €

Goiena: irakurriena Debagoiengan.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

- ARRASATE** Goiena: Otarora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.
- BERGARA** Jardun: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.
- OÑATI** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.
- ELGETA** Ugari: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.
- ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

ESKER ONA



Elias Otero Iregui

(Dominika Uribarrenen alarguna)



2020ko urtarrilaren 28an hil zen, 95 urte zituela.

Lerro hauen bidez Eliasen sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu, bihotz-bihotzez, horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Izan zarenagatik eta erakutsi diguzunagatik ez zaitugu inoiz ahaztuko.

Arrasaten, 2020ko urtarrilaren 31n.

ESKER ONA



Juan Kruz Odriozola Iñurritegi



2020ko urtarrilaren 19an hil zen, 63 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, otsailak 1, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan. Bertaratuko zaretenoi alde zuretik eskerrik asko.

Oñatin, 2020ko urtarrilaren 31n.

ESKER ONA

Feli Telleria Isas-Isasmendi

(Teodoro Zubizarretaren alarguna)



2020ko urtarrilaren 25ean hil zen, 88 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2020ko urtarrilaren 31n.

OROIGARRIA

Jesus Mendizabal Letona

Jesus, zuk ereindako elkartasun haziak loratu daitezten lanean jarraituko dugu.



Arrasaten, 2020ko urtarrilaren 31n.



OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Jakin ezazue nahiz eta heriotz asegurua izan, zuek nahi duzuen hileta-zerbitzua aukeratzeko eskubide osoa duzuela.

Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza dut beti zuentzako.

maribi 617 44 21 55 • BERGARA. ANTZUOLA

HILDAKOAK

- Imanol Irazola Eguren.** Arrasaten, urtarrilaren 24an. 84 urte.
- Feli Telleria Isas-Isasmendi.** Bergaran, urtarrilaren 25ean. 88 urte.
- Jesus Mendizabal Letona.** Eskoriatzan, urtarrilaren 26an. 83 urte.
- Maria Purificacion Bergaretxe Aranzabal.** Arrasaten, urtarrilaren 27an. 85 urte.
- Maria Isabel Uriarte Biguri.** Oñatin, urtarrilaren 27an. 83 urte.
- Elias Otero Iregui.** Arrasaten, urtarrilaren 28an. 95 urte.
- Bernardino Novoa Fariñas.** Bergaran, urtarrilaren 28an. 93 urte.
- Rosa Maria Aranzabal Epelde.** Bergaran, urtarrilaren 28an. 74 urte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

- ARRASATE EGUNEZ**
Egubakoitza, 31 IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39
Zapatua, 1 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Domeka, 2 ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 6
Astelehena, 3 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Martitzena, 4 ETXEBERRIA: Zarugalde kalea / 38 / 943 77 16 30
Eguaztena, 5 ALBERTO AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15
Eguena, 6 M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
- BERGARA EGUNEZ**
Egubakoitza, 31 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Zapatua, 1 URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Domeka, 2 URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Astelehena, 3 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Martitzena, 4 OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Eguaztena, 5 ESTELLA: Mabiategi 5 / 943 76 19 63 X
Eguena, 6 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
- OÑATI EGUNEZ BAKARRIK**
Egubakoitza, 31 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Zapatua, 1 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Domeka, 2 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Astelehena, 3 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Martitzena, 4 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Eguaztena, 5 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Eguena, 6 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

- ARRASATE GAUEZ EGUNERO**
(22:00etatik 09:00etara)
2020ko abuztuaren 31ra arte:
RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09

- BERGARA GAUEZ EGUNERO**
(22:00etatik 09:00etara)
2020 osoan:
OIARBIDE: San Antonio 5 / 943 76 19 63

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko: COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

TXUTXU-MUTXUAK

**1. 1956ko kintoen bazkaria**

1956. urtean jaiotako bergararrak joan den zapatuan elkartu ziren. Goizean elkartu, eta Zumelaga jatetxean bazkaldu zuten guztiek, eta ondoren, dantzaldiarekin amaitu zuten.

2. 'Zunba Day' Oñatin

Bailarako herrietako dantzazaleak bildu ziren zapatuan Oñatin, zunba dantzatzeko. Arropa erosoak jantzita ordu eta erdiko saioa egin zuten gidari batez eta musikaz lagunduta.

3. Boulder txapelketa

37 neska-mutikok boulderra probatzeko aukera izan zuten asteburuan. Txapelketa ere jokatu zuten; 87 eskalatzaile aritu ziren nor baino nor gehiago lehian.

4. Argazki onenei sari banaketa

Artgazki elkarteak *Udazkena Euskal Herrian* argazki lehiaketako irabazleei sariak banatu zizkien zapatuan. Saldutako argazkien dirua Aspanogi elkarteari emango diote: 600 euro.

5. Arrikruz kobetara bisita

Arrasate Herri Eskolako Guraso Elkarteak antolatuta, Arrikruzeko kobetara bisita egin zuten zapatuan. Guztira, 54 haur eta guraso elkartu ziren txangoa elkarrekin egiteko.



Kontatu, kontatu!

Badaukazu ezkontzaren baten berririk? Edo eztei-ospakizunen batenik? Kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Ibilaldi politen bat erakusteko baduzu? Bestelako ospakizunen bat? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkaritza (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko
12:00ak arte
jasotakoak bakarrik
iragarriko ditugu.
Hortik aurrera
jasotakoak hurrengo
asteen argitaratuko
ditugu.

ZORION AGURRAK



BERGARA
Diego Murillo eta Cristian Maestre
Otsailaren 3an, urtebetetzea. Zorionak, lagunak! Ondo pasatu eguna. Ederto ospatuko dugu! Muxu asko eta besarkada potolo bat.



ARRASATE
Izaro Zabalo del Fresno
Otsailaren 2an, 8 urte. Zorionak, maitia. Zortzi urte jada! Ederto pasatu zure eguna. Muxu erraldoiak, etxekoan partetik.



BERGARA
Maren Fernandez Lopez
Otsailaren 2an, 6 urte. Zorionak, politx hori! Edarto ospatu zure urtebetetze eguna. Muxu pila bat, familia danaren partetik.




ARETXABALETA
Nahia Berridi Errasti
Otsailaren 1ean, 5 urte. Zorionak, Nahia, potxoli! Egunderrera pasatu! Besarkada eta muxu pila, etxeko danon partetik.



OÑATI
Hegoi Garcia Calzada
Otsailaren 1ean, 5 urte. Zorionak politx hori! Dagoeneko bost urte! Etxeko txikiñena handitzen dabil. Segi horrelako maitakorra izaten! Maite zaitugu! Txokolatzeko muxuak amatxo, aiatxo, Ane, Enara eta familia danaren partetik.



BERGARA
Irati Barrigon Gauna
Urtarrilaren 31n, 8 urte. Zorionak, Irati! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean! Muxu asko, danon partetik!



ARETXABALETA
Unax Zuazo Oianguren
Urtarrilaren 31n, 8 urte. Zorionak, Unax! Jarraitu zaren bezalakoa izaten. Askok maite zaitugu! Muxu handi bat, familia osoaren partetik.



ARRASATE
Nahia Garro Arana
Urtarrilaren 31n, 12 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxekoan partetik!



BERGARA
Irati Larrea Perez
Urtarrilaren 31n, 5 urte. Zorionak, Irati! Bost urte! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta patxo potolo bat, familia osoaren partetik!



ARRASATE
Iargi Martin Arias
Urtarrilaren 29an, 10 urte. Zorionak, printzesa! Primeran pasatu eguna eta aprobetxatu! Laztan handi bat, etxekoan partetik. Maite zaitugu!



BERGARA
Josu Bilbao
Urtarrilaren 29an, 2 urte. Zorionak eta musu handi bat etxekoan partetik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <https://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra.

Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaituz Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



BERGARA
Endika Urigoitia
Urtarrilaren 29an, 8 urte. Zorionak, Endika, zure zortzigarren urtebetetzean. Egunderrera polita izan! Zure aita Lander, ama Ana, arreba Irati, lehengusu Luzia eta Eder, aitteite Karlos, amama Enkarna, aitteite Luis eta beste senide guztiak.



BERGARA
Markel Gimber
Urtarrilaren 28an, 3 urte. Zorionak, *bixito!* Ondo-ondo pasatu zure eguna. Muxu handi- handi bat, familia osoaren partetik.




BERGARA
Julian Aiastui Elortza
Urtarrilaren 28an, 97 urte. Zorionak, Txantxi, bihotz-bihotzez familia osoaren partetik. Ondo-ondo ospatu eta jarraitu orain arte bezain irribarretsu!



OÑATI
Jokin Elorza Soares
Urtarrilaren 28an, 5 urte. Zorionak, maitte! Ondo pasatu zure urtebetetze egunian! Muxu potoloak, etxekoan partetik!



ARETXABALETA
Ganix Gomez Iturbe
Urtarrilaren 28an, 7 urte. Zorionak, Ganix, zure urtebetetzean. Segi orain arte bezain *gatz eta pipar*. Muxu erraldoiak, maite zaitugun guztion partetik.



OÑATI
Jakes Aramendi Perez
Urtarrilaren 27an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Dagoeneko lau urteko! Ederto ospatu! Patxo erraldoi bat danon partetik. Bereziki, asko maitte zauen Paulek!



ARETXABALETA
Joel Sanchez Cano
Urtarrilaren 26an, 6 urte. Zorionak, bihotza! Egunderrera pasatu eta patxo potolo bat familiariaren, eta bereiziki, aiatxoren eta amatxoren partetik. Mua!



ARRASATE
Hodei Ramos Trenado
Urtarrilaren 22an, 7 urte. Zorionak, potxolo! Zelako handi egin zaren! Ilargiraino eta buelta maite zaitugu! Muxu handi bat! Gurasoak eta Izadi.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 31

ESKORIATZA Mozorroen azoka txikia

Bigarren eskuko mozorroak eskuratzeko aukera, prezio sinbolikoan.

Kultura etxean, 17:00etan.

ARRASATE 'Atletismo taldeak 75 urte' erakusketa

Orain arteko ibilbidearen errepaso egiten duen bilduma ikusgai gaurtik otsailaren 16ra arte.

Kulturaten, 17:30ean.

OÑATI 'Ostegun kontalariak'

Ixabel Agirresaroberen ipuin kontaketa, 6-9 urte arteko umeendako. Gonbidapena aurrez hartu behar zen.

Liburutegian, 18:00etan.

OÑATI 'El hombre, el mundo y lo divino'

Alfredo Iglesiasen egingo du berba, Oñatiko Yoga Eskolak gonbidatuta.

Kultura etxean, 19:00etan

ESKORIATZA Pintxo-potea

Moto DJak girotuko du poteoa, 20:00etatik 01:00era arte.

Compostela tabernan.

ARRASATE Jorge Guillen biolin-jolea eta Strad taldea

Musika klasikoa, rocka, flamenkoa, elektronikoa eta jazz bateratzen dituen emanaldia egingo dute. Sarrerak, hoge euro.

Amaia antzokian, 20:30ean.

ARETXABALETA Eneritz Furyak

Bakarleri irundarraren kontzertua. *Udaletxe zaharrea, 22:00etan.*

OÑATI Letagin eta Rodeo taldeak

Letagin eta Ezherrian diskoak aurkeztuko dituzte, hurrenez hurren. Sarrerak, bost euro.

Gaztetxean, 22:00etan.

BERGARA Fly Shit eta Managaitz taldeak

Abiadura biziko hardcore eta punk doinuak nagusi, *Egubakoitzak berreskuratzen* egitasmoaren baitan. Sarrerak, bost euro.

Gaztetxean, 22:00etan.

ZAPATUA 1

ARAMAIO Santa-eskea

Hainbat auzotan kantuan jardungo dute.

Bizente Goikoetxea plazan, 10:00etan.

BERGARA Gimnasia erritmiko txapelketa

Eskolartekoa, Ariznoa taldeak antolatuta.

Labegaraietan, 10:00etan.

ARRASATE Ludoteka ibiltaria

3-12 urte arteko umeendako eta gaztetxoendako askotariko ekintzak egingo dituzte.

Musakolako gazte txokoa, 11:00etan.

BERGARA 'Ikasle presoen eguna'

11:30ean, *Presoen lanketa heziguneetan* hitzaldia; 14:30ean, bazkaria; 17:00etan, *La fuga de Segovia* pelikula; eta 22:30ean, Rudeska, No Limits, Libertad Condicional eta Lilith Skilith taldeen kontzertua.

Gaztetxean.

OÑATI Maskulinitate berriei buruzko hitzaldia

Harkaitz Zubiria soziologoak egingo du berba, Elkar Hezik gonbidatuta.

Kultura etxean, 11:30ean.

OÑATI Aratusteetako entsegua

Otsailaren 22ko ikuskizuna prestatzeko.

Eltzian, 12:00etan.

ARRASATE Iker Martinez & Zaldi Herrenak taldea

Lurralde berriak diskoa aurkeztuko du Oñatiko taldeak. Debalde.

Irti topalekuan, 13:00etan.

ESKORIATZA Sukaldaritza tailerra: San Blas opilak

Gaztetxoendako.

Gaztelekuan, 17:00etan.

ESKORIATZA Bigarren eskuko azoka solidarioa

Batutako dirua Bubisher elkartearendako izango da.

Fernando Eskoriatza plazan, 19:00etan.

OÑATI Euskal udalekuen jaia

19:00etan, euskal karaokea; eta 22:00etan, Yogurina Borovaren eta DJ Bolloren kontzertua. Debalde izango da.

Gaztetxean.

ARRASATE Numen taldea

Kontzertua egingo du. Sarrerak, bost euro.

Gaztetxean, 22:00etan.

DOMEKA 2

OÑATI Kintoen eskea

2002an jaiotako gazteak ibiliko dira kalerik kale.

Foruen plazan, 09:00etan.

ESKORIATZA Mozorroak egiteko jostuntza tailerra

Jostun batek laguntza eskainiko du patrioiak egiteko. Gaur lehenengo saioa eta hilaren 9an bigarrena.

Kultur etxean, 10:00etan.

BERGARA 'Domeka azoka'

Elkartrukea, berrerabilera eta artisautza sustatzeko ekimena.

Seminarioko patioan, 10:00etan.

ELGETA Bisita gidatua Intxortako lubakietara

Bi ordu eta erdi inguruko ibilaldia.

Aurrez eman behar da izena:

943-79 64 63 edo *turismo@*

debagoiena.eus.

Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan, 10:00etan.

ARAMAIO 'Aramaio ezagutz' bisita gidatua

Debagoieneko Berbalagun egitasmoaren baitan, ordubeteko ibilaldia.

Santa Ana ermitan, 11:00etan.

ARRASATE 'Familian jolasean'

0-8 urte arteko umeendako eta horien familiendako ekintzak.

Okendoko ludotekan, 17:30ean.

OÑATI Beskoitzeko Ikastolaren aldeko jaialdia

Iparraldeko abeslariak izango dira protagonistak; besteak beste, Pantxo Carrere, Michel Ducau, Maialen Errotabehere eta Marie Bidart.

San Migel parrokian, 18:00etan.



LEIHOR ELORRIAGA

BERGARA 'Gorria' dantza ikuskizuna

Miren Amuriza bertsolariaren eta Askoa Etxebarrieta flamenko dantzariaren arteko elkarriketa artistikoa da. Kolore gorriaren sinbologia hari hartuta gatazka askotaz ibiliko dira. Sarrerak, zortzi euro.

Bihar, zapatua, Seminarixoa, 18:00etan.

ARETXABALETA 'Desbloqueadas' antzezlana

Zortzi emakumeren bidaia pertsonala kontatzen du Eskoriatzako @remociones taldeak. Zortzi motibazio bat eginda proiektu bat aurrera eramateko. Sarrerak, lau euro.

Arkupen, 19:00etan.

ASTELEHENA 3

BERGARA San Blas eguna Buruño auzoan

08:00etan, etxafuegoak; 11:00etan, meza nagusia eta opilen bedeinkapena. Salda eta txorizo pintxoak ere egongo dira.

Buruño auzoan.

OÑATI 'Zure talentua erakutsi' tailerra

Debagoieneko Enplegu Azokara begira Mankomunitateak tailerra antolatu du norbere burua enpresaren aurrean aurkezteko klabeak erakusteko.

Euskaldun Berria gelan, 09:30ean.

ARRASATE Zoru pelbikoa indartzeko ikastaroa

Jabetze Eskolaren baitan. Gaur egingo dute lehen saioa

Emakume txokoa, 09:30ean.

ARETXABALETA San Blas eguna

10:30ean, ospakizuna Apotzaga-Etxebarri auzoko Salluente ermitan; eta 19:00etako mezaren ostean, jakien bedeinkapena, parrokian.

Apotzaga-Etxebarria auzoan.

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea

Pentsio duinak eskatzeko

Foruen plazan, 12:00etan.

BERGARA 'Minbizia pasatu ondoren osasuna zaintzen' ikastaroa

Debagoieneko ESiren eskutik.

Osasun etxean, 16:30ean.

OÑATI San Blas ospakizuna

San Blas opila txokolatearekin eta gozokiak jateko aukera. Eztarria babesteko lokarriak ere egongo dira.

Lagun Lekun, 17:00etan.

ARRASATE Santa Ageda koruen entsegua

Irekia, herritar guztiendako.

Alkartu elkartearen, 21:00etan.

MARTITZENA 4

ARETXABALETA Santa Ageda kantuan auzorik auzo

2001ean jaiotako gazteek jardungo dute koplak kantatzen eta eskean.

Herriko auzoetan, 07:00etan.

ARRASATE Santa Ageda koruak

Meza entzun ostean, lehen koplak abestuko dute, eta ostean, taldeka, kalerik kale ibiliko dira.

Parrokian, 08:00etan.

BERGARA 'Zure talentua erakutsi' tailerra

Debagoieneko Enplegu Azokari begira norbere burua enpresaren



AZKEN BERBA

AINTZANE OIARBIDE

Edozerk ez du balio

Joan den larunbatean, urtarrilaren 25ean, ezohiko greba deialdia egin zuten AP-1 autobidean Legutio inguruan. *Ekintza* honen protagonistek *U30 Euskal Herria gelditu* izenburutzat duen komunikatua kaleratu zuten Youtuben zintzilikatutako bideo baten bitartez. Aspaldian gure memorian galduta ez baina baztertuta genituen irudiak ikusten dira hor: 15 bat gazte beltzez jantzita, burua eta aurpegia erabat estalita, formazio edo hurrenkera militarrean.

Azken boladan, aldaketa klimatikoari eta ingurumenaren zaintzari buruz sekula baino gehiago hitz egiten den garai hauetan, itxuragabeak iruditzen zaizkit bideo horretan azaltzen diren irudiak; autobidearen zabalera osoan 30etik gora pneumatiko jarri eta su eman zieten, ikaragarritzko ke beltzeko zutabeak sortuz. 15 gazte hauen aldarrikapen komunikatuan honelako esaldiak aipatzen dira: "... kaleak berriro sutan ikusteko arrazoiak soberan ditugu"; "Herriak agindu eta gobernua egin behar du".

Nola bihurtu dira hauek herri ordezkari? Nork aukeratuta? Gehienok ez ditugu "ekintza militar" hauek ikusi nahi; are gutxiago, sortzen duten kutsadura bortitza, merkurioa, beruna eta karbono dioxidoa barra-barra.

BUKATZEKO

Maratoi erdia aitzakia, Marrakex ezagutu dute

Joan den domekan Marrakexen (Maroko) egin zuten nazioarteko maratoi erdian korrika egiten izan dira sei bergarar, eta laguntzaile lanetan beste bat. Proban parte hartzeaz gain, hiria eta inguruak ezagutzeko ere baliatu dute asteburuko bidaia

Maialen Santos BERGARA

Joan den egubakoitzean, maletak eskuan hartu eta Marrakexera egin zuten hegan zazpi emakume bergararrek. Hiria ezagutzeko gogoz zeudela aitortu du horietako batek, Carmen Zafrak, eta, bide batez, urtero izaten den nazioarteko maratoioan parte hartzeko aitzakiarekin joan dira hara. "Bizi garen inguruarekin alderatuta guztiz ezberdina da Marrakex, baina, era berean, hegazkina hartu eta bi orduan egon zaitezke bertan; beste kontinente batean", azaldu du. Hala, "hurbil" dagoen helmuga izanik, asteburu-pasa joateko aukera izan dute. "Lan arrazoiengatik ezin izaten dugu bidaia luzerik egin; Marrakexek egubakoitzetik astelehenera bidaiatzeko aukera eman digu", zehaztu du Zafrak.

21 kilometroko maratoi erdia

Berak azaldu moduan, "helburu birekin" egiten dituzte bidaiak -iaz, Sevillako maratoioan izan ziren-: lekuak ezagutzeko eta, bide batez, kirola egiteko. Hala, zapatua eta astelehena baliatu zituzten lekuak bisitatzeko, eta, tartean, domekan hartu zuten parte Marrakexko maratoioan.



Maratoi erdian korrika egin ostean, domina jantzita. CARMEN ZAFRA



Ourika haranera bisitan, bertako tea dastatzen. CARMEN ZAFRA

Zehazki, maratoi erdia egin zuten bergararrek -21 kilometroko ibilbidea-. Taldeko zazpigarren kideak animatzen eta laguntzen jardun zuen proba amaitu artean.

Laguntasuna nagusi

6.241 gizonzok eta 670 emakumezok hartu zuten parte maratoi erdian, eta, Zafrazen aburuz, generoari dagokionez "sekulako aldea" da hori.

Hasierako uneak zailenak izan zirela aitortu du korrikalariak: "Jendetza horrekin guztiarekin kostatzen zitzaien aurrera egitea". Behin hasierako kilometroak eginda parte-hartzaileak sakabanatuago zeuden heinean, "errazagoa" izan zen erritmoari eustea, eta proba "arrakastaz" amaitzea lortu zuten. Hain zuzen, horixe zen bergararren helburua: marka ona egin baino gehiago, proba ondo amaitzea. Edozelan ere, egindako denborekin "pozik" azaldu dira guztiak: "Adinaren arabera egin zuten sailkapena, eta gutako bat 21. postuan sailkatu zen bere kategorian. Izugarritzko marka da hori", gaineratu du.

Proban bizi izandakoaz galduta, "laguntasuna" nabarmendu gura izan du: "Gutako batek arnasteko arazoak izan zituen une batez, eta korrikalari ezezagun bat hurbildu zitzaion laguntza eskaintzera". Ikusleen artean ere "ezin hobea" zen giroa.

Behin Marrakextik itzulita, datozen hilabetetarako helmuga berrien bila hasiak dira dagoeneko: Budapest, Erroma eta Porto dituzte aukera posibleen artean. Argi dutena zera da: hegazkinez zein korrika, ahal beste kilometro egiten jarraituko dutela elkarrekin.

ELKARRIZKETTAP

GOIENA TELEBISTA

URTARRILAREN 31N, EGUBAKOITZEAN, 21:30EAN

ANE ZABALA KAZETARIAK AIORA RENTERIA ABESLARIA

ELKARRIZKETATUKO DU

goiena
Zu hemen zaude.

